ttipi-ttapa

MODA GEHIGARRIA / 33

Bigarren urtez osasunaren aldeko eguna antolatu dute Sunbillan / 8

Zubietako eolikoen proiektua hizpide Ernesto Dominguez alkatearekin / 31

Atekatu jardunaldiaz Ibon Azpirotz eta Oihana Zabaletarekin / 38

Baztango hiru gazteren ikasketa akabailako lanak saritu ditu udalak / 44

Fernando OIARTZUN SAGASTIBELTZA

«HERRIRIK EUSKALDUNENETAN ERE TOKA GAIZKI ERABILTZEN DA ETA NOKA TOKI GUZTIETAN GALTZEN ARI DA»

Hiketan egiten duten Leitzako adineko emakumezkoak eta gizonezkoak elkarrizketatuta, 'Hika eta toka. Noka ere toka!' liburua osatu du. / 10

Malerrekako Eguna Oizen

Malerrekako Mankomunitateak egun osoko egitaraua prestatu du maiatzaren 13rako. / 32

Panelak-Olanak-Biniloak

Material bereziak obretan informazioa paratzeko

PANELAK

- Neurrira eginak
- Hainbat materialetan
- Formatu handiak
- Izkin borobilduak
- Formekin moztuak
- Iraunkorrak...

ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan

PVC
Forex panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan

METAKRILATOA
Gardenak eta opakuak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

OLANAK

- Zuloekin izkinetan
- Errefortzu bikoitza
- Formatu handiak
- Mikroperforatuak

BINILOAK

ERROTULAZIOAK
- Neurrira eginak
- Erakusleihoak
- Formekin moztuak
- Furgonetak
- Hainbat materialetan

AZIDOAK

ELEKTROSTATIKOAK

MIKROBENTOSAK



GARDENAK

MIKROPERFORATUAK

POLIMERIKOAK

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com

NIRE TXANDA

HARITZ BEREAU MUTUBERRIA

Dena ez da zilegi

Joder, hor daudenek ez dute deusetarako balio, ez dakit zer egiten duten hor, zein ongi bizi diren, edozeinek eginen luke horiek baino hobeki, ez da zaila, interes pertsonalengatik daude hor, politikoak eta bertze hainbertze. «Politikoak» nola ez, modu despektiboan; eta zer? Politikoa kritikatzen dutenak apolitikoak ote?

Zerrendak goiti eta beheiti, herrietan batzarrak eta lau urteetako kritikatzaileak desagertuta, desagertuta edo etxean, edo ostatuan ote? (Hautagaitza prestatzen? Kar-Kar).

«ZERRENDAK GOITI ETA BEHEITI ETA KRITIKATZAILEAK DESAGERTUTA...»

Bai, lau urte ondotik berriz ere foru hauteskundeak datoz, eta horiekin batera, udal hauteskundeak. Batzuek paso egiten dutela diote karriketan, udal zerrendak nola dauden galdetzen duten bitartean, interes ezaren maskarapean interesa ote?

Izanen dira interes konkretuengatik sartuko direnak eta izanen dira ilusio gabe zerrenda betetzegatik joanen direnak. Eta nola ez, udal ordezkariez gain, herritarrok ere badugu zer erran, zer hausnartu eta zer proposatu, baina aizu, ez, dena ez da zilegi.

EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Ispiluaren aurrean

Memoria selektiboa zela bagenekien eta hauteskunde garaian zer erranik ez! Memoriaren webguneetan nor iltzatu eta nor laxatu zebiltzan bitartean, Mikel Zabalzaren heriotzean zerikusi eta zer errana lukeen Espejo jauna mailaz goratu dute. *Epaile batek bertsio ofiziala ez zela egia ikusten zuenean, epailea aldatzen zuten.* Zabalzaren sendia mintzo.

NABARMENTZEKOAK

MADDALEN JIMENEZ
LASTERKARIA

Maddalen Jimenez beratarrak bigarren postua lortu zuen Berako Mendi Maratoi Erdian. Jimenezekin batera bertze herritar batek osatu zuen podiuma, Ane Eltzaurdiak.

MIKEL NIEVE
TXIRRINDULARI OHIA

Kern Pharma txirrindulari taldeak Mikel Nieve leitzarra sartu du bere talde teknikoan, errendimendu-atala indartzeko eta egituran aurrerapauso bat emateko ahaleginean.

GIBELERA BEGIRA

2013-05-02 · TTIPI-TTAPA · 589 zk.

Topaguneari buruz Oskar Zapatarekin

Euskaldunen bilgune izateko helburuarekin sortu zen 1990ko hamarkadan Euskaltzaleen Topagunea, euskara nonahi eta noiznahi erabili nahi zuten horien bidelagun izateko asmoz. Eta horixe izan zuen aipagai duela 10 urte TTIPI-TTAPAk Oskar Zapata Nafarroako arduradunarekin. Zapatak azaldu zuenez, bere egitekoa gizarteko beharrei erantzuna eman eta aldi berean gizartean eragitea zen. Etorkizunaz ere mintzatu zen: «Orain arte, behetik gora ikaragarrizko lana egin dugu eta orain goitik behera blaitu behar ditugu herritarrak. Egiten dugun lana gizarteratu behar dugu, urte hauetan plazara kontzeptua bidean galdu baitzaigu askotan. Herritarren parte hartzea indartu, sentsibilizazio lana egin eta denon ilusioa piztu behar dugu».

ttipi-ttapa
erran.eus
TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz, Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Ana Iturbide, Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola, Maitane Maritorena, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Jean Louis Bessonart, Ganex Etxeberrigarai, Maialen Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier Zulaika.

Fundazioaren Presidentea
Paskual Rekalde
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia

Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	45€
Leitza	36€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	100€
Amerika eta Australia	152€

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · mecna · Baztango euskara · Bortzirietako Euskara Mankomunitatea · Malerrekako Mankomunitatea

CC BY SA

KOLABORAZIOAK

IRATXE MUXIKA KARRION

Apirilaren 23a. Sant Jordi

Gaur arte ez dut pentsatu zeinen ederra den norbaitek liburu bat oparitzea. Are, liburua oparia jasoko duen harengan pentsatzen erositakoa baldin bada, ez ausaz aukeratua, alegia.

Ez dakit niretzat liburuek noiz utzi zieten institutuko eginbehar bat gehiago izateari, duela hagitz guti arte horixe ziren-eta niretzat: derrigor leitu beharreko orriak, bertzerik ez.

Gerora pentsatu nuen akaso nik ere hasi beharko nukeela leitzen, erakargarri egiten ez zitzaidan arren ni baino zaharragoek hori egiten zutelako edo. Oroitzen dut amonak oparitutako Karmele Jaioren liburua hartu nuela eta deus egitekorik ez nuen arratsalde batean sofan jarri eta huraxe leitzen hasi nintzela. Liburuak zer erraten zuen ez dut oroitzen, baina, antza denez, zerbait izanen zuen niri anitz gustatu zitzaidana.

Liburu haren gibeletik etorri ziren Elkarrera bisitak eta lagunen gomendioak, kritikak eta gehiago sakondu nahia. Liburuek lasaitasuna ematen didate, eta pentsatzen hasia naiz lasaitasun horrexen bila joaten naizela liburu bat leitzen hasten naizenean.

Nobela zalea naiz ni, behar duena istorioak hastea eta bukatzea, amaierak interpretaziorako biderik ireki gabe. Gustatzen zait istorioak irrealak diren arren nire buruan hagitz errealak izatea, nahiz eta ongi jakin ez ditudala bizituko. Era berean, maite ditut istorio gogorrak, triste nagoenetan are tristeago jartzen nautelako, kantuekin gertatzen den eran. Liburu azalei garrantzia handia ematen diet, begietatik sartu behar delako lehendabizi liburu bat, eta anitzetan huraxe izaten delako nire erosketa baldintzatzen duen faktore eragile nagusia.

«ZEINEN EDERRA DEN NORBAITEK LIBURU BAT OPARITZEA...»

Katalunian Sant Jordi Egunean arrosak eta liburuak oparitzen omen dituzte, ederra behar du. Gurean ez dago horretarako egunik, ez nik dakidanik, behinik behin, baina eginen balitz, ziur naiz jakinen nukeela inguruko lagun bakoitzari zein liburu oparituko niokeen. Horixe duelako liburuak, ezaugarri propio anitz eta norbanako batengan edo bertzearengan eragiteko gaitasuna. Batzuetan pentsatzen dut nik ere idatzi nahiko nukeela nobela bat, baina gero oroitzen dut zer kontaturik ez dudala eta hobe dudala leitu idatzi baino.

Beraz, libururik idatziko ez dudanez hasi nahiko nuke, behintzat, opariak egiten. Liburuak banatuko dizkiet ingurukoei edo leitzen ari nintzela burura etorri zaizkidan haiei, berdin dio.

ANE INTXAUSTI LASARTE

Soilik horrela

Mundura etorri berria zara eta zein ote naizen galdezka ariko zara seguruenik. Kaixo, txiki. Ni naiz, gizartea. Zatoz nire besoetara. Galduta sentituko zara, ezta? Noraezean. Lasai, horrela iristen zarete denak... Zatoz, jarrai nazazu. Ez beldurrik izan. Nik erakutsiko dizut bidea.

Lehen urteetan ez duzu betebehar handirik izanen. Memoria izaten hasten zarenerako haur eskolan igaroko duzu egunaren zati handiena (ez dut denborarik galduko orain arteko guztia kontatzen, ez duzu gogoratuko eta). Etapa honetan garrantzitsuena aitatxo eta amatxok esandako guzti-guztia betetzea izanen da. Denetarik jan, jarraian egin lo gau osoan eta txintxo portatu. Batez ere, txintxo portatu.

Haur eskolatik eskolara eramanen zaituzte eta eskolatik institutura joanen zara. Hemen ere garrantzitsua izanen da aitak eta amak esandako guzti-guztia betetzen jarraitzea. Gauza asko memorizatuko dituzu, eta haietako batzuk ikasi ere bai. Ez hitzik egin irakasleak hitz egiten duen bitartean, etxeko lanak egin, dena gainditu eta, berriro ere, txintxoa izan.

Institutuko azken urtea amaitzean unibertsitatera eginen duzu salto. Orain, adi: lau urte hauek zure bizitzako urterik onenak izan beharrak dira. Tarte honetan ere klasera joaten jarraituko duzu, liburu potolo-potoloak memorizatuko dituzu eta azterketa gehiago egin. Lagun berriak eginen dituzu, gidabaimena atera, parranda gehiago egin eta zure bizitzako maitasuna ezagutuko duzu. Garrantzitsua da aipatutako hori guztia lau urte hauetan egitea. Zure ardura izanen da nola kudeatu, baina horrela behar du izan. Ondoren ez duzu izanen horretarako denborarik, eta, gainera, beranduegi izanen da.

«INERTZIAZ JARRAITUKO DUZU ERRUTINAREN ARRAPALADA...»

Unibertsitatea bukatu bezain laster aurkituko duzu amestutako lanpostua, eta bertan pasako dituzu eguneko ordu gehienak erretiroa hartu bitartean, oraindik ordaintzen hasi ez zaren etxebizitza ordaintzen hasi ahal izateko hogeita hamar urteen langara iristean. Garrantzitsua da hogeita hamar urteen langa. Lehenik etxe bat erosiko duzu, unibertsitate garaian ezagututako zure bizitzako maitasunarekin ezkonduko zara ondoren, auto moderno familiarra erosiko duzu gero eta bizpahiru ume izanen dituzu azkenik. Ordena hau errespetatuz.

Honaino iritsita gutxi gehiago izanen duzu egitekorik bizitzan. Baina ez kezkatu, azkar pasako zaizu eta. Modu automatikoa aktibatuta izanen duzu ordurako eta inertziaz jarraituko duzu errutinaren arrapalada. Pentsatu beharrik izan gabe. Ez al da zoragarria?

Gogoratu, txiki: horrela, soilik horrela, izanen duzu arrakasta bizitzan.

11 GALDERA LABUR

ALBERTO FAGOAGA LEIZA ARANTZAKO KIROLARIA

«Txapelketetan giro hagitz polita izaten da arpanean»

Kirola egitea maite duen aranztarra da Alberto Fagoaga Leiza, eta bertzeen artean arpanean aritzen da.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Ttikitatik kirolak gustatu zaizkion mutil alaia.

Zein dira zure zaletasunak?

Aunitz gustatzen zait hainbat kirol egitea, eta horretaz aparte, lagunekin planak egiten pila bat disfrutatzen dut.

Zein kiroletan aritu izan zara eta zein duzu gustukoen?

Momentu honetan mendian lasterka pixka bat, frontenisean, arpanean... baina gaztetan beti pilotan aritzen ginen. Ikusteko, herri kirolak eta pilota gustatzen zaizkit gehien, baina aritzeko edozein.

Nondik heldu zaizu herri kirolekiko zaletasuna?

Arantzan betitik izan da herri kirolekiko afizioa, ttiki-ttikitatik ikusi ditut eta beti izan ditut gustuko.

Noiz eta nola hasi zinen arpanarekin?

Ttikitan hasi nintzen, infantil eta kadete mailan herri artekoan parte hartzen genuen eta orduan hasi ginen. Urte pila bat geldirik egon eta gero, lehengo urtean berriz animatu ginen berriz probatzera eta hastera.

Zenbatean behin entrenatzen zara?

Nahi eta behar baino guttiago...

Txapelketetan ibili zara, ezta?

Bai, lehengo urtean lehenbiziko aldiz Nafarroako Proba Konbinatu Mistoan eta Nafarroako Trontza Txapelketan hartu genuen parte. Egia erran herrietan sortu zen giroa eta saltsa hagitz polita izandu zen, animo faltarik ez genuen izan eta hori eskertzekoa da.

Zein da arpanean ongi aritzeko sekretua?

Aunitz entrenatzea bezalako sekreturik ez da!

Eskualdean herri kirolekiko zaletasun haundia dagoela uste duzu?

Ez dut uste zaletasun haundiegirik dagoenik, lehenago zegoen adinako afiziora bueltatzea ez da erraza izanen baina nork daki...

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Aspaldiko urtetan arpanako txapelketetan beti goian izan diren horiei estualdi bat bederen ematea... [irriz].

Eta zein dira zure asmoak epe luzera?

Osasun ederrarekin entrenatzen segitu ahal izatea!

IRAKURLEAK MINTZO

Erdiz osorik

GORKA LAURNAGA

Kondaira zahar baten arabera, baztandar jendeak sortu omen ziren Baztan bera sortu baino lehen. Bailararik gabe, aterperik gabe, munduaren sortzaileek jende horiei landareak eta harriak eta maldak eman eta eremu hori egitera bidali zituzten, auzolanean. Baztan izena paratu zioten, *Bat Han*, erdia lurra, erdia jendea. Hortaz dute hain maite, jendeak bailara eta bailarak jendea. Eta ehunka urte beranduago, ez bat ez bi, bi mila lagun inguru joan ginen Iruñera, gure bailararen defentsan. Leiho eta balkoietatik zapi arrosa haiek begira zebiltzan iruindarrak, ulertu nahian zergatik 'minbiziaren' aldekoek zeramatzaten *gariak* eskuetan, ulertu gabe bertze min bat zela hura, bizia hau ere. Bertsoetarako edo malkotarakoak ikusi ziren: manifestazio osoa muletetan egin zuen berroetarra; Erdizengatik kolore arrosak jantzi zituzten gizon-gizonak; Zara, Springfield eta arroparen kontsumismoaren kale barean atorra *koadrokariak*; kanpainako postuan, hitza kendu digun alderdietako batek *garien* mingainak luuuuuuzez aditu behar izan zituztenak. Han elkartu ziren jende berria eta berriz ere hamasei urteren ondotik kalera ateratakoak. Larunbat arratsalde batez *manira* joateko ostatua itxi zutenak ere, solomo pintxoa egiteko behar baita abeltzaina, eta abeltzainarendako behia, eta behiarendako larrea, eta larrearendako Erdiz. Eta egon ziren *ezinbertzekoak*: ortzirale gauetako pankartenak; bilerenak; kameren edo denen aitzinean baztandarren ahotsa izaten ausartu direnak. Aditu behar izan gintuzten, egunkari zenbaitetan mespretxatu bagintuzten ere: ateratzeko atzapar pribatuak herri lurretatik; Erdiz osorik nahi dugula; landa eremua ez dela soilik landareen eremua eta guk badugula hitzik; harrobirik gabe harro gaudela gure lurrez; Erdiz zaharra ere badela gazteen etorkizuna; eta kapitalismo heteropatriarkal konoli… bueno, dena delakoa hori stop. Aroztegikoa gelditu genuen, Erdizkoa ere behin. Haiek milioiak dituzte, baina guk gure lurra maite dugu.

BOTA BERTSOA

ITXASO ARRIETA AGIRRE
SUNBILLAKO BERTSOLARIA

Udara begira

Doinua: Horra sei bertso kale II

Lan eta lan aritu
naizenez neguan,
baita jada pasa den
aste santuan.
Udan pentsatzen jarriz
aunitzen moduan,
hegazkinak begira
ordenagailuan:
Michigan lakuan,
Cayambe kaskuan,
edozein lekuan,
konten ta kantuan.
Motxila bizkarrin ta
ibili munduan!

Kostalde edo mendi
gailur edo olatu,
aterpe zein garraio
milaka datu.
Talde lanean dena
ongi antolatu.
Data hauek agendan
ongi azpimarratu.
Motxila ta zaku,
galtza motzak batu,
guztia prestatu,
egunak kontatu.
Lagun onez gozatu
ta disfrutatu!

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus
948 63 54 58

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?

* Izartxoa dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*'Geldierazi' ala **'geldiarazi'?**

Tradizioan, *-arazi* formaz gainera, *-erazi, -erazo, -arazo* aldaerak ageri dira. Euskara baturako, ordea, *-arazi* aldaera gomendatzen du Euskaltzaindiak: harrarazi, jokarazi... Salbuespen bakarra *adierazi* da.

Aitzineko aditzoinari lotua idatziko da beti *-arazi:* harrarazi, erorarazi, iraunarazi, hilarazi, betearazi, galarazi, geldiarazi, ezagutarazi, nabarmenarazi, haserrearazi, ihardetsarazi, inarrosarazi.

-araziren aitzineko aditza *a* bokalaz amaitzen baldin bada, *a* biekin bat eginen da: aldarazi, benedikarazi, jokarazi, koordinarazi, obligarazi, sozializarazi.

Izan zen zalantza aditz jakin batzuekin —erdiko -t- beharrezkoa ote zuten ala ez—, baina kontua erabakita dago: -t- gabekoak dira baturako formak —agerrarazi (*agertarazi), sorrarazi (*sortarazi), ezkonarazi (*ezkontarazi)...—, nahiz salbuespenik ere baden —ulertarazi, ohartarazi, urtarazi eta agintarazi—.

Badira erdian -t- bat duten aditz gehiago ere: ezagutarazi, botarazi, gezurtarazi, tristarazi, jostarazi, gertarazi..., baina halakoetan dagoen -t- hori ez da loturakoa, aditzoinarena berarena baizik (ezagu**t**-, bo**t**a, gezur**t**a-, tris**t**a-, ger**t**a-...).

Osatu bikoteak

AGUDO	AGINDU
ARESTIAN	AZKURA
MANATU	ZAKUR NABARRA
AZNAHI	FITE
URRIKITU	LEHENXEAGO
ASTO ZURIA	DAMUTU

Oharra: Asmatu al zenuen 828. aldizkariko hieroglifikoa? Hitza Xorroxin da.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...

info@ttipi.eus

744 48 43 61

Nola erran

Amerikano ≠ Amerikar

Euskaltzaindiak dioen bezala, *amerikar* eta *amerikano* ez dira sinonimoak adiera guztietan.

-Sinonimoak dira *amerikanok* Amerikari dagokiona edo Amerikako herritarra adierazten duenean:

> Amerikanoek/ Amerikarrek egia aitortu dute.

Hala ere, AEBko herritarrak izendatzeko, zuzenagoa da *estatubatuar* erratea; *amerikano/amerikar,* berez, kontinenteko guztiak baitira.

-*Amerikano* izenondoak, ordea, badu bertze adiera bat: Ameriketatik (aberasturik) itzuli den euskal herritarra. Esanahi horretarako, ez da *amerikar* erabiltzen; hau da, *amerikar* ez da erabiltzen *indiano* esanahia adierazteko.

> Osaba amerikanoa, euskaldun amerikanoak....

Haritz Agesta, Daniel Bertiz, Aitor Ibarra, Bixente Ibarra, Aitziber Juanenea, Maitane Ibarra, Ion Anzizar, Ander Mariezkurrena eta Nieves Biurrarena egunaren antolatzaileak.

Osasunaren aldeko hitzordua Sunbillan

Joan den urteko arrakasta errepikatzeko ilusioz, aurten bigarren aldiz, Osasunaren Eguna antolatu dute Sunbillan. Maiatzaren 27an eginen dute eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Bildutako dirua Adano eta Anadi elkarteetara bideratuko dute

G. PIKABEA SUNBILLA

«Nahiz eta gizartean geroz eta indibidualistagoak bihurtzen ari garen, uste dugu jendeak baduela laguntzeko prestutasuna. Laguntzeko gogo hori nolabait bideratzea lortu behar dugu, eta horretarako aproposak iruditzen zaizkigu Osasunaren Eguna bezalako ekintzak». Eta hori hala dela konbentzituta, aurten, bigarren urtez, Osasunaren Eguna antolatu dute Sunbillan. Aldi honetan Adano minbizia duten haurren Nafarroako elkarteari eta Anadi Nafarroako Diabetes Elkarteari diruz laguntzeko izanen da eta horren harira, egun osoko egitaraua prestatu dute maiatzaren 27rako.

Eguna behar bezala atera dadin, bederatzi laguneko taldea buru-belarri lanean hasia da aspaldian: Nieves Biurrarena, Haritz Agesta, Daniel Bertiz, Aitziber Juanenea, Ander Mariezkurrena, Aitor Ibarra, Bixente Ibarra, Maitane Ibarra eta Ion Anzizar.

Joan den urtetik lanean

Joan den urtean hasi zuten elkarlana, desfibriladoreak erabiltzeko ikastaro bat antolatzeko aitzakiarekin: «Ikastaroa ematera Ramon Campos ekarri genuen eta hasieratik hagitz ongi moldatu ginen berarekin. Ikastaroa akitu zenean, egunen batean Sunbillara berriz etortzeko prest egonen litzatekeela erran zigun, herritar guztiei zuzendutako ikastaro azkar bat emateko». Eskaintza onartu eta ikastaroa emateko hasierako asmoa, egun osoko besta bihurtu zen: «Egitaraua nola bete pentsatzen ari ginenean, elkarteren batendako dirua lortzeko aukera ederra izaten ahal zela okurritu zitzaigun». Herriko kasuetan jarri zuten begia, eta «aterako genuen dirua Saray Bularreko Minbiziaren Nafarroako Elkarteari eta gaixotasun lisosomalen MPS elkarteari ematea pentsatu genuen. Ideia batek bertzera eraman gintuen, eta horrela sortu zen Osasunaren Eguna».

«Egun borobil-borobila»

Ez dute atzendua joan den urtekoa, «uste baino hobeki atera» baitzen, antolatzaileen hitzetan, «dena borobil-borobila. Gure aurreikuspen guztiak gainditu ziren, bai jendearen parte hartzearen aldetik, bai inguruko eta ez hain hurbileko merkatari, elkarte, eragile eta bertze hainbatek emandako ekarpenaren aldetik». Esker oneko hitzak dituzte. Alde batetik, «laguntza eske jo genituen ate guztiak ireki zizkigutela» aipatu dute, eta bertzetik, «guk uste baino diru gehiago lortu genuela». Arrakastaren seinale bi datu: bazkarian 175 lagun bildu ziren eta enkantean 1.530 euro lortu zituzten. Eta noski, laguntza hori hartu zuten Saray eta MPS elkarteak ere kontent gelditu ziren: «Hagitz eskertuak gelditu ziren. Hasieran harriduraz hartu zuten, nola izaten ahal zen 700 biztanleko herri ttiki batek horrelako egun polit bat antolatu izana eta gainera ateratako diru guztia beraiei eman izana. Normalean, horrelako ekitaldiak elkarteek antolatzen dituzte, familia eta kideen laguntzarekin. Gure kasuan, ordea, beraiekin deus ikustekorik ez duen herritar talde batek egin zuen dena, eta hori ez da ohikoa. Seguru gaude, horrelako ekarpenek indarra eta lanean

BILDUTAKO DIRUA ADANO ETA ANADI ELKARTEENDAKO IZANEN DA

segitzeko gogo gehiago ematen dietela».

Aurten gehiago

Lehenbiziko edizioa «hain ongi atera zela ikusita», egitasmoari segida eman eta aurten berriz antolatzea erabaki dute. «Joan den urtean, uztailaren 2an, Osasunaren Egunari buruzko balorazio bat egiteko afaria egin genuen taldeko guztiok. Denek hagitz balorazio positiboa egin genuen eta aurten ere zerbait antolatzeko gelditu ginen. Erraten ahal dugu orduz geroztik gaiarekin bueltaka ibili garela, baina duela hilabete pare bat hasi ginen buru-belarri».

Onartu dute antolaketak bere lana eskatzen duela; «Ezin dugu erran horrelako egun bat antolatzeak zailtasunik ez duenik, gauza aunitz lotu behar dira». Baina kontent ari dira taldean, «lantalde ona osatzen dugu eta horrela gauzak errazago egiten dira. Kide bakoitzak bere abilidadeak dauzka eta horren arabera banatzen ditugu lanak; batzuk ostatuetan, dendetan eta gainerakoetan laguntza eske ibiltzen dira; bertzeek egunean bertan behar diren azpiegiturak eta baimenak lortzen dituzte; bertzeek kartelak eta logoak diseinatzen dituzte... Denendako badago egitekoa. Egunean bertan lan aunitz izaten dugu, baina zati haundi bat lehenagotik egin beharreko prestaketak dira».

Eta prestaketa horiek behar bezala eginda, «aurtengoa berdin edo hobeki ateratzea» espero dute. Berrikuntza gisa, «zozketarako txartel gehiago paratuko ditugu saltzeko eta bi sari izan beharrean lau sari izanen dira. Dagoeneko ekarpen aunitz hartu ditugu eta gehiago etorriko direnez, sari ederrak izanen dira».

Adano eta Anadi

«Laguntza beharko duten elkarte gehiago egonen direla» dioten arren, aurten Adano eta Anadi elkarteak dituzte begiz joak: «Zein elkarteri bideratu erabakitzen ari ginela, Aitor Bazterrikaren izena atera zen. Taldeko batzuen aspaldiko ezaguna da, eta beraien semeak duela urte bat minbizia pasatu zuen. Berarekin harremanetan jarri ginen eta espero genuen bezala, buru-belarri sartu da antolaketan eta ahal duen guztian laguntzen. Hori izan zen Adano elkartea aukeratzearen arrazoia». Horrez gain, «herrian zenbait diabetes kasu» izaki, Anadira jo zuten: «Bi elkarteak hagitz kontent hartu zuten gure eskaintza eta denetarako laguntzeko prest agertu dira».

Parte hartzeko deia

Egun haundiaren atarian, parte hartzeko deia egin nahi izan diete antolatzaileek herritarrei: «Adano eta Anadi elkarteei laguntzeaz gain, hagitz giro onean egun ederra pasatuko dugu». Baina horrekin batera, «lagundu nahi duenak modu aunitzetan bere ekarpena egiten ahal duela» oroitarazi nahi izan dute: «Lehenagotik txartelak erosiz, enkantean parte hartuz, bazkarira joanez, taloak erosiz...». Esplikatu dutenez, «txartelak salgai daude eta horiek erosteko gonbidapena egin nahi dizuegu. Bertzetik, joan den urtean arrakasta haundia izan zuen kamiseten enkantea ere martxan paratu dugu. Famatu batzuen kamisetak lortu ditugu beraien sinadurekin; futbolarienak, pilotarienak, txirrindularienak, eskubaloi jokalarienak... Parte hartu eta egin zure eskaintza!».

Edozein moduz, herritarrei ez ezik, gobernuetako ordezkariei ere luzatu die mezua Sunbillako talde honek, haien aldetik gabezia edo «falta» sumatzen dutelako; «Geroz eta eritasun gehiago dauden gizarte honetan ikerkuntzari ez zaio behar duen garrantzia ematen eta aunitzez ere diru gehiago inbertitu beharko lukete eritasunen ikerketan».

Esker onez

Etorkizunera begira, ez dute argitu ekimen honek segida izanen duen edo ez. «Pausoz pauso» doazela diote, «ea aurtengoa nola ateratzen den. Guztia akitzean ikusiko dugu ea gure helburuak betetzea lortu dugun eta jendeak nolako balorazioa egiten duen. Horren arabera erabakiko dugu heldu den urtean bertze erronka bati ekiteko prest gauden».

Orain arte jendearen aldetik hartu duten erantzunak behintzat antolatzeko adorea ematen die: «Laguntza eske joan garen ostatuek, dendek, eragileek, elkarteek... guztiek zerbait ematen digute. Egunean bertan ere jende aunitzek laguntzen digute antolatutako ekitaldiak antolatzen». Hala, laguntzaile guztiei eskerrak emateko probestu nahi izan dute aukera: «Hagitz zerrenda luzea izanen litzateke banaka-banaka guztiak aipatzen hasteko, baina mila esker modu batera edo bertzera lagundu diguzue guztiei. Zuek gabe hau ez litzateke posible izanen».

Hala ere, laguntza horretatik haratago, bada lantalde honi lanean segitzeko indarra ematen dion bertze arrazoi bat: «Ekimen honen inguruan sortzen diren istorioak eta bizipenak. Horiek dira barrenetik gehien betetzen gaituztenak. Hagitz momentu politak eta hunkigarriak bizi ditugu antolatzen ari garen bitartean eta horrek aunitz betetzen gaitu».

Joan den urtean Osasunaren Aldeko Egunean hartutako irudi bat.

Egun osoko egitaraua

Ekitaldiz betetako eguna prestatu dute sunbildarrek maiatzaren 27rako. Bildutako dirua Anadi eta Adano elkarteei emanen diete.

- 10:00etan martxa solidarioa. Herriari buelta musikariekin.
- 11:00etan mural margotzea Iciar Mikelperizenarekin.
- 11:00etatik 13:00etara puzgarriak frontoi gibelean.
- 11:00etan hitzaldia plazan Adanoko kideekin.
- 12:15ean hitzaldia plazan Anadiko kideekin.
- 14:00etan bazkari solidarioa elizako aterpean. Txartelak Fonda ostatuan eta Marisol janari dendan salgai. Bakoitzak bere platera, basoa eta mahai tresnak eraman beharko ditu.
- Ondotik bingoa eta zozketa.
- 18:00etan zunba.
- 19:00etan bingoa plazan.
- 20:00etan kamiseten enkantea. Lau lote zozketatuko dituzte.
- 20:00etan taloak plazan.
- 20:30ean mexikarrak Chuchin Ibañez eta Jesus Tapizekin.
- 22:00etatik 03:00etara J&J DJa.

«Hiztun zaharren aberastasunak berezi egiten du gure hitanoa»

FERNANDO OIARTZUN SAGASTIBELTZA 'HIKA ETA TOKA. NOKA ERE TOKA!' LIBURUAREN EGILEA

Leitzan hiketan egiten duten adineko emakumezkoak eta gizonezkoak elkarrizketatuta, hiketan ikasteko eta Leitza hobeki ezagutzeko liburua ondu du Oiartzunek

G. PIKABEA LEITZA

Hika eta toka. Noka ere toka! liburua esku artean pozik ikusi dugu Fernando Oiartzun. Hilabete luzetako lana izan da, orduak eta orduak pasatu ditu liburu horrek argia ikusi aurretik, baina herriarenganako, kulturarenganako eta euskararenganako sentitzen duen maitasunak erakargarri egin dute bidea. Are gehiago, oraindik gehiago sakontzen segitzen du. «Asko ikasi» duela dio, eta miresmenez mintzo da «hiketako Leitzako moldea, noka eta toka, era dotorean eta txukunean» erakutsi dioten herriko «hiztun jatorrez» . Haiei egindako elkarrizketekin osatu du liburua, haien «jakinduria eta euskara aberatsari» esker. Hiketan aritu zaizkio garai bateko kontuez, eta horrek Leitzako noka eta toka ikasteko eta duela 80 urteko herria nolakoa zen ezagutzeko bidea eman dio. Hori guztia bildu du Alke kultur taldeak argitaratu eta auzolanean egin duten liburuan.

Zergatik hasi zinen Leitzako hitanoa ikertzen?

Arrazoi asko daude, tartean, bizitzan jasotako zaplaztekoak edo markatzen zaituzten hutsuneak. Gazteak ginenean, gure belaunaldikoon artean, erdara nagusitu zen Leitzan. Gure auzoan, adibidez, baserritarren seme-alabak ginen eta gurasoek euskaraz eginagatik, guk erdaraz egiten genuen. Amak leihotik guri euskaraz zerbait esan, eta guk erdaraz erantzun. Hitanoari lotutako lehenbiziko zaplaztekoa, berriz, intsumiso garaian hartu nuen. Militarismoaren aurkako borrokan genbiltzan garai hartan, betiko afarien kontra, *Inutillen aparie* antolatu genuen. Kartelak toka egin genituen eta poz-pozik gelditu ginen. Denak ez, ordea. Dena toka egin izana leporatuz, neska bat sekulakoak esanez etorri zitzaigun. Harrituta gelditu ginen, Guk ez genuen nokaren arrastorik ere, ez genuen sekula aditua. Etxean *atte*ri galdetu, eta «Jesus gizona, hori ez al dakizu? Deus ez dakizue!», erantzun zidan. Eta ez, guk ez jakinki. 90eko hamarkada zen eta ordurako ez zen aditzen. Baserriko emakumeak ostiraletako ferira etortzen zirenean haien artean aritzen ziren, baina gainerakoan ez. Garai berean, emakume taldea noka berreskuratzeko eginahaletan aritu zen eta erregistro horri buruzko jardunaldi bat antolatu zuen Torrean. Emakume batzuk elkartu eta hiketan aritu ziren. Huraxe izan zen Leitzako noka aditu nuen aurreneko aldia. Harrituta gelditu nintzen hizkera berezi eta polit horrekin. Etxean bertan genuen, eta erabat ezezaguna. Jakin-mina sortu eta gaia lantzeko bidea irekia gelditu zen.

Alke kultur taldean sartutakoan hartu zenuten gaia esku artean...

Beti izan nuen gurasoak hizketan ari zirenean gauzak apuntatu eta galdetu eta nire euskara hobetzeko joera. Umetan eta gaztetan alde batera utzia genuenez, hutsune haundiak sumatzen nituen eta *atte*k deus ez nekiena esaten zidanean, «arrazoia dik» pentsatzen nuen. Nire semeak koskortu zirenean, 2008an, Alke Kultur Elkartean sartu nintzen eta orduan hasi nintzen gehiago sakontzen; ez hizkuntzaren gaian bakarrik, baita herriko kultura, sinesmenak, orantzaroa eta inauteriak ikertzen ere. Leitzako ohitura zaharrei buruzko ikerketa bat egin genuen 30-40 bat lagun elkarrizketatuz, eta hor ikusi nuen garai bateko istorioetan eta gertakizunetan, sorgin edo jentil giroko kontuetan, beti hikako forma eta normalean emakumeren bat ateratzen zela. Plazarako ikuskizun bat egiten hasi ginen, Leitzako pertsonaia mitologikoak Orantzarorekin elkartuko ziren ikuskizun bat. Horko elkarrizketak nahitaez toka eta noka izan behar zuten, jasotako testigantza guztietan beti horrela ageri zelako. Baina gidoiak prestatzerakoan, nokarekin zalantzak sortzen zitzaizkigun. Adizki formak ongi lotzen ote genituen jakitea falta zitzaigun eta gaia lantzeko beharra ikusi genuen.

Nokari buruz sakontzen hasi zinen...

Orain dela bi urte eta erdi, propio noka lantzea pentsatu genuen. Baserrietan oso hiztun onak bilatu nituen, era dotorean eta txukunean hiketan egiten zutenak; denak adin batetik aurrerakoak. Natural xamar noketan egiten duen hiztunik gazteena 70 urtetik gorakoa da. 80 urtetik gorakoak gehiago dira eta gehienak 85 urtetik gorakoak. Hori aprobetxatu beharra zegoen, galtzera zihoan. Liburuaren isla azaleko irudia bera da. Duela 70 urte inguru Leitzako plazan ateratako argazkia da. Lau lagun ageri dira eta bizirik dagoen bakarra nire ama da. Haiei egindako omenaldia ere bada liburua, horien izenak eta jakinduria joaten ari zaizkigula-

Auzolanean

Liburuaren azala.

Ikasketaz irakaslea da Fernando Oiartzun Sagastibeltza, eta lanbidez euskara teknikaria. 1966an Donostian sortu zen, eta Leitzan bizi da. Herria, kultura eta euskara maite ditu, eta horien bueltan ibiltzen da bere denbora librean. Hain zuzen, horren guztiaren emaitza da *Hika eta toka. Noka ere toka!* liburua, Alke kultur taldeak argitaratu duena. Hainbat herritar elkarrizketatuta osatu du: Pakita Zestau, Juan Bautista Agirre, Kontxi Zabaleta, Miel Sukuntza, Itziar Sagastibeltza, Tomas Sukuntza, Asuntzion Lasarte, Luis Erbiti, Maria Jesus Sagastibeltza, Hilario Barriola, Miren Gogortza, Anita Aierdi, Juantxo Barriola, Genoveva Zestau, Arrosa Sestorain, Margari Zestau...



Fernando Oiartzun Sagastibeltza 'Hika eta toka. Noka ere toka!' liburua esku artean duela.

ko. Harrigarria da horien euskara maila, inongo titulurik gabe, aberastasun haundia baitute. «*Maixu tontoa hartu dok hik*» esan izan didate, beraien burua gutxiesten dute, baina uste baino askoz gehiago dakite.

Auzolanean egindako liburua dela aipatu izan duzu...

Bai, elkarrizketa pila bat egin ditut, gehienak emakumeekin. Beraiek dira protagonistak. Elkarrizketak egitera beraien etxeetara joan naiz, kafea, gazta edo ardoa, beti zerbait atera didate; harrera zoragarria izan dut. Eta batzuengana hainbeste aldiz joanda, sekulako lagunak egin gara. Konfiantza hartu dugu, eta etxean kontatzera ausartzen ez diren kontuak ere esan dizkidate. Auzolanean egindakoa dela diot herritar horiek orduak eta orduak eskaini dizkigutelako borondate osoz. Eta herritar horiez gain, baita hizkuntzan adituak diren laguntzaileek ere, baita neronek ere, den-dena, lan guzia, musu truk egin dugulako.

Izenburua azalduko zenuke?

Hasieran, *Noka tokatzen* jartzea pentsatu nuen, Leitzan «Noka tokatzen dun» esaten den bezala. Toka badakigula eta egiten dugula, baina noka ere tokatzen dela adierazi nahi nuen. Baina, azkenean, nokaz gain, toka ere jorratu nuenez, izenburua aldatu behar izan nuen. Alde batetik, hemengo jendeak erabiltzen duen *Hika eta toka* esamoldea hartu nuen, eta horri *noka toka* erantsi nion, emakumeen noka berreskuratzea eta erabiltzea tokatzen dela adierazteko. Jendeari gustatu zitzaion, eta ni neroni ere gustura gelditu naiz.

Liburuan, Leitzako hitanoaren adizkiak bildu dituzu, eta horiekin batera, esaldiak eta kontakizunak...

Alde batetik, gramatikaren arabera, adizkien taulak ageri dira, zuketan, noka eta toka Leitzan nola esaten diren. Edozein adizki bila daiteke tauletan. Bestetik, esaldiak daude, eta adizki guztiak esaldietan ageri dira. Baina benetako altxorra kontakizunetan dago. Gai asko jorratzen dira: aisia, auzolana, aziendak eta piztiak, bertsolaritza, elikadura, eliza, emakumea, eskola, estraperloa, familia, gerra, gertaera bereziak, haur kantak, heriotza, inauteriak, jendearen izaera, mitologia, lanbidea, osasuna, pobrezia, zelebrekeriak... Dena hiketan.

Horregatik diozu herria hobeki ezagutzeko balio duela?

Bai, harrigarria da zenbat gauza ikasi ditudan. Euskararen aberastasuna nabarmentzekoa da, baita hiztegiaren aberastasuna ere, eta bizitzeko era ere ageri da liburuan. Duela 80 urte Leitzako bizimodua nola zen jakiteko baliagarria da.

Kontu pertsonalak ere ageri dira...

Bai, bularra auzolanean nola ematen zuten, edo nola antolatzen zituzten ezkontzak gizasemeek beraien artean, tabernan alaba zeinekin ezkonduko zen erabakita. Edo zortzi urterekin mantenu truke etxetik ume asko bidali zituztela, eta familia batzuetan egurra ematen zietela ere bai. Oso kontakizun gogorrak daude, tartean gerra denborakoak.

Leitzako hitanoa berezia da?

Leitzakoak eta ingurukoek aberastasun bera dutela esanen nuke. Ikaragarria da hemengo hiztunen gaitasuna; edozer esateko, edozein kontaketa sakon egiteko gai dira hiketan, inolako arazorik gabe, adituek diotenaren aurka. Adizkiak ahalerazkoak, baldintzazkoak edo nor-nork, nor-nori-nork kasuetan... Guk zuketan bereizten ez duguna ederki erabiltzen dute hemengo zaharrek hiketan, zuzentasunez. Hiztun zaharren aberastasunak egiten du berezi. Eta Leitzan egin dugun lan hau Areson, Uitzin, Ezkurran, Eratsunen... eginen bagenu, antzera izanen litzateke.

Hitanoa galbidean ikusten duzu?

Bazter guztietan galtzen ari da. Gipuzkoan, herririk euskaldunenetan, hango dirulaguntzak eta babesa izanda ere, galbidean dago. Alde batetik, tokaren zuzentasuna galtzen ari da, →

Oiartzunek oraindik hiztun zaharrekin biltzen segitzen du.

⟶ hau da, eskualde euskaldunenetan ere gaizki erabiltzen da toka, eta bestetik, noka toki guztietan galtzen ari da. Fenomeno orokorra da. Leitzako kasuan, hemen toka asko egiten da, baina 50-60 urtetik beherakoak oso trakets aritzen dira. Adibidez, «*Gure atte etortzen denean, joanen gattuk*» esan beharko litzateke, eta «*Gure atte etortzen dokenen, joanen gattuk*» aditzen dugu. Adizki guztietan sartzen dute, eta menpeko esaldietan ez da erabiltzen. Euskaltzaindiak gutxi arautu du hitanoa, baina badira aholku batzuk eta horiek arautzat har genitzazke. 80 urtetik gorakoek hanka sartzerik gabe erabiltzen dute; batere eskolarik gabe, eta perfektu. Guk, berriz, eskolan ikasteko aukera izan dugu, inguru euskaldunean bizi gara, baina...

Bereziki noka galbidean dagoela diozu. Zergatik uste duzu?

Arrazoi asko daude, baina garrantzitsuena azken mendean emakumea oso zanpatua eta baztertua izan dela da.12-13 urtera arte jostatu eta koskortuz gero, desagertu. Batzuk moja edo neskato joaten ziren, besteak Gipuzkoara edo baserri batera ezkondu... Lagunik eta aisialdirik gabe gelditzen ziren, eremu irekietan libertaterik gabe eta etxeko giroan askatasun gutxi. Beraiek esaten dute gazteak zirenean denak toka eta noka aritzen zirela, baina gero, ezin inorekin ari. Eta orain zeinekin egiten duten galdetzen diezunean, lehengusu edo lagun batekin egiten dutela erantzuten dute, igual 30 urtean ikusi ez dutenekin.

Hitanoa gizartean baztertua dagoela esanen zenuke?

Ez dakit... Egia da gure ume garaian eta aurretik, apezak oso zorrotzak izan zirela. Leitzan bost apeza zeuden eta kontrol sozial haundia egiten zuten. Batek kontatu zidan apezak hiketan ez egiteko esan ziola, bekatua zela. Eta horrek ere bere eragina izanen zuen. Bestalde, herritarren eta eskoladunen artean, hiketan egitea baserritarren hizketatzat hartua izan da, ezjakinen hizketatzat.

Liburu hau hitanoa berreskuratzeko tresna eraginkorra izan daiteke?

Bai, zalantzarik gabe. Liburu honek zure kabuz ikasteko aukera ematen dizu. Eredu txukuna da eta Leitzako euskaran egina. Hiketan ikasteko etxekoa ikasi behar da eta liburu honen asmoetako bat bertako eredu bat izatea da. Horrez gain, zukako formatik hikara pasatzeko ohitura aldaketa egingarria iruditzen zait. Nahia, gogoa eta grina izanez gero, egin daiteke. Duela 30-40 urte euskara, haur eta gazteen artean, baztertua genuen. Horri buelta eman genion, eta orain, zergatik ez ikasi eta erabili hiketako moldea?

Nolako erantzuna izan du liburuak?

Aurkezpen eguna izugarria izan zen. Adin guztietako ia 80 lagun bildu ziren. Bizpahiru bideo jarri nituen eta jendeak primeran pasatu zuen. Hitzaurreetako bat egin duen Inma Zestauk liburuko testigantza bat ere irakurri zuen orduko emakumeen bizimodu gogorra esplikatzeko eta hunkigarria izan zen. 500 liburu argitaratu ditugu, egunean bertan 30 liburu saldu ziren, eta Leitzako liburu dendetan kasik berrehun saldu dira. Auzolan izpiritu horri eutsiz, beste asko dohainik banatu ditugu, elkarrizketatutakoen eta liburuarekin lagundu didatenen artean, euskara zerbitzuaren bidez... Egunean bertan eskaintza asko egin nituen eta geroztik etxera etorri zaizkit. Hunkigarria izan da. Libururik gabe gelditzen ari gara.

Gazteen artean ikasteko gogoa sumatu duzu?

Duela bi urte bazegoen. Joana Saralegi Leitzako gazteak hemengo hitanoari buruzko lan bat egin zuen. 200 bat erantzunetan askok ikasiko luketela ikusi zuen, baita toka askok zekitela ere, eta noka hiru-lau katuk baino ez. Liburua egin dugunetik emakume batzuk ikasi nahi dutela esanez etorri zaizkit. Hitanoa erabiltzen hasteko eta biziarazteko zerbait egin nahi genuke, erakusteko bidea herrian bilatu nahi dugu, baina oraindik ez dakigu nola. Bestalde, Leitzan noka egiten duen hiztunik gazteena naizela konturatu naiz. Ohorea da.

Baduzu bildutako materialarekin beste zerbait egiteko asmorik?

«NOKA BAZTER GUZTIETAN GALTZEN ARI DA»

Kontakizunak *Ahotsak.eus* atariaren bidez entzungai jartzeko asmoa dugu, audio eta bideo formatuan.

Baina oraindik gaiarekin lanean segitzen duzu, ezta?

Bai, oraindik etxez etxe nabil. Hiztun zaharrek erabiltzen dituzten eta ezohikoak diren adizkien forma guztiak bildu nahi ditut. Euskaltegiko taulak ikusita, forma horiek nork erabiliko zituen esanez ibiltzen ginen, eta hara, herrian bertan topatu dugu horiek erabiltzen dituen jendea. Izugarrizko aberastasuna iruditzen zait. Eta horrekin batera, liburuan jasota ez dauden istorio asko ditut. Emakumeen, sorginen edota sendabelarren kontuekin lan polita egiten ahal da.

Hitanoa bultzatzeak zein ekarpen eginen lioke euskarari?

Hainbat modutan zuzentzeko erregistroak izatea kristoren aberastasuna da. Hizketa desberdintzeko aukera ematen dizu, serioago ari behar duzunean zuka ari zaitezke eta konfiantzan edo lagunartean hika. Euskara erregistro bakarrera mugatuz, gazteek erdarara jo dezakete; erdaraz *colega, qué pasa tío, chaval* edo halakoak esateko beste hizketa mota dagoela ikusten dute. Erregistro bat galtzea galera haundia da.

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**

«Online denda ireki dugu, garaietara egokituz»

LOREA AGIRRE IRIBARREN
KIMETZ - DONEZTEBE

Duela 15 urte ireki zuen Lorea Agirrek Kimetz belar denda eta nutrizio eta dietetika zerbitzua Donezteben. Dendan «osasuna zaindu nahi dutenei» zuzendutako produktuak ditu: «inguruko elikagai ekologikoak, infusio eta belarrak, barazkiak eta frutak, kosmetika eta elikagai osagarriak». Hala ere, «ohitura aldaketa bat ikusi dugu, jende gazteak ez baitu komertzio ttikietan hainbertze kontsumitzen. Horregatik, duela bi urte online denda ireki genuen, garaietara egokituz. Denda ttikiok lanketa haundia dugu egiteko, baina hor egon behar dugu». Nutrizio eta dietetika kontsultan, «egin ditudan ikasketei esker, inflamazio gaixotasunetan eta autoinmuneetan zentratu naiz. Gainera, kontsultak online egiten ditugu eta arras kontent nago emaitzekin».

«Eguzkiaren aurrean larrua ongi babestu behar da»

AINHOA AZPIROZ UGARTEMENDIA
EDR GUNEA - LEITZA

2008an ireki zuen Ainhoa Azpiroz Ugartemendiak EDR gunea Leitzan; «Zizurren egiten nuen lan ileapaindegi eta estetika zentro batean, eta itxi zutenez, hemen hastea erabaki nuen». Estetika zaintzeko produktu eta zerbitzu ugari ditu zentroan: «aurpegiko tratamentu, garbiketa eta makillajeak, depilazioak, manikura eta pedikura, laserra, presoterapia, termoestimulazioa... denetik. Udarako prestatzeko, orain laserra da gehien eskatzen didatena, baita gorputzeko tratamentuak, esfoliazioak eta garbiketak ere». Gero eta eguzki ordu gehiago dugun egunotan, «larrua ongi babestu behar da, bakoitzaren larruazalaren fototipoaren arabera krema bat edo bestea erabiliz».

«Makineria eskaintza aunitz zabaldu da»

JON LARREGI GOÑI
BIOK BAT - ELIZONDO

Ia 40 urteko esperientzia dute Elizondoko Biok Bat tailerrean, eta Jon Larregik du hartua gurasoen lekukoa. «Hasi zenetik merkatua aunitz aldatu da eta makineria hauta zabalagoa da: prezioa, neurria, pisua... mila motakoak ditugu». 2014an lekuz aldatu ziren; «erakusketarako leku irekiagoa behar genuen, eta aparkalekua izateak aunitz laguntzen du». Bertan, lorezaintza eta basozaintzarako produktuak dituzte; «motozerrak, sasiak garbitzeko eta belarra mozteko makinak, hidrogarbitzaileak... eta orain berritasun haundiena belarra mozteko makina automatikoa da, Roomba estilokoa». Gainera, konponketa zerbitzua ere eskaintzen dute, «eta aberia arrunta baldin bada azkar konpontzen saiatzen gara, jendeak etxera egun berean eraman dezan».

«Eskuekin egiten dugu lan, hor dago geure oinarria»

RAFA ALZATE SARRATEA
BIDAIDE - ELIZONDO

2021ean ireki zuten Rafa Alzatek eta Bego Vielak Bidaide fisioterapia eta osteopatia zentroa Elizondon. Rafak Iruñean egiten zuen lan, «baina Begorekin solastatu eta hemen hastea erabaki genuen. Aldaketa positiboa izan da, etxe ondoan lan egitea abantaila haundia da eta elkarri laguntzen diogu». Zerbitzu zabala dute; «kirol lesioak, bizkarreko arazoak, kolikoak, arnasketa arazoak... lantzen ditugu. Eskuekin egiten dugu lan, hor dago geure oinarria, baina tresnak ere erabiltzen ditugu: ekografoa, orratzak, Indiba... laguntza gehiago izateko». Gainera, haur eta jaioberriekin egiten du lan, eta Bego haurdunaldian espezializatzen da; «pixari eusteko ezintasuna tratatzen, adibidez, baita erdiondoko arazoak ere».

Bi zubi eraikitzeko lanak esleituko ditu udalak

Zia auzoan, Lamixene eta Angulero artean eginen dute lehen zubia, eta Eltzaurdia auzoko sarreran bigarrena

A. LARRETXEA

Heldu den asteetan, bi zubi eraikitzeko lanak esleituko ditu udalak. Lehenengoa Lamixenen eraikiko dute, Zia auzoan, izen bereko errekaren gainetik, Anguleroa eta Pio Baroja karrikak lotuz eta oinezko eta txirrindularientzako pasabide bat izanen da. Mugikortasun aldetik garrantzi handiko obra da, izan ere, gaur egun, Lizuniagako errepidearen inguruan bizi diren bizilagunak, Altzatera oinez edo bizikletaz joateko, errepidez joan behar izaten dute. Trafiko handiko errepidea da, eta oinezkoentzako desegokia eta arriskutsua. Zubi berriarekin, angulerotik Pio Baroja karrikara pasaz, karrika honetatik egin dezakete oinezkoek herrirako bidea, lasaiago eta seguruago. Obra hau 89.475,20 eurotan aterako da esleipenera.

Bigarren zubia Eltzaurdia auzoan eraikiko dute, Xantelerrekan. Zubi hau auzorako sarrera garrantzitsuena da. Hagitz estua da, kurba bat egiten du, eta azken uholdeetan kaltetua izan da. Zubia guztiz berritzea aurreikusten da; zubiak behar bezalako zabalera ere izanen du, eta erosotasunean eta segurtasunean irabaziko da. Obra hau 107.041,01 eurotan aterako da esleipenera.

Bi lanen gastuei aitzin egiteko, udalak gerakinetik hartuko du dirua. Horrela erabaki zuen udal gobernuak martxoaren 22an egindako osoko bilkuran, gehiengo osoz.

Ur sarea berritzeko lanak

Zalaingo depositutik Foruen Plazara berritu nahi den 1.430 metroko luzera duen ur hornidura sare berria, urgentziazkoa izendatu zuen Nafarroako Gobernuak apirilaren 19an egindako saioan. Modu honetan, ur sare berria eraikitzeko egin behar diren lur eremuen desjabetzeak, urgentziaz egitea ahalbidetu du gobernuak. Obra hau uztailaren hasierarako esleitua egotea espero dute. Proiektuak 483.676,29 euroko kostua du, eta diru honen %80a gobernuak ordainduko du Europako Next Generation diru laguntzen bidez.

EBK sortzeko hurrengo bilera maiatzaren 4an

EBK Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko prozesua abian da, eta ortzegunean, hilaren 4an eginen dute hurrengo bilera Beralandetan 18:00etan. Bilera horretan, batez ere autokontsumo partekatuaz ariko dira.

Orain arte hiru bilera egin dituzte, eta jendearen interesa piztu du gaiak. Lehenengo bileran 25 lagun izan ziren, bigarrenean 40 eta hirugarrenean 27. Lehen bi saioetan informazioa zabaldu ondotik, hirugarrenean hasi zuten EBK sortzeko prozesua.

'Transformatzen' dokumentala maiatzaren 9an

Maiatzaren 9an, asteartea, *Transformatzen* dokumentalaren emanaldia izanen da Beralandetan 18:00etan. Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkarteak antolatu du emanaldia Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuarekin batera.

Dokumentalak haur eta gazteen transexualitatea du hizpide, eta hainbat testigantzak osatzen dute. Emanaldiaren ondotik, Naizeneko kideen testigantzak aditzeko aukera ere izanen dute bertaratutakoek.

UTZITAKOA

Literatura geraldi arrakastatsua

Joseba Sarrionaindia idazle iurretarrarekin literatura solasadia izan zen apirilaren 21ean. Ikusmina piztu zuen solasaldiak eta 40 lagun baino gehiago elkartu ziren. Bi ordu pasatxo iraun zituen solasaldian, hainbat kontuz mintzatu zen Sarrionaindia eta jendeak ere ausarki parte hartu zuen.



Ekitaldiz beteriko aste hondarra izanen da

Larunbatean Borborraldiaren azken besta eginen dute, eta igandean Merkaskilo merkatua

A. LARRETXEA

Ekitaldiz beteriko aste hondarra izanen da oraingoa. Larunbatean, Bor-bor Euskaltzaleen Mugimenduak antolatuta, *Euskararen udaberria pizt Borborraldia,* Borborraldiaren akabila besta eginen dute herrian.

Hasteko, 10:00etan Bor-boren urteko ohiko batzarra eginen dute Beralandetan. Bilera bukatu ondotik, 11:30ean, Bidasoko euskara eta kulturaren azoka izanen da Euskaltzaleen Topaguneak eta Bor-borek antolatuta Toki Ona institutuko patioko estalpean. Azokan postuak, euskarazko hainbat proiekturen aurkezpenak... izanen dira eta musikariek eta bertsolariek girotuko dute goizeko giroa.

Eguerditik aitzinera, jan edanerako aukera izanen da bertan paratuko dituzten postuetan, eta paella jateko aukera ere izanen da. Horretarako, otorduetarako txartela egunean berean erosi beharko da.

Besta bukatzeko, DJBullek girotuko du giroa.

Merkaskilo merkatua

Igandean, aldiz, Barraskilo Gazte Taldeak eta Kiribil eskulangileak antolatuta, Merkaskilo merkatua eginen dute. Merkatu hori ere Toki Onako patioko estalpean eginen dute eta 10:00etan hasiko da, eta 15:00etan bukatuko da.

Artisauak, bertako ekoizleak, komertzio ttikiak eta bigarren eskuko objektuen postuak izanen dira eta taloak dastatzeko aukera ere izanen da. Gazte Taldeak ere bere postua paratuko du kamisetak saltzeko.

LOREA ARROABARRENA ETA ARANTZA AGIRRE

458 lasterkari Mendi Maratoi Erdian

Apirilaren 16an egin zuten Mendi Maratoi Erdiaren XVII. edizioa. Oier Ariznabarretak eta Ainara Urrutiak irabazi zuten. Nabarmentzekoa, emakumezkoetan bigarren eta hirugarrena herritarrak izan direla: Maddalen Jimenez eta Ane Eltzaurdia. Xehetasun gehiago 54. orrian.

106 turista kontatu dituzte Aste Santuan Turismo Bulegoan

Apirilaren 3tik 16ra bitartean irekia egon da Berako Turismo Bulegoa, eta denera 106 lagun pasa dira bertatik. Apirilaren 6a eta 7a, ortzegun eta ortziral santu egunak izan ziren jende gehien igaro zirenak. Zehazki, egun bakoitzean 18 lagun joan ziren bulegora. Turisten jatorriari dagokionez, hurbilekoak izan dira turistarik gehienak: 20 gipuzkoarrak eta 18 bizkaitarrak. Horien gibeletik daude Nafarroatik joandakoak eta baita Zaragozakoak ere. Atzerriko turista bakarra zenbatu dute, Londreskoa.

Barraskilo Gazte Taldeko kideak Larhunera iazko urte zahar egunean egindako irteeran. UTZITAKOA

«Gazteen artean gauzak egiteko potentziala badago»

JAVIER ESCAGÜES BERAKO BARRASKILO GAZTE TALDEKO KIDEA

Bertso bazkari baten ondotik sortu zen Barraskilo Gazte Taldea. Geroztik, tortilla patata txapelketa eta mendi irteera egin dituzte. Hurrengo ekintza Merkaskilo merkatua izanen da maiatzaren 7an

A. LARRETXEA BERA

Sortu zela hilabete gutti diren arren, martxa hartzen hasia da Berako Barraskilo Gazte Taldea. Hurrengo ekitaldia maiatzaren 7an izanen dute, Kiribilekin batera antolatutako Merkaskilo merkatua. Bertako kidea da Javier Escagües gaztea.

Zer da Barraskilo Gazte Taldea?

Urtean zehar gauzak antolatzen dituen Berako gazte talde bat da Barraskilo.

Noiz sortu zenuten eta zergatik?

Azken urtean eta ofizialki azken hilabeteetan (logoa, izena...). Lehengo urtean ideia bururatu zitzaigun, gehien bat bertso bazkari baten ondotik sortu zen arrakasta ikusita. Hor ikusi genuen gazteen artean gauzak antolatzeko potentziala bazegoela.

Zein da taldearen helburua?

Helburu aunitz ditu: herria ekitaldiekin biziaraztea, gazteen arteko erlazioak sakontzea…

Nondik heldu da izena?

Lehengo gaztetxearen ikurra barraskilo bat zen, eta keinu bezala polita iruditu zitzaigun.

Zenbat gaztek hartzen duzue parte bertan? Eta zein adinetakoak zarete?

Ez dakit ziur zenbat izanen garen, baina 50 bat bai, eta badira horietaz gain ekitaldi puntualetan animatzen direnak ere. Adin tarteari dagokionez, tartea zabala da, 17 eta 30 urte artean guti gehiti-beheiti.

Eta nolakoa da zuen funtzionamendua?

Zuzendaritza bat dugu. Baina erabakiak eta antolakuntza denen artean egiten dugu. Urteko lanekin azpi taldeak ditugu, eta horrela batzuk gauza batzuetaz arduratzen dira eta bertze batzuk bertzeetaz, baina dena talde lanean.

Zein dira orain arte antolatu dituzuen ekintzak?

Patata tortilla txapelketa izan zen gure lehenbiziko ekintza, eta gero urte zahar egunean Larhunera irteera egin genuen.

Eta zein da balorazioa?

Ona. Tortilla txapelketa antolatu genuenean, jende aunitzek ez zekien nor ginen ere, eta hala ere jende aunitz hurbildu zen. Larhungo irteeran mordoxka bat gazte bildu ginen, 60 gazte baino gehiago.



Javier Escagües Barraskiloko kidea.

Eta hemendik aitzinera antolatu nahi dituzuenak?

Apirilaren 22an sagardotegira irteera izan genuen. Horren ondotik, Merkaskilo merkatua maiatzaren 7an eta gazte egunа maiatzaren 27an eginen ditugu. San Juan bezperako su egunean ere zerbait antolatu nahi dugu. Hala ere, burua ideiez beteta dugu eta baliteke zerbait gehiago antolatzea.

Kamisetak ere atera dituzue. Zer harrera izan dute?

Bai, egia erran hagitz ona. Gure ikurra eta izena hor barna ikustea polita da.

Maiatzaren 7rako merkatua antolatu duzue Beran. Nolakoa izanen da?

Merkatua Berako kanpo gorrian izanen da goizeko 10:00etan hasi eta 15:00ak arte. Denetarik egonen da, gehienak artisau eta ekoizleak, baina, komertzio ttiki eta bigarren eskuko posturen bat ere bertan egonen da, baita tatuajeak egiteko aukera ere. Inguruan egindako bitxiak, apaingarriak, eskuz egindako artelanak, taloak, garagardoa, elikagaiak… eta noski gure kamisetak erosteko aukera.

Udara begira zerbait antolatzeko asmoa duzue?

Oraingoz San juan suak eta Berako bestak.

Abuztuan izanen diren Berako bestak aipatu dituzu. Nola hartuko duzue parte?

Gehien bat txosnagunearen antolaketan, musikarekin... Hala ere, edozertan laguntzeko prest gaude beti.

Zuen taldeko kide izan nahi duenak, zer egin beharko luke?

Aski da hurrengo bilerara agertzea eta parte hartzea, ez dugu deus gehiago eskatzen.

Gehitu nahiko zenukeen bertze zerbait?

Adin ezberdinetako gazteak animatu nahiko genituzke antolakuntzan eta ekitaldietan parte hartzera.

Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

www.bhm.eus
bulegoa@bhm.eus
Tel. 948 63 52 54

JAKINARAZTEN DA: 2023ko lehen urte erdiko zabor bilketa (mankomunitateari dagokiona) eta tratamendu (Nafarroako Patzuergoari dagokiona) zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren adierazten den bezalaxe

2023ko TASAK

ERABILTZAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	
ETXEBIZITZAK		
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	81,40 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	69,36 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	57,02 €	
MERKATARITZA ETA ZERBITZUAK		
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegiak, okindegiak, ile-apaindegiak, lan bulegoak. Eraikin publikoak	82,72 €	
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegiak, janari-dendak), elektragailu dendak eta farmaziak	162,38 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Patzuergoa. 2023ko urtarrilaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 4 zk
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	247,66 €	
OSTATUAK		
1. Ostatua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m²ko edo gutxiagoko azalera dutenak	165,04 €	
2. Ostatua. 30 m² baino azalera handiagoko ostatuak eta janari-denda daukaten ostatuak	330,38 €	
3. Ostatua. Pub eta diskotekak	412,70 €	
JATETXEAK		
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta bortz mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	412,70 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	743,18 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	
LANDETXEAK		
1. Landetxea: 6 teki edo gutxiagokoak.	82,72 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	70,38 €	
Zaborrontzia 500 metrotik gora dauden landetxeak	57,94 €	
2. Landetxea: 6 teki baino gehiagokoak.	165,54 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	140,86 €	
Zaborrontzia 500 metrotik gora dauden landetxeak	115,88 €	
HOSTALAK		
1. Hostala. Hamar logela edo gutxiagokoak.	577,62 €	Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Patzuergoa. 2023ko urtarrilaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. 4 zk
2. Hostala. Hamar logela baino gehiagokoak	825,38 €	
MERKATARITZAKO SALTOKIAK		
Merkataritzako saltokiak. Opariak bakarrik saltzeko	412,18 €	
Merkataritzako saltokiak. Janari-dendak edo ostatudunak	825,38 €	
Merkataritzako saltokiak. Jatetxedunak	1.238,18 €	
LANTEGIAK		
Lantegiak, 4 langile bitarte. Jardduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	82,72 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	165,04 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	412,70 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	825,38 €	
Lantegiak, 61-150 langile bitarte	1.238,18 €	
Lantegiak, 151-300 langile bitarte	2.346,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiagorekin	3.458,00 €	
ZERBITZU BEREZIAK		
Norberaren erabilerarako edukiontzia	802,12 €	

Ordaintzeko era

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenek:
Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.
Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:
Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

- 2023ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2023ko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekarguarekin kobratuko da.

Bortziriak, 2023ko apirilaren 3a
Lehendakaria,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

Espezia eta infusio tailerra prestatu dute jubilatuek

Hilaren 13an eginen duten ikastaroaren aitzinetik, larunbat honetan ohiko ibilaldi arautua izanen dute

AITOR AROTZENA

Ez daude geldirik egoteko San Fermin jubilatu elkartekoak. Apirileko ipar martxa ikastaroaren eta Gesaltza Añanako irteeraren ondotik, maiatzean ere zenbait ekitaldi antolatu dituzte. Bereziena, maiatzaren 13an, larunbatean 10:00etatik 13:00etara jubilatuen ostatuan eginen duten espezia eta infusio tailerra izanen da. Egunerokoan landareak eta espeziak erabiltzen ikasiko dute, baita hauen propietateak, sukalderako erabilerak eta hainbat bitxikeria. Ikastaroaren prezioa 15 eurokoa da (bazkide ez direnek 30 euro) eta txartelak erosteko azken eguna maiatzaren 8a da.

Honen aitzinetik, maiatzaren 6an, ohiko ibilaldi arautua eginen dute. Larunbatean 09:30ean hasiko dira.

118 kilometroko ibilbidea izanen dute.

Salvador Yanciren omenez bizikleta ibilaldia

Salvador Yanci zenaren omenez zortzigarren aldiz bizikleta ibilaldia antolatu du Beti Gaztek maiatzaren 14rako. Izena emateko aukera irekia dago hilaren 12ra arte *kirolprobak.com* webgunean. Txirrindulariak maiatzaren 15ean, igandean 08:30ean abiatuko dira Plaza Zaharretik. 118,26 km luze eta 1.473 metroko desnibela duen ibilbidea da.

IRANTZU PASTOR

Xulubest Eguna giro ederrean

Xulufrinak Lesakako Sare Feministak antolatuta Xulubest eguna ospatu zuten apirilaren 22an. Euriak ez zuen besta eta aldarrikapena uztartu zituen egitarau zabala zapuztu. Bertzeak bertze, bisita gidatua izan zuen, Mattane Rodriguez Etxabideren eskutik, bazkaria eta musika Goxo txarangarekin.

Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga bertsotan. UTZITAKOAK

Eguraldi kaxkarra baina giro bikaina izan zen Etxeraino Egunean

A. AROTZENA

Nafarroako Sarek antolatuta Etxeraino Eguna ospatu zuten apirilaren 15ean. Larunbat goiz euritsua izan baldin bazuten ere, zenbait mendizale plazatik Sastrinera ibilaldia egin zuten. Eguerdian, Borrokan taldeak kontzertua eman zuen Arranon.

Arratsaldean, berriz, *Gotti begira* dokumentala eman zuten Arranon eta ondotik, solasaldia eskaini zuen Ekhiñe Zapiainek *Bide luzeen arrastoak, dispertsioaren ondorioak aztergai* ikerketaz. Gero poteoa egin zuten, Berako eta Lesakako musikariek osatutako Zizkuitz txaranga historikoarekin eta, eguna borobiltzeko, bertso afaria izan zuten Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga bertsolariekin.

Borrokan taldea kontzertuan.

Organoaren Lagunak eta Led Silhouette lagunduko dituzte

Nafarroako Gobernuak eman die 28.553,82 eta 40.000 euroko dirulaguntza, hurrenez hurren, beraien proiektuetarako

A. AROTZENA

Nafarroako Gobernuak, Vianako Printzea Erakundeko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 724.650 euroko laguntzen deialdia ebatzi du, Next Generation EB funtsen babesean, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Nafarroako hiri-eremuetatik kanpoko kultura-eskaintza zabaldu eta dibertsifikatzeko proiektuetarako. Horien artean, Lesakako Roqués Organoaren Lagunak eta Led Silhouette dantza konpainia lagunduko ditu.

Zehazki, Lesakako Roqués Organoaren Lagunak elkarteak 28.553,82 euroko dirulaguntza hartuko du, Lesakako organoaren inguruan antolatzen dituen jardueretarako eta Led Silhouette dantza konpainiak 40.000 euro koreografia sormen prozesurako.

Bira Nafarroan barna

Bertzalde, Bira Nafarroan barna programaren barrenean, Ane Martijak kontzertua emanen du azaroaren 29an Harriondoan. Eskualdeko emanaldi bakarra izanen da.

Bixente Igarzabal txapelketa nagusiko podiumean hirugarren. UTZITAKOA

Nafarroako duatloi txapelketa irabazi du Bixente Igarzabalek beterano mailan

Vianako duatloia jokatu zen apirilaren 17an eta Nafarroako distantzia erdiko duatloi txapelketa bertan erabaki zen. Beti Gazteko Bixente Igarzabalek parte hartu zuen eta, gainera, iazkoa errepikatuz, bitan igo zen podiumera. Izan ere, txapeldun izan zen 50 eta 59 urteko kirolariak biltzen dituen beteranoen bigarren mailan eta hirugarren txapelketa nagusian. Distantzia erdiko duatloi honetan 15 kilometro lasterka, 75 kilometro bizikletan eta azken 9,5 kilometroak lasterka egin behar izan zituzten kirolariek. Igarzabalek 3 ordu, 42 minutu eta 31 segundo behar izan zituen.

Dena prest dago Etxalarko bosgarren Mendi Itzulirako

24,2 eta 28,2 kilometroko ibilbideak izanen dituzte aukeran larunbat goizean Altxatak antolatutako proban

IRUNE ELIZAGOIEN

Maiatzaren 6an eginen da Etxalarko V. Mendi itzulia. Ibilbide motzak 24,2 km izanen ditu eta 1.510 m-ko desnibela; luzeak berriz, 28,2 km eta 1.725 m-ko desnibela. Izen-ematea aitzinetik egin daiteke *www.inscripciones.nafarmendi.org* helbidean baina egunean bertan egiteko aukera ere izanen da frontoian 06:30etik 07:45era. Irteera 07:30ean izanen da plazatik. Bosgarren edizio honetako kamisetak salgai daude 15 eurotan Kultur Etxean. Altxatak eskerrak eman ditu mendi itzuli hau gauzatu ahal izateko hainbat lanetan boluntario laguntzen aritu direnei.

Larraburuan hitzaldiak

Larraburua elkarteak, Argi-leku bioeskolaren laguntzarekin, Neli Yanciren eskutik hainbat hitzaldi antolatu ditu: *Gaixotzen gaituzten emozioak* izan zen apirilaren 29an; aitzinera begira, *prebentzioa zure eskuetan* **maiatzaren 13an** eta *zure bizi asmoa* **maiatzaren 27an**. Guztiak Larraburuan izanen dira, 16:30ean.

Auzolanari buruzko dokumentala grabatzen

Iker Iriarte eta Pablo Dendaluzeren *Auzolangintza* dokumentaleko grabaketan parte hartu zuten Urritzokieta auzokoek apirilaren 22an: bideak garbitu, adarrak kendu, eroritako arbolak baztertu… Dokumentala ekainaren 15ean aurkeztuko dute Tolosan.

Auzolana Urritzokietan. A.BERRUETA

ETXALARKO GAZTIK

Gazteak Adunako sagardotegian

Herriko 45 bat gaztek Adunako Aburuza sagardotegira irteera egin zuten apirilaren 15ean. Larunbat guerdian abiatu ziren Aburuza sagardotegira, bertan bazkaldu eta goizaldera itzuli ziren Hernanitik. Argazkia begiratu bertzerik ez da egin behar giro ederra izan zutela ikusteko.

ANA INDABURU

Mus txapelketa Larraburuan

Larraburua elkarteak mus txapelketa antolatu zuen apirilaren 22rako. Txapeldunak Joxe Mari Maia eta Xabier Bizente izan ziren, bigarrenak Benantxio Elizagoien eta Mattin Zelaieta eta hirugarrenak Nerea Mitxeltorena eta Lurdes Galarregi. Giro ederra izan zuten txapelketa osoan.

Amelia Barquinen hitzaldiarekin hasi dute Borborraldia

Maiatzaren 4an gurasoak sentiberatzeko tailerra eginen dute Lesakan, eta 6an Beran Borborraldia bukatzeko besta

Amelia Barquinen hitzaldia Beran. BOR-BOR BORTZIRIETAKO EUSKALTZALEEN MUGIMENDUA

TTIPI-TTAPA BERA

Amelia Barquin Mondragon Unibertsitateko irakasleak eskainitako trebakuntza saioarekin hasi zuten Borborraldia apirilaren 19an. Goizean eta arratsaldean egin zituzten saioak Beran eta Lesakan, eta 40 lagun elkartu ziren.

Euskara harrera hizkuntza trebakuntzan kulturartekotasuna, euskara, generoa, klasea eta jatorria izan zituen mintzagai Barquinek. Gogoeta eragiteko saioak izan ziren, eta gurera kanpotik bizitzera etorri direnei, eta bereziki haien seme-alabei egiten zaien harreraz, eta hizkuntzak harrera horretan duen lekuaz hausnartzeko balio izan zuen.

Euskaratik hurbiltzeko beharra azpimarratu zuen are gehiago, gaztelania bezalako hizkuntza hegemoniko batean bizi garenean. Eskolak jokatu beharreko papera azpimarratu zuen Barquinek, eta horretarako irakasleengan eta gurasoengan fokua paratzeko beharra nabarmendu zuen. Gisa berean, aisialdiak jokatzen duen paperaz aritu zen, eta espazio eta une horietan ere ematen den bereizketari arreta paratzeko eskatu zuen, errekurtso gutieneko haurrek euskarazko aisialdirako eskaintzara ailegatzeko dituzten zailtasunak aisa nabarmenagoak baitira.

Bertze hainbat ekintza ere egin dituzte egun hauetan. *Euskara lantokietan piztu* erakusketa ibiltaria herriz herri ibili da, eta *piztu barrenean duzun euskalduna* izenpean instalazioak ere paratu dituzte. Ikastetxeetako gurasoen topaketak ere egin dituzte eta apirilaren 29an gazte euskaltzaleen topaketak egitekoak zituzten Igantzin. Borborraldia bukatzeko, ortzegunean, gurasoak sentiberatzeko tailerra eginen dute Lesakako Udalak Koskontako bidean duen bulegoan. 17:00etan euskaraz izanen da, eta 19:00etan gaztelaniaz. Azken besta Beran eginen dute larunbatean. Informazioa 15. orrian dago.

MEKANIZAZIOA

CIFP - LHII
IDASOA
IRUN

ETORKIZUNEKO

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

MEKANIZAZIOA

TELEKOMUNIKAZIO INSTALAZIOAK

INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK

INSTALAZIOA ETA ALTZARI-HORNIKUNTZA

MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA Berria



INSTALAZIO ELEKTRIKO
ETA AUTOMATIKOAK

ERDI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO-KURTSOA:

5G SAREEN INPLEMENTAZIOA

INSTALAZIOA ETA
ALTZARI-HORNIKUNTZA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Teknikari titulu profesionala lortzeko 2. mailako titulu profesional bat da, 2.000 ordukoa (2 ikasturte). Bertan, LP (lantokiko prestakuntza) modulua eta Dual modalitatea (aukeran) sartuta daude. A,B,D eta eredu eleanitzan eskaintzen dira eskaeraren arabera.

2023-2024 ikasturterako eskaintza berritua, formakuntza-ziklo berriarekin eta espezializazio-kurtsoekin.



Berria

MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA

ATE IREKIAK >

LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEA IRUN

Elizatxo, 10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tel. 943 666 010
info@fpbidasoa.eus
www.fpbidasoa.eus

IZEN-EMATE EPEA
Maiatzaren 8tik - 26ra (biak barne)

OHAR GARRANTZITSUA:
Izen-ematea ezinbestekoa da, uztailean matrikulatu ahal izateko

LANBIDE HEZIKETA

MATRIKULA EPEA
Uztailaren 14tik - 18ra (biak barne)

GOI MAILAKO ZIKLOAK

SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK

MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

DISEINU ETA ALTZARIGINTZA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA



SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK



MANTENTZE-LAN ELEKTRONIKOA

Berria

GOI MAILAKO ESPEZIALIZAZIO-KURTSOA:
DRONEAK URRUNETIK GIDATUTAKO AIREONTZIAK

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Goi-mailako Teknikari titulu profesionala lortzeko 3. mailako titulu profesional bat da, 2.000 ordukoa (2 ikasturte) eta bertan, LP (lantokiko prestakuntza) modulua eta Dual modalitatea (aukeran) sartuta daude. A,B,D eta eredu eleanitzan eskaintzen dira eskaeraren arabera.

Enplegagarritasun handiko heziketa-zikloak, modalitate dualean egiten direnak, ikasketak ikastetxean eta enpresan txandakatuz.

TELEKOMUNIKAZIO ETA INFORMATIKA-SISTEMAK

MAIATZAK 10, 17:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOKO DISEINUA

DISEINU ETA ALTZARIGINTZA

Pizza gaua antolatu dute Biltokin maiatzaren 19rako

Biltoki elkarteak ostatua zabalduko du eta girotzeko musika ere izanen da

ANA ETA ITZIAR

Heldu den maiatzaren 19an, ortziralea, Biltokin pizza gaua ospatuko dute. Dojo Seiryu taldeak antolatuta, 20:30ean emanen zaio hasiera italiar sukaldariak prestatutako pizza jateari. Biltoki Elkarteak ostatua ere zabalduko du eta nahi duen guztiarentzat gonbidapena luzatuta dago.

Pizza dastatzeaz gainera, tragoxkak hartzeko eta musikaz alaitutako arratsaldeaz gozatzeko aukera paregabea izanen dugu oraingo honetan ere Biltoki elkartean.Beraz, animatu!

Kanaldude telebista eskolara grabatzera etorriko da

Maiatzean bisita berezia hartuko dute eskolako lagunek. Kanaldude telebista (Ipar Euskal Herriko euskarazko telebista) gure eskolara programa bat egitera etorriko da. Hain zuzen, eskolan ematen duten Sormen Margoketa tailerraren inguruko saioa eginen dute.

744 484 361
ttipi-ttapa

Elizatean lan jakin batzuk egiten hasi dira

Elizateko obren harira badira berriak. Juankar Unanua alkateak adierazi duenez, lan jakin batzuk egiten hasiak dira. Joan den astean, adibidez, eskailera nagusia muntatzen hasi ziren eta lorategiaren ondoko eraikina ixten laster hasiko dira. Gaineratu duenez, «egitura bukatu, teilatua estali eta atea eta leihoak paratuko dituzte». Elizatean lanean hasi direla ikusita, kontent mintzatu da alkatea: «Argia ikusten ari gara. Ea epe motzean dena martxan ikusten dugun berriz».



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako ekitaldiak

Eskolak kanpoko hainbat ekitaldi ditu egutegian; hala nola, kanpaldiak, baratzea, txangoak… Apirilaren 21ean, adibidez, Arantza eta Etxalarko haurrak gonbidatu eta denak elkarrekin San Juan Xar ezagutzera joan ziren oinez. Yoga ikastaroa kanpoan egitera ere animatu dira eguraldi ona dela eta.

ANELAN
LAN BERTIKALAK
948 031 174
info@anelan.pro
Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
Egiten ditugun lanak:
Fatxaden konponketak, segurtasun-sistemen instalazioak, teilatuen eta azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

LIDERA
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL
Itturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklinika.es
@lideradentalclinic

Jaurena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak
Eguzki-panelen instalazioa eta dirulaguntzen gestioa

Ainhoa Altzuguren Mitxelena
Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu hitzordua hartzeko
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

DBHko ikasleek Bagoaz tailerra eginen dute

Euskaldunek euskararen normalizazioan duten garrantzia azpimarratzea da horren helburua eta UEMArekin eginen dute

NEREA ALZURI

Herriko eskolako lagunek hilabete honetan kanpaldiak izanen dituzte. Aste honetan, Hirugarren zikloko ikasleak Zuatzan izanen dira, asteazkenetik ortziralera; Haur hezkuntzakoek maiatzaren 11n eta 12an Zugarramurdiko Sorginen etxean eginen dute egonaldia; maiatzaren 23an eta 24an, lehenbiziko ziklokoek Illundain Baserri Eskolan izanen dute kanpaldia; eta bigarren ziklokoek, berriz, Lizarran hiru egun pasako dituzte, maiatzaren 24tik 26era.

Bertzalde, DBHko ikasleek Bagoaz tailerra eginen dute maiatzaren 19an. UEMAk eskainiko du eta arnasgune bateko errealitatetik euskalduna ez den bertze batera egiten dute salto. Hizkuntzen arteko harremanak ezagutzeko, euskaldun gisa ahalduntzeko eta aktibatu ahal izateko eginen dute Bagoaz tailerra.

Udalerri euskaldunek euskararen normalizazioan duten funtzio garrantzitsua azpimarratzea da helburua eta zeregin horretan ikasleak protagonista bilakatzea.

MIKEL LARRETXEA

Herriko lasterkariak sasoian

Aro bustia bezain ederra izan zen mendi lasterketa egunean. 155 lasterkarik bukatu zuten ibilbidea eta tartean hainbat aranztar: Dani Iparragirre, Asier Apezetxea, Julen Oskoz, Imanol Lukanbio, Jabier Iparragirre, Aimar Zubieta, Alberto Fagoaga eta Jexux Larretxea.


F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

G. PIKABEA

Eolikoei buruzko solasaldi arrakastatsua

Arantza Bizirik taldeak deituta, parke eolikoei buruzko solasaldia egin zuten apirilaren 14an Herriko Etxeko pleno aretoan. Jende aunitz bildu zen Sustrai Erakuntza Fundazioko ordezkarien eta Lesakako Endara Bizirik plataformakoen azalpenak aditzera.

IMANOL LUKANBIO

Gaztainak txertatzeko ikastaroa

Gaztainaren inguruko saioek aitzinera segitzen dute. Joan den apirilaren 22an gaztainondoen txertaketari buruzko ikastaroa eman zuen Efren Martin adituak. Argazkian ikastaroan izena emandakoak Bordalarrea auzoan ageri dira Martinekin.

70-80ko hamarraldiko besta Burlada ostatuan

Larunbat honetan zortzi, maiatzaren 13an, 70eko eta 80ko hamarkadetako besta antolatu dute Burlada ostatuan. 19:00etatik aitzinera hasiko da besta eta goizaldera arte luzatuko da. Afaltzeko, berriz, opilak izanen direla jakinarazi dute.

Arturo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

ORBELA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

Irrisarri Landeko Nafarroako III. Disc Golf irekian parte hartu zuten jokalari gehienak, Baxi Basajaunarekin. UTZITAKOAK

Oier Erkizia garaile Igantzin Nafarroako III. Disc Golf Irekian

Doneztebekoa gazte mailan nagusitu zen, Lander Arozenaren aitzinetik eta Iñaki Gonzalez bigarren izan zen beteranoetan

TTIPI-TTAPA IGANTZI

Espainiako Koparako baliagarria den Nafarroako III. Disc Golf irekia jokatu zuten apirilaren 22an eta 23an Igantziko Irrisarri Landeko zelaian, Baxi Basajauna elkarteak antolatua. Larunbatean euria izan zen protagonista, baina igandean giro ederra izan zuten eta etxeko taldeko kirolariak ongi ibili ziren. Aipagarriena, gazte mailan Oier Erkizia doneztebarrak lortutako garaipena eta Lander Arozena doneztebarraren bigarren postua. MP50 beteranoen kategorian bigarren izan zen Iñaki Gonzalez Olaizola eta seigarren Mikel Ibarrola doneztebarra.

Kirolariek hemezortzi saskiko zirkuituan hiruna itzuli egin behar izan zituzten eta ondoko koadroan ageri dira mailaz mailako sailkapenak.

Disc Golf eskola Donezteben

Aipatzekoa da Baxi Basajauna elkartea disc golf eskolarekin hasiko dela Doneztebeko Intzakardiko parkean, asteazkenero 19:00etatik 20:00etara. Horretaz gain, hainbat txapelketa antolatzeko asmoa dauka elkarteak bere laugarren denboraldian. Honela, ekainaren 17an Nafarroako Gazte Txartela, irailaren 8tik 10era EPT-X IrriSarri Land Opena eta irailaren 23an Euskal Herriko III. Disc Golf txapelketa prestatuko dituzte Irrisarrin.

NAF. III. DG IREKIA

GIZONEZKOAK PRO

1. Marc Lopez	157 (-14)
2. Jon Hedreida	162 (-9)
3. Miguel Caparrós	164 (-7)

EMAKUMEZKOAK PRO

1. Carla Martín	204 (+33)
2. Lorea Zulet	235 (+64)

MP BETERANOAK

1. Sean Young	168 (-3)
2. Iñaki Gonzalez	**179 (+8)**
3. Fco José Camarero	191 (+20)

AITZINERATUAK

1. Raúl Lopez-Cancio	175 (+4)
2. Dani Cipriano	175 (+4)
3. Kreis VanBogelen	181 (+10)

HASIBERRIAK

1. Txobo Vilacides	188 (+17)
2. Daniel Diaz	196 (+25)
3. Jorge Almeida	200 (+29)

JUNIORRAK

1. Oier Erkizia	**212 (+41)**
2. Lander Arozena	**225 (+54)**
3. Beñat Lopez	272 (+101)

Junior mailako podiuma.

Pello Apezetxearen omenez lehen beka deialdia egin dute

Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzaindiak sinatutako hitzarmenaren emaitza da

TTIPI-TTAOA

*Pello Apezetxea Zubiri Ikerketa beka*ren lehen edizioaren aurkezpena egin zuten apirilaren 26an Leire Mitxelena Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariak eta Sagrario Aleman Astitz Euskaltzaindiko Nafarroako ordezkariak. Deialdi honek bi helburu ditu: batetik, Apezetxea omentzea; bertzetik, soziolinguistika, dialektologia edota onomastika arloetarako ikerketa lan bat egiteko beka ematea. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Euskaltzaindiak sinatutako hitzarmenaren emaitza da beka.

Pello Apezetxearen irudia.

Deialdiaren ezaugarriak

Pello Apezetxearen ikerketa esparruak kontuan hartuta, honako ikerketa-gaiak proposatu dituzte lehen deialdian.

- **Soziolinguistika**: Tokiko hedabideen eragina euskararen biziberritzean / Helduen euskalduntzea: ikastetik erabilerarako jauzia udalerri euskaldunetan / Immigrazioa, harrera, hizkuntza eta kultura aniztasuna eta euskara udalerri euskaldunetan / Gaztelaniaren erabilera goiztiarra udalerri euskaldunetako haurren artean.
- **Dialektologia:** Bortzirietako hiztegia/Bortzirietako hizkera administrazioan, hezkuntzan eta tokiko hedabideetan erabiltzeko oinarriak.
- **Onomastika:** Toponimia xehearen hedapena eta erabileraren sustapena.

Beka emateko orduan, epaimahaiak inguruko errealitatearekiko hurbiltasuna eta aukeratutako eremuan nahiz Bortzirietan aplikatzeko bideragarritasuna izanen ditu kontuan, besteak beste. Interesatuak banaka nahiz taldeka aurkeztu ahal izanen dira bekaren deialdira, eta maiatzaren 31ra arteko epea izanen dute proposamenak aurkezteko. Beka esleitu ondotik, bekadunek zortzi hilabeteko epea izanen dute ikerketa garatzeko. Bekadunak 7.000 euroko saria jasoko du egindako ikerketa lanarengatik.

Pello Apezetxea Zubiri (Goizueta, 1932-Etxalar, 2022) arlo aunitzetako ikertzailea, ekintzailea eta sustatzailea izan zen. Baina bereziki nabarmentzekoa da euskara babesteko, ikertzeko eta sustatzeko egin zuen lana. 2004. urtean ohorezko euskaltzain izendatua izan zen. Ttipi-Ttapa Fundazioko presidente izan zen.

Jokoen bidez urari buruz gehiago ikasi dute eskolan. UTZITAKOA

Uraren inguruko tailerrak egin dituzte eskolako ikasleek

NILSAko teknikariekin ingurumenarekin lotutako jokoak izan dituzte ikasgeletan eta araztegia bisitatu zuten koxkorrenek

MAIDER PETRIRENA

NILSA enpresako teknilariek eskolako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntza ikasle guztiei uraren inguruko tailerrak eman zizkieten apirilaren 25ean. Ttikienek ikasgelan bertan eman dituzte tailerrak, Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoek *Migela, Jokin eta Uraren* ipuinekin eta bigarren ziklokoek *Zaindu dezagun ura* jokoekin eta ibaia bisitatuz. Lehen Hezkuntzakoek Erabiltzen dugun ura, Uraren bidaia eta Argi ibili urarekin jokoak egin dituzte, zikloaren arabera. Hamar urtetik goitikoek araztegia ere bisitatu dute. Ibai eta itsasoen kutsaduraren inguruan ere tailerrak egin dituzte, izaki bizidunengan errespetua eta jarrera arduratsua sustatuz.

Ikasleak adi.

JUAN ANTONIO IBARRA

Arkupeak-eko kideak Kantabrian

Arkupeak elkarteak apirilaren 17tik 20era Kantabriara bidai ederra antolatua zuten. Sunbildarrek ere Santoña, Laredo, Santander, Isla, Santillana del Mar, Comillas, Picos de Europa, Liebanako monasterioa, Potes, Hermidako haitzartea, Santa Catalina begiralekua eta Cabarceno bisitatu dituzte.

UTZITAKOA

Sunbilla Escape Room saritua

2022ko ekainaren 15ean Sunbillan Escape Room bat ireki zuen Iñigo Arretxea Pascual herritarrak. Estatu osoko scape roomak biltzen dituzen elkarteak antolatutako sariketan 2022ko girotze onenaren sarira izendapena jaso eta hirugarren postua lortu du Sunbillakoak. Zorionak.

endanea
MÁS QUE UN GARDEN
943 64 17 10
www.endanea.com
Online denda
ZORIONAK AMA!
Maiatzak 7 Amaren eguna da! Zoriondu ezazu opari eder eta berezi batekin:
• Loro-sortak.
• Landare naturalak eta konposaketak.
Aukera zabala! Zatoz edo egin zure eskaria telefonoz, edo gure online dendan.

Iazko Udaberriko Ferian saritutako ahariak. ALICIA DEL CASTILLO

Udaberriko feria maiatzaren 5ean eginen dute

Ahari mutur gorrien eta mutur beltzen lehiaketa eginen dute goizean

OIER ZULAIKA

Maiatzaren 5ean, ortziralea, Merkatuko plazan eginen dute Udaberriko Feria, Donezteberko Udalak eta Cederna Garalur elkarteak antolatuta. Ohi bezala, Malerrekako ahari lehiaketa ere egun horretan erabakiko da.

Urteroko gisan, sei sari banatuko dituzte: hiru ahari mutur gorriendako eta hiru mutur beltzendako. Kategoria bakoitzean lehendabiziko saria eskuratzen duenek 120na euro irabaziko dituzte, bigarren saria lortzen dutenek 70na euro eta hirugarren saria lortzen dutenek 50na. 13:00etan eginen dute sari banaketa.

Lehiaketaz gain, 10:00etatik 14:00etara eskulangileen feria ere eginen dute eta 14 ekoizlek hartuko dute parte. Gainera, aziendak ere eramanen dituzte hainbat abeltzainek.

Cl@ve sistemako sarbidea

Administrazio publikon tramiteak online egiteko Cl@ve sistemako sarbidea behar izaten da. Apiril erdialdeaz geroztik, Donezteberko Udaleko bulegoan lortu daiteke. Tramitea egiteko nortasun agiria bertzerik ez da beharko.

ERREKA GURASO ELKARTEA

Liburuaren Eguna ospatu dute eskolan

Erreka Guraso Elkarteak antolatuta, apirilaren 22an Liburuaren Eguna ospatu zuten eskolan. Liburu trukaketa egin zuten ttikienek, eta ipuinak sortu zituzten *Ipuinen Zuhaitza* kolorez betetzeko. Gurasoek, egurrezko zuhaitza sortu zuten, eta eskolako liburutegian paratuko dute.

Bukatu dute denboraldia Errekako seniorretako bi taldeek

TTIPI-TTAPA

Erreka eskubaloi taldeko emakumezkoen eta gizonezkoen senior taldeek bukatu dute denboraldia dagoeneko. Emakumezkoetan, urte batzuz kantxatik kanpo egon ondotik, aurten berriz ere taldea plazaratu du Errekak, eta hiru garaipen lortuta bukatu dute denboraldia. Nabarmentzekoa da azken garaipena, 21 eta 17 nagusitu baitziren ligako hirugarrenaren kontra.

Gizonezkoetan, aldiz, porrotarekin bukatu dute denboraldia, 29 eta 30 galdu zuten Tafallaren kontra. Denboraldi ona osatu arren, lauko finaletik kanpo gelditu da taldea.

Orain, Erreka Egunerako prestaketekin hasiak dira elkarteko kideak.

Errekako neskak azken partidan.

EDERKI tailerra
CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA
'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA
Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Pitti MINIESKABAZIOAK
MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat
Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

BIDASOA
609 446 693 - 948 525 663
Alkalaga Industrialdea
Zubi Kalea 6
31770 Lesaka (Nafarroa)
Noain-Eskirotz Industrialdea
Y Kalea 10
31110 Noain (Nafarroa)
GASOLIOA ETXERA eramaten dugu

ITUREN

Bertso afari ederra egin dute Aurtizko elkartean

Irurtzungo Aixita bertso sariketan parte hartuko du Egoitz Gorosterrazu herritarrak

ARKAITZ MINDEGIA

Apirilaren 15ean Aurtizko Elkartean giro bikainean afaltzeaz gain, bertso bikainak aditu zituzten. 65 lagun inguru elkartu ziren Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldiaren bertsoez gozatzera. Giro bikaina izan zen hasieratik bukaeraino. Erran beharra dago, bertsolariez gain, Arantzako Beñat Mitxelena soinularia ere hortxe aritu zela jendea kantuan eta dantzan jartzen. Afari baten bueltan hasi zena goizeko ordu ttikiak arte luzatu zen azkenean.

Egoitz Gorosterrazu Aixita sariketan

Maiatzaren 6an Irurtzungo Kultur etxean Aixita III. Bertso sariketa ospatuko da. Bertan, Euskal Herri osoko sei bertsolari gaztek parte hartuko dute: Sarai Robles, Aitor Etxebarriazarraga, Amaia Iturriotz, Maddi Sarasua, Peru Abarrategi eta Egoitz Gorosterrazu herritarra. Lehenik kanporaketa saioa jokatuko dute, atsedenaldia eta ondoren buruz burukoa.

Herritarrak Berako Mendi Maratoi Erdian

Azken urteetan bezala, gure herriko kirolariak ere izan dira Berako Mendi Maratoi Erdian. Azkeneko edizio honetan, lehen aldiz Iturengo Aritz Fagoagak parte hartu zuen. Hasi eta bukatu egin zuen maratoi erdia, sentsaio onarekin geldituz. Ez zen herritar bakarra izan, aurtengoan lasterketan parte hartu ez badu ere, antolatzailei laguntzen ibili baitzen Ibai Berregi aurtiztarra ere.

ESKOLAK UTZIA

Ane Labaka Liburuaren Egunean

Liburuaren Egunaren harira, Pulunpa eskolan bisita polita eduki zuten apirilaren 21ean. Mariñe Arbeorekin batera kaleratu duen *Totototo* liburua aurkeztera etorri zen Ane Labaka idazlea. Mihi puntan hitzak trabatzen zaizkien haurrak jolastera animatu nahi ditu istorio honekin.

ZUBIETA

Izaskun Zubialde, Irungo Liburu Azokan egindako aurkezpenean. UTZITAKOA

'Irulegiko eskua' liburua idatzi du Izaskun Zubialdek

FERMIN ETXEKOLONEA

Izaskun Zubialde zubietarrak, Bakarne Atxukarrok eta Asun Egurzak betiko istorio mitologikoak haurrentzako ipuin bihurtu ohi dute, haien bidez transmititzen diren balioak eta ezaguerak umeek txikitatik barnera ditzaten. Eta, orain, gauza bera egin dute Irulegiko eskuarekin.

Liburuaren azala.

Horrela, Denonartean argitaletxearen eskutik liburu-dendetara iritsi den *Irulegiko eskua* liburuan, Olbap 8 urteko mutikoaren bizipenak kontatzen dituzte. Lehen hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta 12 eurotan jarri dute, bai euskaraz, bai gaztelaniaz.

Idazketan, elkarlanean aritu dira profesional aditu batzuekin. Teresa Lacosta Ramirez arkeologoak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak aholkuak eman dizkiete egileei, ipuina historiarekin ahalik eta leialen izan zedin.

«Nahiz eta istorioa eta pertsonaia asmatua izan, kokatua dagoen testuingurua benetakoa da –azaldu digu Izaskun Zubialdek–. Gure asmoa zen neska-mutilek aurkikuntza horren garrantzia baloratzea, eta ezagutzea nola bizi ginen duela 2.000 urte. Kontatu dugun istorioa benetakoa da, nolabait».

Ander Aragon eta Maite Lekuberria herriko langileak

Ander Aragon eta Maite Lekuberria hartu ditu udalak herriko lanetan aritzeko, datozen sei hilabetetarako kontratuarekin. Herriko txokoak garbitzen eta txukuntzen eta beharrezkoak suertatzen ahal diren herriko beste lanetan ariko dira.

Lehen jaunartzea eta maiatzeko aingeruak

Maiatzaren 7an lehen jaunartzea eginen dute Noa Bendoiro, Elaia Santesteban eta Intza Iribarrenek. Elizari dagokionez, hilabete berezia izaten da maiatza eta ohiturari eutsiz, hilabeteko igandetan aingeruek lore eskaintzak eginen dituzte elizan.

«Eolikoen proiektuan zer planteatzen diguten aditu nahi dugu»

ERNESTO DOMINGUEZ OLEA ZUBIETAKO ALKATEA

Haize errotak paratzeko asmoz, Elicio izeneko enpresa belgikarra eskualdeko hainbat udalekin harremanetan jarri dela adierazi du Zubietako alkateak

G. PIKABEA

Eolikoak ugaritzen ari dira, eta orain arte eskualdetik urruti ikusi ditugun proiektuak bat bestearen ondotik ailegatzen ari dira. Hainbat enpresa pribatuk jo du udalen atea, haize errotak paratu nahi dituztela esanez, eta horietako bat da Zubietako Udala. Elicio enpresa jarri da beraiekin harremanetan, eta horretaz mintzatu da Ernesto Dominguez alkatea.

Zein da enpresaren proposamena?

Martxoaren 24an Iturengo eta Zubietako udal ordezkariak enpresarekin elkartu ginen. Belgikako enpresa bat da eta Nafarroako iparraldean haize eremu batzuk detektatu dituztela eta inbertsioak egiteko leku interesgarriak izaten ahal direla jakinarazi ziguten. Doneztebeko azpiestazioa hor dago eta energia horrat deskargatzen ahalko luketela aipatu zuten. Zubietak eta Iturenek muga egiten duten eta Zubietako antena dagoen Galardi izeneko parajean, 30 megawatteko instalazioa aurreikusi dute, esan zigutenez, bospasei haize errota. Dimentsioei buruz ere galdetu genien, eta 120 metroko altuera izanen luketela kontatu ziguten, 75 metroko hegalekin eta 150 metroko diametroarekin. Haize errota batetik bestera 500 metroko distantzia utziko luketela ere esan ziguten.

Hori dena ahoz esan zizueten?

Bai, dena ahoz esandakoa da, eta hori azpimarratzekoa da. E-mailez udalekin bildu nahi zutela jakinarazi ziguten eta elkartu ginenean, informazioa ahoz eman zuten. Proiektuari buruz ez dugu deus ikusi idatzia.

Proiektuak aurrera eginen balu, herri galdeketa egiteko beharraz aritu da alkatea.

Geroztik enpresarekin harremanik izan duzue?

Bileraren ondotik, beste korreo batean zenbait partzelari buruzko informazioa galdetu zuten. Orduan hasi ginen partzelak identifikatzen. Alde batetik, aipatu dugun Galardi eremua dago, Iturengo eta Zubietako lurretan, eta bestetik, Arburu, Zubietako lurretan, Beintza-Labaien aldera. Badakigu beste paraje batzuk aztertzen ari direla. Eratsungo eta Ezkurrako alkateekin ere bildu dira.

Nafarroako Gobernura ere jo duzue...

Enpresarekin egindako bileran obraren lizentzia noren esku dagoen galdetu genien, herriak edo Nafarroako Gobernuak izanen lukeen proiektuari baietz edo ezetz esateko baimena. Ez zekitela esan ziguten. Horri buruz Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentura jo dugu, eta badakigu enpresa lehenbiziko pausoak ematen hasia dela. Ingurumen Departamentukoek adierazi digutenez, proiektu eolikoak garatzeko asmoz, aurkeztutako eremuetako ingurumen balioei buruzko informazioa eskatu du enpresak, eta proiektuaren kokalekutik hurbil tramitatu dituzten edo tramitatzen ari diren beste instalazioei buruzko informazioa ere eskatu du, efektu sinergikoari eta metagarriari buruzko balorazioa egin ahal izateko. Bestalde, proiektuaren gaineko lizentzia norena den ez digute argitu. Pablo Muñoz Ingurumen Departamentuko zuzendari nagusiak erantzun digunez, Industria Departamentuari dagokio.

Herri lurrak edo partikularrak dira?

Gehienak herri lurrak dira, bat izan ezik. Bost edo sei partzelari buruzko informazioa galdetu digute, baina horrek ez du esan nahi partzela horietan haize errotak eraikiko dituztenik. Beraien ikerketak egin beharko dituzte.

Apirilaren 5ean herritarrekin bilera informatiboa egin zenuten. Nolako erantzuna izan zuen?

Gaiak interesa sortu du, eta jendea hurbildu zen. Bada holako proiekturik nahi ez duela garbi duen jendea, baina ez zen ezezko borobilik atera.

Eta zer dio udalak?

Informazio guztia herritarrekin partekatuko dugu. Ez dakigu zein bide hartuko duen proiektuak, baina ez dugu kontrako jarrera argirik. Aurrera eginen balu garbi dugu herri galdeketa egin beharko genukeela, herriak zer nahi duen jakiteko. Oraingoz, aurrera egin eta zer planteatzen diguten aditu nahi dugu. Baditu alde txarrak, eta ingurumenean izanen lukeen eragina da horietako bat. Baina baditu alde onak ere. Energia garbiaren aldeko apustua denok egin nahi dugu eta herriari eginen lioken ekarpen ekonomikoa garrantzitsua izaten ahal da.

Energia garbia aipatu duzu, baina ez litzateke herriarendako izanen...

Ez, badakigu. Enpresa pribatua da eta proiektu pribatua da.

Zenbateko ekarpen ekonomikoa eginen lioke herriari?

Bileran zergatik esan beharko genukeen baietz galdetu genienean obraren kostua aipatu ziguten. 30 milioi euroko obra aurreikusi dute, eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga bidez gastu horren % 3 udalari ordaindu beharko liokete. Hortik aurrera urtero diru kopuru bat. Beste sarrerarik ez duten herri ttiki hauendako diru asko da.

Oizen eginen dute Malerrekako Eguna maiatzaren 13an

Goizean, udalak omenaldia eginen die 80 urtetik gorakoei eta arratsaldean Saldiasek hartuko du bestaren lekukoa

Donamarian egin zuten iaz Malerrekako Eguna. ALICIA DEL CASTILLO

TTIPI-TTAPA

Urteroko hitzorduarekin segiz, Malerrekako Mankomunitateak Malerrekako Eguna antolatu du. Aurtengoa ohi baino lehenago izanen da, eta maiatzaren 13an eginen dute Oizen. Aitzineko urteetan bezala, egun osorako egitaraua antolatu dute eta goiz goizean hasi eta gaua bitarte zer egin eta zer ikusi izanen da.

08:00etan hasiko da egitaraua mendi martxarekin. Malerrekako gazteak Iturenen elkartuko dira, eta bertatik mendi martxa eginen dute Oizera. Bertan, 10:30ean harrera ekitaldia eginen dute plazan. Malerrekako herrietako ordezkariek hasiera emanen diote egunari, eta gainera Oizko Udalak 80 urtetik gorako herritarrei omenaldia eskainiko die. Horrekin batera, eskualdeko musikariak kalejiran ibiliko dira herrian barna karrikaz karrika.

Goizean zehar, 11:00etatik 14:00etara artisauak eta talogileak izanen dira plazan. Horrekin batera, bertzelako animazioak ere izanen dira. 11:00etatik 12:00etara dantzariek emanaldia eginen dute plazan, eta 12:30ean buruhaundiak aterako dira. Ordu berean, eskualdeko aizkolariek erakustaldia eginen dute.

14:00etan paella jatea izanen da plazan, eta paellarekin batera, postrea ere banatuko dute. Bazkariaren ondotik, Malerrekako mus txapelketako finala jokatuko dute herriko etxeko sabaian, eta tarte horretan, Hauspolariek taldeak emanaldia eginen du plazan.

Arratsaldean haurrak protagonista

Haurrentzako jarduerak ere izanen dira arratsaldean. 18:00etan hasi eta 19:30ak bitartean txokolate jatea, eta umeentzako joko eta tailerrak eginen dituzte frontoian. Ordu berean, buruhaundiek kalejira eginen dute karrikaz karrika.

20:00etan, zozketa eta mus txapelketako sari banaketa eginen dute eta Saldiasek hartuko du besta hurrengo urtean antolatzeko ardura bere gain.

Eguna bukatzeko, bokadillo jatea izanen da plazan eta 21:00etan musikak hartuko du lekukoa DJ Laura eta Lurrekin.

Otorduetako txartelei dagokionez, egunean berean erosi beharko dira.

ANA MARIEZKURRENA

Bertso afari ederra Eratsunen

Apirilaren 15ean bertso afari ederra egin zuten Eratsungo Elietxe ostatuan. Herriko eta kanpoko 56 lagun elkartu ziren Maialen Lujanbioren eta Aitor Mendiluzeren bertsoez gozatzera. Bai bertaratutakoak eta bai bertsolariak ere gustura gelditu ziren.

Aste Santuan hasi da aurtengo Leurtzako denboraldia

JAIONE ARIZTEGI

Azken urteetan ohikoa bihurtu denez, eta eremuak ahalik eta txukunen mantentzeko asmoz, aurten ere berrikuntza lanak egin dituzte Leurtzako eremu naturaleko komunetan. Lan horiek aste Aste Santua ate joka ari zela bukatu ziren, izan ere, data horietan hasi da Leurtzako denboraldia aurten ere.

Denboraldirako langileei dagokionez, aurreko urteko pertsona berberak ariko dira bertako zereginak egiten aurten ere; Mari Jose Arburua, Marga Murillo eta Mari Jose Zozaia.

Hiru langile ariko dira lanean.

Bertze urteetan bezala, aurten ere 3 euro ordaindu beharko da etortzen den auto bakoitzeko.

MODA 2023

Eguzkia, beroa, egun luzeak… berokiak gorde eta galtza motzak ateratzeko garaia ailegatu zaigu, itxura aldaketa egin nahi dutenentzako momentu aproposa. Ilea, arropa, oinetakoak… *look* berri bat nahi baduzu, ezinbertzekoa da aurtengo joeren berri izatea. Ezagutu nahi dituzu?

Moda berriak

Urtero bezala, udari begira loreak, pastel koloreak, ehun finak eta sandaliak izanen dira nagusi tendentzien artean. Naturaltasuna da jaun eta jabe bertze behin, estilo aske eta deshinibituarekin, horregatik, gardentasunak eta barruko arropa agerian egotea dira joera nagusia udaberri eta udarako.

Moda ziklikoa dela diote, eta tendentziak behin eta berriz errepikatzen dira. Gerriak garrantzia berezia hartu du, eta gerri altuko jantziak alde batera utzita, azken aldian indartsu etorri dira gerri baxuko galtzak, soinekoak eta gonak. Merinake gonek, *peplum* blusek eta gerriaren mailako josturek ere gerriaren inguruko joera berria nabarmenduko dute.

Koloreak

Koloreei dagokionez, tonu bizi eta ausartak alde batera utziz, kolore lasaiak eta pastel tonuak dira nagusi. Urdin, arrosa, hori eta berde argiek bizia ekarriko diete soineko, galtza, ator eta oinetakoei.

Honez gain, urtero errepikatzen diren koloreak ditugu, armairuan faltatu ezin direnak: beltza, zuria, grisa… eta aurten, urre kolorea. Osagarrietan, botetan edo txaketetan, dotoretasuna eta argitasuna ematen duen kolorea da, tonu ilunekin erraz konbinatzen dena.

Oinetakoetan aukera ugari

Sandaliez haratago, hainbat oinetako mota jantzi ditzakegu udan gustura ibiltzeko, gure estiloaren arabera; eskalapoiak, espartinak eta dantzari-oinetakoak, adibidez. Plataformekin edo gabe, irekiak eta itxiak, kolore, material eta estilo anitzekoak… aukerak amaigabeak dira, eta garrantzitsuena eroso ibili ahal izatea da.

Oinetako bereziak eta eleganteak nahi dituztenentzako, zilar koloreko zapata distiratsuak dira

azken joera: botak, sandaliak, plataformak... edozein oinetakora egokitu daiteke moda hau eta ukitu desberdina emanen dio gure ibilerari.

Azkenik, kirolzaleek eta erosotasuna bilatzen dutenek galtzerdi itxurako zapatilak izanen dituzte gustuko. Material arinekin eginak dira eta izerditzea ahalbidetzen dute, hankak fresko mantentzeko.

Orrazkera motz eta freskoak

Udaberriaren iritsiera aitzakia perfektua da ilea mozteko, orrazkera aldatzeko edo kolore berri batez tindatzeko. Azken urteetako joerei segituz, *bob* orrazkera aukera ona da freskotasuna lortzeko, baina *wolf* edo *shaggy* bezalako tendentzia berriak ere nagusituko dira. Geruza aunitzeko orrazkerak dira, ileari bolumena ematen diotenak. Gainera, kopeta-ile luzearekin orrazkera dinamiko eta kreatiboagoak lor daitezke.

Ile motz-motza dutenentzako ere aukera ugari ditugu: degradatuak, mulletak, mohikanoak... aldeetan motz eta gainean luze da tendentzia nagusia, batez ere ile kizkurrarekin.

Baina ilea moztea eta gustuko orrazkera aukeratzea ez da aski; ilea zaindu egin behar da. Itxura fresko eta osasuntsua izateko, ile mota bakoitzak zaintza berezia behar du, horregatik, garrantzitsua da ile-apaintzailearengana joatea.

Haurrentzako erosotasuna

Etxeko ttikienen modan ere pastel koloreak dira nagusi aurten; arrosa, urdina, berdea, krema kolorea... Eta beti bezala estanpatu koloretsuak eta marrazkiz betetako jantziak izanen dira nagusi, aproposak udaberri eta uda girorako.

Material leunak, malguak eta erosoak garrantzitsuak dira, haurrak haur izan daitezen ezinbertzekoa baitute mugitzea eta jostatzea. Une berezietarako galtza eta txaketa bakeroak nabarmentzen dira, batez ere koloretako bordatuak dituztenak, alaitasuna ematen diotenak.

Garrantzitsua da arropak erosterako orduan haurren iritzia aditzea eta euren gustuak errespetatzea, janzkera norberaren pertsonalitatea definitzeko modu bat gehiago baita.



PEIO
MODE

Zatoz Venta Peiora gure moda ezagutzera

ADIDAS · ALTUS · BIRKENSTOCK · BOARDIES · BOBOLI · CALVIN KLEIN · CK UNDERWEAR · CAPTAIN CORSAIRE · CHAMPION · COLUMBIA · CDDL · CORONEL TAPIOCA · DELSEY · DESIGUAL · DKOKES · DOCKERS · DUDE · EASTPAK · ECOALF ELEMENTERRE · EL PULPO · ESPRIT · FLUCHOS · FREETIE · GEOX · GRACE & MILA · G-STAR RAW · · HAPPY SOCKS · HILFIGER DENIM · HELLY HANSEN · HERSCHEL · HOFF · IKKS · JACK & JONES · IPANEMA · JXXX · KAPORAL · LACOSTE LE COQ SPORTIF · LEGO WEAR · LEVI'S · LEVI'S KIDS · LEVI'S STICHD · MANGO · MANGO KIDS · MERRELL · MOSES · NAME IT · NEW BALANCE · NEW ERA · ONLY · ONLY & SONS · OXBOW PEPE JEANS · PITAS · PUMA · JACK & JONES RAINS · RALPH LAUREN · REEBOK · REPLAY · RIP CURL · SANTA CRUZ · SELECTED · SKECHERS · SLEEPERS · SUPERDRY · SURKANA · TAMARIS · TBS · TERNUA · THE NORTH FACE · TOMMY HILFIGER · TRESPASS · TRIANGO WORLD UNDER ARMOUR · VANS · VERO MODA · VERBENAS · VICTORIA · VILA · YOKONO · 4+3

www.venta-peio.com Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.) Tel. +34 948 625 130 (Es.)
Arnegui I Dantxarinea I Behobia I Landibar I Agus Benta I Ibardin

VENTA PEIO
Zure erosketa gune hoberenak Euskal Herrian bihotzean

UDABERRIKO PROMOZIOA MODAN



Hurbildu zaitez gure dendetara kupoi honekin eta gozatu deskontuaz **maiatzaren 5etik ekainaren 4ra.**

% 20ko DESKONTUA

Udaberri-Uda arropa bilduman

Eskaintza hau ez da beste deskontuekin bateragarria.

BIOK FASHION

ventabiok.com

Kantabriako bidaian parte hartu dutenetako batzuk. UTZITAKOA

Bidaia ederra egin dute bazkideek Kantabriara

Lau eguneko egonaldia egin dute bazkideek Cantabrian. Hurrengo bidaia, Benidormera izanen da

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 17tik 20ra hiru autobus joan ziren Kantabriara bidaian. Jende gehiegi zenez elkarrekin ibiltzeko, autobus bakoitzak bere ibilbidea egin zuen nahiz eta denek gauza berdinak ikusi.

Lehendabiziko egunean Doneztebe eta gainerako herrietatik atera eta Santoña, Laredo, Santander eta Isla bisitatu zituzten. Santoñan antxoa konserba lantegi bat ikusi zuten, bertako elikagaia dastatu eta erosteko aukera izan zuten. Santanderren Magdalena jauregia ikusi zuten eta denen iritziz hagitz polita izan zen. Gainera, hiria eta hondartzan barrena ere ibili ziren.

Bigarren egunean Santillana del Marera joan ziren Kolegiata eta hainbat jauregi ikustera. Egun berean, Comillaseko Unibertsitea kanpoaldetik eta Sobrellano jauregia barrendik ikusi zituzten.

Apirilaren 19an Fuente Dé herrira joan ziren. Batzuk teleferikoan igo ziren eta hango bista paregabearekin liluratuak geratu ziren. Liebanako monastegira joan ziren gero eta bazkaldu ondotik. Potésera. Santa Catalina miradorea eta La Hermida haitzarteetan ere geldialdia egin zuten.

Bukatzeko, azkeneko egunean Carbarcenora joan ziren. Telekabinan eta oinez bisita librea egin zuten eta Cabarcenon bertan bazkaldu ondotik, etxera itzuli ziren.

Eguraldi hagitz ona izan zuten eta hotelak ere hagitz ongi zeuden.

Benidormeko bidaia

Aldizkari hau argitaratu orduko elkarteko bazkideetako batzuk Benidormen izanen dira. Maiatzaren 2an ziren ateratzekoak eta 10 egun Benidormen eman ondotik, hilaren 11n itzuliko dira berriz eskualdera autobusean.

Egonaldia hiru izarreko Hotel Poseidon Playan eginen dute, eta bertan atseden hartzeko eta gozatzeko hainbat aukera izanen dituzte. Joaterakoan eta etortzerakoan Castejongo Javalanbren eginen dute otordua.

Mendizaleak Berastegiko irteeran. UTZITAKOA

Berastegin egin dute apirileko irteera elkarteko mendizaleek

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 18an ohiturari jarraituz elkarteko mendizaleak mendira joateko elkartu ziren. Gipuzkoa aldean zuten hitzordua, oraingoan, Berastegin, Lorentxok eta Lurdesek antolatuta.

Berastegira kotxez iritsi, eta 09:00etan abiatu ziren bertako elizatik 52 lagun, goiz eguzkitsuarekin zortzi gradu zeudela. Handik Ulia aldera, Aintzerrekan barrena Irintxibordara joan ziren. Han etenaldi txiki bat egin zuten gosaltzeko eta gero Matxineko bordatik Ipulingo bidea hartuta Iturzabal barrena Gorosmenditik herrira jaitsi ziren. Bertan, udaletxean Maria eta Marianon erakusketa ikusi zuten.

Hasieran, San Lorenzo baselizara joatea pentsatua zuten, baina, gehiegi ez luzatzeko beste baterako uztea erabaki zuten. Hala ere, 14 km inguru eta lau ordu eta erdi ibili ziren. Haize freskoa zebilen, baina, ibiltzeko ezin hobea.

Berastegiko Ategi jubilatuen elkartean bazkari goxo batekin bukatu zuten eguna.

Hurrengo hitzordua maiatzean izanen dute.

Euskal kantuen egunerako izena emateko aukera bada oraindik

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25ean eginen dute Dantxarinean Euskal kanten eguna. Lerro hauek idaztean, 180 bazkidek emana dute izena egun horretarako, baina, oraindik ere joan nahi duenak badu apuntatzeko aukera. Taldean joanen direnentzako, egun horretan txartelak banatuko dituzte elkarrekin esertzeko, eta kantuen liburuxka eramateko eskatu dute.

Irekia da izen emateko epea.

Doneztebeko ikastaroa urrian

Horrekin batera, elkarteak jakinarazi du maiatzean Doneztebeko ikusmenari buruz egitekoa zuten ikastaroa bertan behera gelditu dela. Urrian eginen dute, eta aitzinetik jakinaraziko diete izena emandakoei.

Atekabeltz Herriguneko batzordekideak. Ezkerretik hasita lehena Ibon Azpirotz eta bigarren Oihana Zabaleta.

«Herriguneko eragileak elkartzeko sortu dugu Atekatu»

IBON AZPIROTZ SOSA ETA OIHANA ZABALETA BARANDARAIN ATEKABELTZ HERRIGUNEA

Atekabeltz Herriguneak antolatuta, maiatzaren 4an, 6an eta 11n Atekatu jardunaldia eginen dute. Horretaz eta Atekabeltzen eguneroko martxaz aritu dira Zabaleta eta Azpirotz Ttipi-Ttapa rekin

G. PIKABEA

Autogestioa eta auzolana ditu oinarri Atekabeltz Herriguneak. Horixe izan zen garai batean gaztetxea zena herrigune bihurtzeko abiapuntua, eta hemezortzi urteren ondoren, bide beretik segitzen du, herritarrentzat zabalik. Gaur egun, «Leitzako herri mugimenduarentzat ezinbesteko tresna» dela diote herriguneko kide diren Ibon Azpirotz Sosak eta Oihana Zabaleta Barandarainek. Aurten, bigarren urtez, Atekatu jardunaldia antolatu dute, eta hitzorduetara hurbiltzeko deia luzatu dute bi herritarrek. «Ikasteko, gozatzeko eta elkarrekin topa egiteko eguna» izanen dela aurreratu dute.

Aurten, bigarren aldiz, Atekatu jardunaldia antolatu duzue. Zein helbururekin?

Atekatu Atekabeltz Herriguneko herri eragileak elkartzeko sortu zen iaz. Pandemia ondorengo urtea izanik eta Atekabeltzen erabilera eta partaide kopurua gora zihoala ikusita, elkar topo egiteko espazio baten beharraz jabetu ginen. Hortaz, bertan parte hartzen dugun norbanakoak elkartu eta ospatzeko eguna sortzea erabaki genuen. Egun borobila izan zen. Aurten ere helburu horiei eutsi diegu.

Aurtengo egitarautik zer nabarmenduko zenukete?

Egitarau osoa nabarmenduko genuke, ekitaldiak osagarriak baitira. Festa honekin Atekabeltzen biltzen diren jardunak islatu nahi ditugu: kirola, hausnarketa politikoa eta soziala, kultur sorkuntza... Adibidez, Leitzeko Kontsumo Taldeak tomatearen inguruko erakusketa eta hitzaldi gidatua antolatu du, kartelak bertan eskuz serigrafiatu dira, otordua Atekabeltzeko zikiro/otordu taldeak prestatuko du. Larunbatean Leitzako hainbat borrokaren bisita gidatua eginen dugu herrian barna.

Zer erakutsi nahi duzue herri mugimendu eta borroken inguruko bisita-poteo gidatu horrekin?

Askotan, kalean, turistak gora eta behera ikusten ditugu eta ohartu ginen gure izatearen eta identitate eraldatzailearen erroak ez genituela ezagutzen. Historia hurbilaren transmisiorako tresna txiki bat izanen da bisita gidatua. Herriko hainbat txokotan Leitzako herri mugimenduen historia azalduko digute lekukoek, ardoz lagundurik.

Atekatu ez da Atekabeltz Herriguneak antolatzen duen hitzordu bakarra...

Atekabeltz Herriguneko batzordearen egitekoa, berez, ez da ekimenak antolatzea, baina urtean zehar hiruzpalau kontzertu eta ekimen gutxi batzuk antolatzen ditugu, bertara irisiten zaizkigun ekimenak egutegian txertatzen saiatzen gara, baina esan bezala, taldeak dira egitaraua osatzen dutenak.

Ibilbide luzea du Atekabeltzek. Guardia Zibilaren kuartela izan zen urte luzez, eta horiek beste eraikin batera joan zirenean, udalaren biltegi bihurtu zen. Eta ondotik gaztetxe. Duela urte batzuk gaztetxea herrigune bilakatu zen...

Gaztetxe izaten jarraitzen duen arren, bere egunean eraikinaren dimentsioa eta aukerak ikusirik, gazte asanbladak eta beste zenbait eragilek martxan jarritako proiektua da Atekabeltz Herrigunea. Autogestioa eta auzolana oinarri dituen espazio herritarra da. Beheko plantan gaztetxea dago eta goiko solairuetan antolaketarako, sormenerako eta eskalatzeko espazioak.

Atekabeltzen ibilbideaz nolako balorazioa eginen zenukete?

Aurten hemezortzi urte beteko ditu eta harrigarria da zenbat erabilera dituen eta mantsomantso proiektua bera nola eraiki den ikustea. Hainbat adinetako parte hartzaileak ditu. Beraz, balorazioa oso positiboa da. Duela hogei urte ez genuen imajinatu ere eginen zeinen tresna baliagarria izanen genukeen gaur egun.

Zein dira Atekabeltzen biltzen diren eragileak?

Alde batetik, herri eragileak eta bestetik, sormena eta kirola lantzen dutenak. Beste askoren artean, Leitzeko Kontsumo Taldeak, mugimendu feminis-

Atekatu jardunaldiak

Atekatu jardunaldien bigarren edizioaren barrenean, hiru egunez hainbat hitzordu antolatu dituzte. Maiatzaren 6ko kontzertuetarako eta bazkarirako sarrerak Torrean eros daitezke, bazkarikoa eta kontzertuetakoa 25 eurotan eta kontzertuetakoa bakarrik zortzi-hamar eurotan.

Maiatzak 4

- **19:00etan** *Tomatearen Bidaia*k. *Kolonialismoa, globalizazioa eta bertakotasuna* erakusketa gidatua Marta Barbarekin.

Maiatzak 6

- **12:00etan** herri mugimenduei eta borrokei buruzko bisita-poteo gidatua plazatik abiatuta.
- **14:00etan** bazkaria Atekabeltzen.
- **19:00etan** Ziztada & Rlantz musika taldea.
- **Ondoren** afari merienda.
- **22:00etan** kontzertuak: -Gailu, Nakar eta Zumitrenko.

Maiatzak 11

- **19:00etan** *Pamir 2021. Harkaitza eta izotza* hitzaldia eta proiekzioa Ekaitz Maizekin.

tak, gazte asanbladak, zeramika eta serigrafia tailerrak, bertso eskolak, Habelartek, Kaxkabeltzak, ehoziri taldeak edo eskalatzaileek bertan dute egoitza.

Osasuntsu eta bizirik dago?

Zalantzarik gabe. Gaur egungo Leitzako herri mugimenduarentzat ezinbesteko tresna da.

Nolako antolaketa du Atekabeltzek?

Jabetza herriarena da, Leitzako Udalak utzia. Espazio autogestionatua eta autofinantzatua da. Batetik, kudeaketa batzordeak eguneroko martxa eramaten du; bestetik, hiru-lau hilabetean behin eragileetako ordezkariak biltzen gara elkarren berri izateko eta taldeen eta batzordearen arteko zubi lanak egin eta elkarren artean koordinatzeko. Eta gero; urtean behin edo bitan erabiltzaileen batzarrak egiten ditugu.

Nolako ekarpena egiten dio Atekabeltzek Leitzako herriari?

Herriguneak ekimen publikoak egiteko azpiegitura fisikoa zein teknikoa eskaintzeaz gain, antolatzeko eta sormenerako espazioa eskaintzen du. Hemezortzi urte hauetan ikaragarrizko kontzertu, tailer, antzerki, hitzaldi eta ekimen pila egin dira, asko eta asko Herri Aretoa izan aurretik Leitzan tokirik izanen ez luketenak. Antolaketarako eragileen tresna ez ezik, topalekua eta elkarlanerako tresna ere bada.

Herriko beharrak asetzeko sortu zen Atekabeltz. Gaur egun zein da lehentasuna?

Herriko beharrak asetzeko baino gehiago herritarren behar kolektiboei erantzuteko sortu zen eta gaur egun ere horixe da lehentasuna. Baina gaineratu behar da oso gutxitan gelditu dela ekimenen bat Atekabeltzetik kanpo, helburua herritarren antolaketa baita.

Nolako etorkizuna ikusten diozue?

Ez dagokigu guri hori esatea. Espero dugu etorkizunean garaiko erronkei erantzuteko tresna izatea, belaunaldien arteko transmisiorako tresna eta sortu denaren topaleku izaten jarraitzea.

Mimukairen bulegoak. MIKEL ZABALETA

Ekainean ireki nahi dituzte Mimukairen ateak

Udala eta Cederna Garalur elkartea adostasun batera ailegatu dira eta hala, Mimukai Cederna Garalurrek kudeatuko du

TTIPI-TTAPA

Mimukairen ateak ekainean irekitzea aurreikusi du udalak. Halaxe baieztatu dio Mikel Zabaleta alkateak Ttipi-Ttapari. Mimukairen kudeaketaz arduratzeko pausoak ematen ere hasiak dira eta kudeaketaz Cederna Garalur arduratuko dela jakinarazi du: «Udala eta Cederna Garalur elkartea adostasun batera ailegatu dira kudeaketarako».

Hamar urtetarako Cedernaren esku

Alkateak azaldu duenez, «Cederna Garalurrek bulegoak alokatuko dizkio udalari, hasiera batean hamar urtetarako, eta ondoren, beste hainbeste luzatzeko aukerarekin». Horrekin batera, «zentroa dinamizatzeko konpromisoa hartu du Cederna Garalurrek» eta lan horretaz arduratzeko pertsona bat jarriko du elkarteak.

Proiektua eskualde osoari zerbitzua emateko helburuarekin abiatu dute, eta laster komunikazio kanpainarekin hasiko direla argitu du Zabaletak, «proiektua gizarteratu eta interesdunei tokia eskaintzeko».

Kultur Aroa maiatzaren 16tik ekainaren 10era

Hainbat gairi buruzko solasaldiek eta aurkezpenek, Artisau Azokak eta Sagardo Egunak osatuko dute aurtengo egitaraua

JUAN MARI BARRIOLA

Ate joka dugu Kultur Aroa, eta beti bezala ekitaldiz betea dator. Aurtengoa XLV. edizioa izanen da eta maiatzaren 16an hasi eta ekainaren 10era bitarte luzatuko da. Tartean badira bestelako hitzorduak, hauteskundeak eta mendi erronka, esaterako, baina egutegia arinago egitera dator Kultur Aroa.

'Gasteiz 1200'

Maiatzaren 16an, batetik, Nafarroako mendebaldearen konkistari buruzko hitzaldia antolatu dute, eta bestetik, hitzordu berean, Iñigo Larramendik eta Aritz Ibarrak *Gasteiz 1200* komikia aurkeztuko dute Aurrera elkartean, 19:30ean.

Sendabelarrak hizpide

Maiatzaren 17an, berriz, *Sendabelarrek dakitena* liburuaren aurkezpena eginen du Garbiñe Larreak Herri Aretoan, 19:00etan. Liburu horretan 45 sendabelarren propietateak ezagutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazioa bildua du Larreak. Ukenduak, tinturak, infusioak eta abar egiteko azalpenak ematen ditu.

Ekonomiaren harira

Maiatzaren 18an, *Krutwig eta gaurko ekonomia* liburuaren aurkezpena eginen dute Aurrera elkartean, 19:30ean. Aldi berean, gaur egungo ekonomiari buruzko azalpenak emanen dituzte Baleren Bakaikoa eta Oskar Aranzabal ekonomialariek. Krutwigen bizitzaren inguruko dokumental bat ere emanen dute.

Artisau Azoka

Maiatzaren 21ean XLIV. Artisau Azokak hartuko du lekukoa. Egun horretan, goiz osoan hainbat postu jarriko dituzte plazan. Saralegitarren taloak ere hantxe izanen dira eta ehoziri lanean aritzen diren artisauen bilgune izanen da.

Sagardo Eguna

Ekainaren 10ean bukatuko da Kultur Aroa, Sagardo Egunarekin. Egun horretan, Alke kultur taldeak Brun errementari anaiek landutako Irulegiko Eskuaren erreprodukzioa zozketatuko du azokan. Aurretik eta egunean bertan salduko dituzte laguntza txartelak.

Herri Aretoko eskaintza

Kultur Aroaz gain, Herri Aretoko kultur eskaintzak ere ez du hutsik eginen maiatzean. Maiatzaren 6an eta 7an 16:30eko saioan *Oink-Oink* filma ikusteko aukera izanen da eta 19.00etako saioan *20.000 especies de abejas*. Maiatzaren 20an eta 21ean bukatuko da aurtengo zinema denboraldia. Bi egun horietan, 16:30eko saioan *No somos nada* dokumentala pantailaratuko dute eta 19:00etan *Amsterdam* filma.

Maiatzaren 14an, Alex Gerediaga zuzendariaren eta Khea Ziater konpainiaren *Winona&Grace* antzezlanaz gozatzeko aukera izanen da Herri Aretoan, 19:00etan.

Bestalde, maiatzaren 21a izanen da Rafa Etxarriren *Aurkitu Ezank hirea, aurkitu gaitunk gurea* margo erakusketa ikusteko azken eguna. Bitartean Herri Aretoan ikusgai izanen dira bere lanak.

Mikel Nieve Juanjo Oroz Kern Pharmako manager orokorrarekin. KERN PHARMA

Mikel Nieve txirrindulari ohia Kern Pharma taldeko teknikari berria da

TTIPI-TTAPA

Txirrindulari profesional gisa erretiratu eta lau hilabete eskasera, bere bidea Kern Pharma txirrindulari taldearekin lotu du Mikel Nieve Iturraldek. Kern Pharmak bere talde teknikoan sartu du, errendimendu atala indartzeko eta egituran aurrerapausoa emateko. Aldi berean, kirol zuzendaria izanen da. Nievek «ilusio eta gogo handiz» hartu dut ardura. «Taldean dudan rola interesgarria iruditzen zait, batez ere ideiak partekatzen ditugulako». Gaineratu duenez, «nire helburua ahalik eta etekin handiena ateratzen laguntzea izango da», gehitu du.

'Txistua eta harria' emanaldia larunbat honetan Peru Harri museoan

JM BARRIOLA

Emanaldi berezia antolatu du Nafarroako Txistu Eskolak asteburu honetan Peru Harri museoan. 50 bat txistulari bilduko dituen *Txistua eta harria* emanaldia eginen dute larunbat honetan, maiatzaren 6an, 17:30ean.

Iragarri dutenez, sarrera mugatua izanen da eta txistulariek eta haien familiek izanen dute sartzeko lehentasuna. Hala ere, azken momentuan plaza libreak geldituz gero, publiko orokorrak ere izanen du sartzeko aukera.

Jeiki Abesbatzak Otsagabian kantatuko du

Kantua maite dutenek horretarako aukera izanen dute maiatzaren 20an, larunbata, Otsagabian. Hango elizan kontzertua antolatu dute eta bertan parte hartuko dute Jeiki Abesbatzako abeslariek. Emanaldia 19:00etan hasiko da.

Inguruarten aisialdi gunea egiteko lanak aurrera doaz

Alkateak adierazi duenez, lanak maiatz bukaeran edo ekain hasieran bukatuko dituztela espero dute

TTIPI-TTAPA

Inguruarteko proiektua itxura hartzen hasia izanen da gaurgero. Garai batean oso eremu erabilia izaten zen, baina aspaldian alde batera utzia zegoen. Orain, berriz, aisialdi gunea egiteko lanetan ari dira. Bereziki nerabeei bideratutako gunea izanen da, herrian gabezia hori zegoela detektatu baitzuten.

Udalak otsailean egin zuen obraren adjudikazioa eta apiril erditsuan hasi zituzten lanak. Mikel Zabaleta alkateak adierazi duenez, maiatz bukaeran edo ekain hasieran bukatuko dituzte. Berdegunean, bizikletekin, patinekin, skatearekin... ibiltzeko pump track zirkuitu bat eraikiko dute. Zelaia ere txukunduko dute eta txirristak, sokak, esertzeko lekuak eta oholtza bat eginen dituzte. Aisialdi guneaz gain, udalak aurrekontuetan partida bat gorde du herritik Inguruarterako oinezkoentzako bidea moldatzeko. Auzolanez moldatzea aurreikusi dute, eta udalak tresnak eta materiala erosiko ditu.

Inguruarten obran. UDALA

Mendialdeko pintxo poteak ostiralean Leitzan eginen du geldialdia

TTIPI-TTAPA

Bertako nekazarien eta artisauen produktuez gozatzeko aukera eman nahian, Mendialdeko pintxo potea antolatu du Cederna Garalur elkarteak. Aurreneko hitzordua apirilaren 30ean egitekoa zuten Etxalekun eta bigarrena Leitzan eginen dute. Ostiral honetan, hilaren 5ean, Gorritz gaztak eta Saralegi taloak dastatzeko aukera izanen da Lopenea hostalean, Gorritz gaztak Zortziko Labetxean eta txokopintxoak Txokosferan. Maiatzaren 12tik 14ra Jauntsaratsek hartuko du lekukoa eta 19an Lekunberrik.

ANGEL MARIEZKURRENA

131 lagun kantu bazkarian

Aurrera Dantza Taldeak antolatuta, kantu bazkaria egin zuten apirilaren 15ean Erleta eskolako jangelan. 131 lagun bildu ziren eta Aurrerako dantzariek kontatu dutenez, «oso gustura ibili ginen». Gehiago ere bai: «Jendearen erantzuna ikusita, hurrengo urtean errepikatzeko asmoarekin bukatu genuen».

ARGAZKIAK: LEITZAKO UDALA ETA EUNATE LOPEZ / TESTUA: JM BARRIOLA

Udaberri Pesta jendetsua izan da aurtengoa

Giro ezin hobean joan zen aurten bigarren urtez egin den Udaberri Pesta. Jende askok parte hartu zuen eguneko ekitaldietan eta frontoian egindako bazkarian 300 bat lagun bildu ziren. Iluntzean elektrotxarangak hartu zuen lekukoa eta kaleak beteta ibili ziren. Jendea pozik, pesta berria indarra hartzen ari den seinale.

Umore Ona Abesbatzako kideak Eguberrietako kontzertuan. FELIX LOIARTE

Beste erronka bat Umore Ona abesbatzarentzat

Bilboko Filarmonika Elkartearen aretoan kantatuko du maiatzaren 19an

ESTEBAN AROTZENA

Besteak beste, Iruñeko Kondestablearen Jauregian, Donostiako Kursaalen eta Santarderko Unibertsitateko Paraninfoan kantatu du Umore Ona abesbatzak hamazazpi urteko bere ibilbide oparoan. Ba maiatzaren 19an, ostirala, beste erronka bati eginen dio aurre herriko koroak, Bilboko Filarmonika Elkartearen areto ederrean kontzertua emateko aukera eskaini baitiote, bertako Kirikiño abesbatzaren 25. urteurrena dela eta.

Eneko Amundarain zuzendaria.

2012an eta 2013an Goizuetan eta Bilbon kantatuz egin zuten bi abesbatzek elkartrukea. Harreman sendoa sortu zuten, eta orain, Kirikiñoren 25. urteurrena heldu denean, beraien ospakizunak Umore Onakoekin partekatzea erabaki dute.

ESTEBAN AROZENA

Garagardo festa arrakastatsua

Iragarri bezala, apirilaren 22an garagardo festa egin zuten Umore Ona elkartean. Hirugarren edizioa izan zen aurtengoa eta hau ere arrakastatsua izan zen. Garagardoaren aitzakiarekin, 80 lagun bildu ziren Umore Onan eta giro ederra izan zuten. Bildutako dirua Goittikira bideratuko dute.

ARAINBURU MENDI TALDEA

Uda aurreko azken ateraldia Suron

Apirileko ateraldia herrian bertan egin zuten Arainburu Mendi Taldeko mendizaleek. Hamar lagun elkartu ziren eta euripean eta lainopean «herrian bertan paraje bikainak» dituztela baieztatu zuten. Uda aurreko azken ibilaldia izan zen; irailean hasiko dira berriz mendi bueltak antolatzen.

Bertso afari sariketako saioa Umore Ona elkartean

Aurrekoan aipatu bezala, Mingañe Saltsan bertso afari sariketako kanporaketa jokatuko dute ostiral honetan, hilaren 5ean, 21:00etan Umore Ona elkartean. Arrate Illaro, Agin Laburu, Ekhiñe Zapiain, Diego Riaño, Maialen Akizu eta Eneko Araiztegi ariko dira bertsotan.

Azoka ibiltarian parte hartzeko izen ematea

Ekainaren 3an eginen den Mendialdeko Azoka Ibiltarian postua jarri nahi duten Goizuetako eta Aranoko nekazariek, ekoizleek eta artisauek ostirala, maiatzaren 5a, baino lehen apuntatu beharko dute. Izen ematea udaletxean egin beharko da.

Bi asteren buruan eginen dute VIII. Goizutrail Mendi Lasterketa

TTIPI-TTAPA

Azken txanpan sartuak dira maiatzaren 20an eginen den Goizutrail Mendi Lasterketako prestaketa lanak. Ohi bezala, lasterketa luzea (25 kilometro), motza (10 kilometro) edo erreleboka egiteko aukera izanen dute lasterkariek. Bikoteka egin nahi izanez gero lehen partaideak lehenbiziko hamar kilometroak eginen ditu eta bigarrenak hurrengo hamabostak. Oraindik izenik eman ez duenak www.herrikrossa.com orrialdean egin dezake. Egunean bertan ere aukera izanen da.

Leitzako parke eolikoa. PERE LOPEZ BROSA

Goizueta, Arano eta Hernani artean poligono eoliko bat

Sustrai Erakuntza Fundazioak jakinarazi duenez, enpresa pribatu batek «neurri haundiko poligono eoliko bat» egin nahi du

TTIPI-TTAPA

Azken boladan eolikoen gaia pil-pilean dago eskualdean. Sustrai Erakuntza fundazioak duela aste batzuk jakinarazi zuen Madrilgo Zelena Renovable enpresak bi zentral eoliko egin nahi dituela eskualdean. Azkua proiektua Etxalarren, Igantzin, Arantzan eta Sunbillan eta Irakurri proiektua Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaienen. Gainera, sortuko lukeen energia sarera konektatzeko baimena lortu du eta horretarako fidantza edo berme ekonomikoa ordaindu du. Horrez gain, Elicio izeneko enpresa batek beste proiektu bat du esku artean Zubieta aldean, eta Zubietako Udalarekin harremanetan jarri da. Geroztik Goizueta, Arano eta Hernani artean beste bat egin nahi dutela jakinarazi du Sustrai fundazioak.

Ehun megawatteko proiektua

Lerro hauek idazterakoan proiektuaren inguruko xehetasun haundirik ezagutzen ez bazen ere, Sustraik baieztatu duenez, proiektua tramitatzen Espainiako Gobernua ari da: «Bai proiektuaren dimentsioengatik, bai bi autonomia erkidegori eraginen dielako, Madrildik egiten ari dira tramitazioak». Hori da egitasmo honen beste ezaugarria, haundia dela. Sustrairen arabera, «ehun megawatt inguruko instalazioa izanen litzateke». Orain arte Euskal Herrian 50 megawatt ingurukoak edo hortik beherakoak izan dira.

Udalek berririk ez

Proiektuaren berri izan ondoren, Goizuetako eta Aranoko alkateengana jo zuen Ttipi-Ttapak. Bai Unai Miranda Goizuetako alkateak, baita Joxan Ruiz Aranoko alkateak ere, biek adierazi zuten udalek ez zutela proiektuaren inguruko informaziorik hartu; jakin dutena prentsaren bidez ikasi dutela.

Mirandak kontatu duenez, «udalera ez da deus ailegatu. Abenduan partikular batek Eusko Jaurlaritza Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala tramitatzen ari zela jakinarazi zigun, eta besterik gabe, Mandoegi zentral eolikoa egiteko balizko kokapen horietako bat zela ageri zen, betiere Gipuzkoa aldetik». Baina hortik aparte, azken berriak «sorpresaz harrapatu» dituela onartu du eta gaiak «kezka» sortu diela.

Ruizek ere bide beretik jo du: «Ez dakigu deus proiektu honi buruz, ez dugu notifikaziorik ez deus hartu eta kezkagarria da». Horrekin batera «gardentasuna» eta «hausnarketa» eskatu ditu: «Halako makroproiektuak jasangarriak dira? Europatik datozen dirulaguntzekin egiten dituzte, baina zenbateko txikizioak eginda?». Zera gaineratu du; «energia berriztagarriak bai, baina ez horrelako makroproiektuak. Gurea defendatu behar dugu, gure mendiak, basoak, errekak eta espezieak».

Sustrai kezkatuta

Goizueta, Arano eta Hernani hartuko lituzkeen proiektua «irabazi asmoak dituen energia berriztagarrien eredu pribatua eta antidemokratikoa inposatzeko saiakeratzat» hartu du Sustraik. «Ez du hedapen berriztagarri horrek ez du gizarte premiei erantzuteko beharrezkoa den plangintza demokratikoarekin zerikusirik. Eta orain arte Nafarroan egindakoaren balantzea «kezkatzekoa eta aztoratzekoa» dela adierazi du: «Proiektuen hedapen desordenatuen ondorioz, laborantzako eta biodibertsitateko milaka hektarea galtzen ari dira». Bere hitzetan, «Nafarroako Energia Planean ezarritako instalazio berriztagarrien helburuak bete diren arren, instalatutako egungo potentzia bikoiztuko duten baimenak ematen segitu dute. Datu horrek talka egiten du Nafarroako kontsumo elektrikoaren urtez urteko beherakadarekin, energia fosilen kontsumoari eutsi eta $C0_2$ emisioak haunditzen diren bitartean».

«Nafarroako Gobernuaren miopia energetiko eta klimatikoa» kritikatu du, eta «isiltasun eta eztabaida politiko faltak, multinazional energetikoak elikatzen dituela» gaitzetsi du. «Gehiengo sozialaren interesen eta lurraldearen jasangarritasunaren aurka» ari dela ere salatu du. «Lanean eta mobilizatzen segitzeko» deia egin du.

Mendialdeko pilota txapelketako finalak asteburuan Leitzan

Mendialdeko Binakako IV. Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da. Joan den asteburuan finalerdiak jokatzekoak zituzten, eta dagoeneko jakina izanen da zein izanen diren finalistak. Finalak asteburu honetan Leitzako Amazabal pilotalekuan jokatuko dituzte, larunbatean edo igandean, lerro hauek idazterakoan oraindik eguna zehaztu gabea baitzuten. Kadeteen, gazteen eta nagusien mailako finalak izanen dira, zehazki kadeteetan mailan bi kategorietako finalak jokatuko dituzte, gazteetan bat eta nagusietan beste bi. Goizuetako Umore Ona, Leitzako Aurrera, Larraun eta Araxes pilota eskolek Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Pilota Federazioaren laguntzarekin antolatu dute txapelketa.

Eskolen arteko topaketa urrira atzeratu dute

Normalean maiatzean elkartu izan dira Aresoko Nazabal, Goizuetako Andres Narbarte Xalto eta Leitzako Erleta eskoletako ikasleak eta gurasoak, eskolen arteko topaketa egiteko. Aurten, ordea, urrira atzeratu dutela jakinarazi du Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak.

Mendialdeko Azoka Ibiltariaren bigarren hitzordua Arruitzen

Denboraldi honetako bigarren Mendialdeko Azoka Ibiltaria maiatzaren 14an Arruitzen (Larraun) eginen dute. Egun berean, latxa arrazako ahari genomikoen enkantea eginen dute. Horren ondotik, ekainaren 3an Goizuetak hartuko du lekukoa.

Baztan aztergai duten proiektuak

Baztanen bizi diren hiru gazte dira Anne Garmendia, Aroa Urteaga eta Beñat Verde, eta haien bizilekuan oinarritutako lan bana eginen dituzte ikasketak akitzeko. Udalak proiektu hauek sustatzeko beka deialdia egin du bertze behin, eta hiru elizondoarrak izan dira aurten saridunak

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Duela zazpi urte abiatu zuen Baztango Udalak bailararekin zerikusia duten ikasketa akaberako lanak eta proiektuak diruz laguntzeko beka. Geroztik, hamaika lan saritu dituzte 500 euroko dirulaguntzarekin. Ekimenaren helburua argi dute: «Baztango ikasleen artean Baztani eta Baztango geroari buruzko kezka eta interesa piztea, eta beraiek egin beharreko lanak edo proiektuak helburu horretarako egitea».

Aurten hiru lanek lortu dute beka: Anne Garmendia, Aroa Urteaga eta Beñat Verde elizondoarrak izan dira saridunak, eta urtebeteko epea dute haien lanak aurkezteko.

Garmendia Haur Hezkuntzako Irakasle graduko ikaslea da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Adingabeek familia barnean pairatzen dituzten tratu txarren azterketa egiten ari da, Baztango hainbat departamenturen arteko koordinazioa ikertuz eta protokolo bat garatuz.

Urteaga Sorkuntza eta Diseinuko gradua egiten ari da Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultatean. Baztango herriak irudikatuko dituen grabatu bilduma bat sortzea da bere lanaren helburua, bailarako historia eta tradizioak modu grafikoan bilduz.

Azkenik, Verde Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritza ikasten ari da Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Onddoek eragindako eritasunekiko tolerranteak diren mahastien azterketan datza bere lana, eta Baztanen mahastizaintzak eta ardogintzak duen potentziala ere ikertuko du.

Hamaika dirulaguntza

Hauek dira orain arte beka lortu duten lanak: *Turismoa Baztanen*; *XVII-XVIII. mendeetako goi-mailako etxeen tipologia*; *Mutil-dantzak eta emaztekien parte hartzea*; *Baztango haur eskolaren proiektu pedagogikoa*; *Amaiurko euskararen berezitasunak*; *Emakume etorkinen egoera*; *Baztango nekazaritza XVI. mendetik XVIII. menderat*; *Baztango turismoa iraunkorra al da?*; *Baztango kaparetasun unibertsalaren bilakaera*; *Anizko Jauregia esnekietarako postretarako esneki berri baten diseinua*; eta iazkoa, *Autokontsumo partekaturako potentzialitate fotovoltaikoaren azterketa Berroetan*.

«Adingabeen tratu txarrez ez da behar bezain bertze mintzatzen»

ANNE GARMENDIA ZUBIKOA HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLE GRADUA

24 urteko elizondoarra da Anne Garmendia, Haur Hezkuntzako Irakasle gradua akitzen ari dena. «Ez dut betitik argi izan irakasle izan nahi nuenik. DBH akitzean erdi eta goi mailako zikloak egin nituen, eta Haur Hezkuntzako goi zikloan ohartu nintzen hortan lan egin nahi nuela. Formakuntza sakontzeko gradua egitea erabaki nuen eta arras kontent nago. Zaila da hain gaztetatik etorkizuneko lanbidea erabakitzea eta bide luzea hartu dut, baina bide bera hartuko nuke behin eta berriz».

Gradua akitzeko, gazteek familia barruan bizitzen dituzten tratu txarren detekzio goiztiarra aztertuko du eta protokolo baten proposamena diseinatu du. «Arlo praktikorako, Baztango Gizarte Zerbitzuei, Foruzaingoari, Elizondoko pediatrei eta ikastolako irakasleei galdetegia pasako diet. Horrela, profesionalen ezagutzari eta haien arteko lan koordinazioari buruzko informazioa lortuko dut». Hain zuzen ere, «bertako departamentuen eginkizunak ezagutzeko eta hemengo haurrei laguntzeko» erabaki du lana Baztanen oinarritzea.

«Adingabeen familia barneko tratu txarrez ez da behar bezain bertze mintzatzen. Aunitzetan pentsatzen dugu gure herrialdean edo eskualdean ez dela horrelakorik gertatzen, eta gogorra egiten zaigu pentsatzea egia dela. Baina arazo larria da, eta guk uste baino gehiagotan gertatzen da».

Honen detekzioa hobetzeko, «ezagutza izan behar dugu; tratu txar motak, adierazle fisikoak edo jokabidezkoak… horrelako kasuetan gure esku-hartzea zein den jakin behar dugu, herritar, irakasle edo bertze edozein profesional gisa. Erakundeen arteko koordinazioa ere ezinbertzekoa da, haurrari kalitatezko laguntza eskaintzeko».

Marrazkien analisia ere landuko du; «baliabide baliotsua da haurren inguruko informazioa eskuratzeko, eguneroko bizipenak eta elkarrekintzak adierazten baituzte, eta haien nortasuneko ezaugarriak edo egoera emozionala antzemateko aukera ematen dute. Haurraren behaketa sakonagoa egitean, tratu txarrak pairatzen dituela frogatzeko aukera izan dezakegu».

«Gaiaz gutti solastatzen delakoz» erabaki zuen beka deialdira aurkeztea; «gaia plazaratzeko aukera paregabea da. Gainera, horrelako ekimenek Baztani buruzko ikerketak egitera bulkatzen gaituzte, lana errealitatetik hurbil egiteko aukera emanez».

«Baztan ikusten dudan moduan erakustea da lanaren helburua»

AROA URTEAGA AMIANO SORKUNTZA ETA DISEINU GRADUA

21 urteko elizondoarra da Aroa Urteaga, Sorkuntza eta Diseinuko ikaslea. «Ttikitatik izan dut artearen inguruko interesa, horregatik erabaki nuen gradua egitea. Gradu gehienak bezala, orokorregia da eta gustuko duzuna eskas gelditzen da, baina pozten naiz hartutako erabakiaz».

Gradu Akaberako Lanean, «Baztango herri bakoitzak dauzkan bi elementu nagusi irudikatuko ditut, 30 marrazki sortuz». Klasean teknika aunitz landu ditu, «eta proiektu honetan erosoagoa duzun teknika aukeratzea garrantzitsua da, hilabeteak iraunen dituelako». Horregatik erabaki du grabatu teknika erabiltzea, «konkretuki punta lehorra: azetatozko xafla lodi batean puntzoi batekin marrazten da, gero tinta botatzen da eta torkulu baten bitartez marrazkia paperean estanpatzen da». Hasmentan, «ez nekien ziur zeri buruz egin lana, baina Baztan hainbertze maite dudanez, argi nuen ez zitzaidala astuna eginen».

Hala ere, «marrazkiak egiteko prozesua errazena da. Zailago suertatu zitzaidan informazioa bilatzea eta herri bakoitzetik bi elementu aukeratzea».



«Bertzeek Baztan nik ikusten dudan moduan ikustea» du helburu, «bailarak dauzkan herri, auzo, eraikin, tradizio eta gune naturalak azpimarratzea. Izan ere, urteak joan urteak etorri, bailararen tradizioak eta historia galtzen doaz, eta hauek laburki biltzeko modua da».

Abenduan hasi zuen lana; «informazioa lortu eta lehendabiziko zirriborroak prestatu nituen, urtarrilean marrazki definitiboak aurkeztu nizkion tutoreari eta estanpazioekin hasi nintzen.Dosierra idazten ere aritu naiz. Ekainean entregatu behar dudanez, maiatzean akitzea espero dut».

Beka deialdia ateratzean ez zuen zalantzarik izan; «lana bai edo bai egin behar dudanez, ez nuen deus ere galtzen». Dirulaguntzak materiala ordaintzen lagunduko dio, «azetatozko xaflak eta estanpaziorako orriak ez baitira merkeak».

Gainera, «bekak gazteok Baztanekiko konpromiso haundiagoa erakusteko balio du. Niretako garrantzitsua da daukagun ondarea azpimarratzea, eta bailararen historia bizirik irautea nahi badugu, denok egin beharko genuke ekarpen ttiki bat. Gero eta ezagunagoa egiten ari da Baztan eta aunitzetan atzentzen dugu zein zoragarria den».

«Biztanleei kalitatezko elikagaiak helarazi ahal izateak motibatzen nau»

BEÑAT VERDE MUGIRO NEKAZARITZAKO INGENIARITZA GRADUA

«Beti ikasteko eta egunez egun hobetzeko prest» dagoen 21 urteko elizondoarra da Beñat Verde. Nekazaritzako Ingeniaritza ikasten ari da, «etorkizunean munduko biztanleei kalitatezko elikagaiak helarazteko helburuarekin lan egiteak aunitz motibatzen nauelako». Graduan, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren funtsak aztertzen dituzte: «labore bakoitzaren ezaugarriak eta nola landu, nekazaritza ereduak, abereen elikagai beharrak…».

Azkeneko urtea du aurten, eta Gradu Akaberako Lan gisa, «leku hezeetan mahatsa eta ardoa modu jasangarrian ekoitzi ahal izateko aukera frogatzea» du helburu. «Izan ere, onddoen eritasunak arras ugariak dira eta orain arte irtenbide bakarra produktu kimiko aunitz erabiltzea izan da, ingurumenerako batere osasungarria eta jasangarria ez dena. Horregatik, eritasun horiekiko toleranteak diren mahasti barietate batzuekin frogak egiten ari gara».

Bertzalde, Baztanek mahastizaintza eta ardogintzarako daukan potentziala aztergai du. «Momentuz ibilibide motza du, baina ematen ari diren pausoak handiak eta onak dira». Gainera, «nekazaritzan lurra zaintzea



ezinbertzekoa da eta aukera interesgarria da ekologikoan lan egitea».

Mahastiak aztertzeko prozesua luzea da; «otsailean, kimatzean, barietate bakoitzak ekoitzitako egurra neurtzen da; hori mahasti bakoitzaren kemenaren adierazle da. Martxoa hasieratik aitzinera, mahastiak ernatzen hasten dira eta astean behin joan behar da mahastia begiratzera, garapenaren zein egoeratan dauden ikusteko. Datu horiek antolatzea eta ondorioak ateratzea da lanik zailena».

Praktikak EVENAn egin zituen, eta bertan proposatu zioten Baztango ikerketa proiektua egitea. «Handik aste batzuetara beka deialdia atera zen, eta baldintzak bete nitzakeela ikusita, aurkeztea erabaki nuen». Dirulaguntzak «kotxez egindako joan-etorrien gastua apalduko du, eta langileago izateko motibazioa dakar».

Baztanek aitzinera egin dezan, «gazteok ikasketa maila ona izatea ezinbertzekoa da, gu baikara etorkizuna. Horrelako ekimenek ikasketekin gogotsu segitzeko indarra ematen dute. Ikasketak akitzear dauden guztiak norbere herriarekin erlazionatutako lanak egitera animatuko nituzke. Proiektu hauek eraginkorragoak dira eta onuragarriak egilearendako, bailararendako eta baita biztanleendako ere».

'Landa eremuaren defentsan' lelopean deitu zuten manifestazioa. R. OSKARIZ

Jendetza abiatu zen Antoniutti parketik joareak astintzen. R. OSKARIZ

2.000 lagun bildu dira Iruñean landa eremuaren defentsan

Erdiz Bizirik plataformak deitutako manifestazioak jendetza bildu zuen eta joare soinuz bete zituen hiriburuko karrikak

TTIPI-TTAPA IRUÑEA

2.000 lagun inguru bildu ziren Iruñean apirilaren 22an, Lurraren Nazioarteko Egunean, «gure lurra, bizimodua eta erabakitzeko ahalmena ukatu nahi digutenei, Nafarroako landa eremua bizirik eta indartsu dagoela errateko».

Magnesitas Navarras S.A. enpresak Erdizen egin nahi duen meategia «landa eremuaren kontrako eraso larria» dela adierazi zuten; «ez dugu onartuko proiektuak, bakar batzuk aberastearen truke, mendez mende eta belaunaldiz belaunaldi jasangarria izan den bizimodua desagerraraztea».

UGEPen zabaltzea «inposizioa eta bortxa oinarri dituen ideologiatik bakarrik ulertzen ahal da. Legealdiz legealdi, UPNk abiatutako inposizioa mantendu eta elikatu dute gibeletik etorri direnek. Behin eta berriz, tokiko erakundeen autonomiaren gainetik pasatuz eta herri galdeketak debekatuz. Modu honetan, herri lurrak ebasten dituzte multinazionalei oparitzeko, demokraziaz mozorrotutako kolonizazioa erabiliz».

Herri galdeketen debekua eta «beraiei interesatzen zaizkienak legeak bakarrik betetzea» salatu zuten; «Zilbetin Natura 2000 babesgunean egoteagatik legez kontrakoa zen proiektua Erdizen egin nahi dute, eremu berean dagoela jakinda. Behin eta berriz, inpunitate osoarekin hausten dituzte legeak».

Proiektua aitzinerat eramateak «Baztango tokiko ekonomian eragin ikaragarriak izanen lituzke bai nekazaritzan, turismoan, ingurugiroan, eta baita herritarren osasunean ere. Proiektu hau abiatu eta babesten dutenek Baztango lanpostuak eta herritarrak gutiesten dituzte nekazaritza eta landa eremuaren kontrako zapalkuntza areagotuz. Hiriaren eta hiriko bizimoduaren supremazismo honek, herri bezala dugun biziraupena arriskuan paratzen du».

Honengatik, «Nafarroako Gobernuari eta hau babesten duten alderdi guztiei erran nahi diegu, proiektu honen tramitazioa lehenbailehen gelditu eta herritarren iritzia errespetatzeko».

Adin guzietako herritarrek bat egin zuten aldarrikapenekin. R. OSKARIZ

Plataformako kideak adierazpenaren irakurketan. R. OSKARIZ

Marea arrosak Sarasate Pasealekua hartu zuen mobilizazio akabailan. R. OSKARIZ

Maiatzean ere ekitaldi kultural ugari Baztanen

Herritar guztiendako jarduerak izanen dira hilabete honetan Iruritan, Elizondon eta Arraiozen

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Zerbitzuak hilabeteko eskaintza kulturala bildu du bertze behin:

Maiatzaren 6an Kanta eta dantza ikuskizuna izanen da Iruritako pilotalekuan 19:00etan, Iruritako Dantzarien eta Koro Ttikiren eskutik.

Hilaren 7an, igandea, bertso saio musikatua izanen da Iruritako Gizarte Bilgunean 18:00etan. Iruritako gazteek eta Baztango Kultura Zerbitzuak antolatu dute hitzordua eta Julio Soto, Nerea Ibarzabal, Uxue Alberdi eta Maddalen Arzallus izanen dira kantari.

Maiatzaren 13an, larunbata, Iruritako erraldoiei ongi etorria emanen diete pilotalekuan goizean, Iruritako Dantzariek antolatua.

Maiatzaren 14an bailableak izanen dira Elizondoko plazan 12:30ean. Elizondoko Gaiteroek antolatu dute hitzordua eta muxikoak, jotak eta larrain-dantzak dantzatzeko aukera izanen da.

Hilaren 15ean, berriz, Komiki eta nobela grafikoen irakurle taldeak hilabeteroko bilera eginen du Baztango Liburutegi Publikoan 19:00etan.

Maiatzaren 17an, asteazkena, Zinegoak jaialdia Elizondon izanen da, zinema, kultura eta aniztasun lotzen dituen film laburren proiekzioarekin. Baztango Berdintasun Zerbitzuak azaldu duenez, «gero eta ohikoagoa da LGTBIQ+ edukiak dituzten pelikulak zinema komertzialetara ailegatzea, ez da gauza bera gertatzen, ordea, film labur eta dokumentalekin. Kulturaren bidez aniztasun eredua hedatzea eta herritar guztiei erreferenteak eskaintzea da helburua, urtero jaialdiak eskaintzen dituen ikus-entzunezko edukiak aprobetxatuz». 18:30ean Arizkunenean izanen da proiekzioa.

Azkenik, **maiatzaren 19an**, Baztan Kantuz ekimena Arraiozen izanen da. Kantatzea gustuko dutenek Laxoko plazan 12:00etan dute hitzordua, Baztango Kultura Zerbitzuaren eskutik.

Jon Iriarte arizkundarra Irlandan txapeldun

Jon Iriarte arizkundarra Irlandako Cork hiriko Dolphin RFC taldean aritzen da errugbian. Munster J2 ligako Mick Barry Cup txapelketan parte hartu dute aurten, eta kopa lortu zuten apirilaren 14an jokatutako finalean, Highfield taldearen kontra 14-33 irabazi ondotik. Zorionak!

UTZITAKOA

BAZTANGO UDALA

Espaloietako irisgarritasuna hobetzen

Udalak 11.000 euroko inbertsioa egin du Elizondon, «herritar guztien segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko». Herriko hainbat tokitan espaloien hozkak kendu dituzte zirrikadun aulkiekin edo haurren orgattoekin jaitsi eta igateko eta ibiltzeko zailtasunak dituzten herritarrak aisago ibiltzeko.

Almandozko harrobiaren zabaltzea baliogabetua

Herriaren errekurtsoa onartu dute, proiektuak ez lukeelako segurtasun neurria mantenduko kanposantuarekin

TTIPI-TTAPA

Canteras Acha S.A. enpresak Almandozko harrobia haunditzeko proiektua aurkeztu zuen 2020an, eta honen kontrako helegitea aurkeztu zuen Almandozko Herriak.

Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak helegiteari ezetza eman eta proiektua onartu zuen. Honen aitzinean, Almandozko Herriak eta Baztango Udalak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuten joan den urtean.

Errekurtsoan, bertzeak bertze, argudiatu zuten proiektuak ez lukeela kanposantuaren eremua errespetatuko. Izan ere, «harrobiek azpiegitura eta zerbitzu hauenganako 40 metroko distantzia minimoa mantendu behar dute, leherketa, bibrazio eta lur-jausiek sor ditzaketen kalteak ekiditeko».

Proiektuak ez ditu eraikintzat hartu kanposantua eta bertako etxola, gorpuen biltegi gisa erabiltzen dena. Beraz, enpresak ez du distantzia errespetatzeko beharrik ikusten.

Harrobia eta kanposantua. ONDIKOL

Hala ere, Departamentuaren azken erresoluzioan, Mikel Irujo Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak herriaren errekurtsoa onartu du eta kanposantua eta gorputegia eraikintzat hartu ditu. Beraz, kanposantua proiektuaren elementu mugatzailea izanen litzateke eta segurtasun distantzia mantendu beharko litzateke, proiektuaren onarpena baliogabetuz.

XXIII. Ahari Lehiaketaren saridunak Merkatuko zelaian. ONDIKOL

Giro euritsua baina ederra izan dute Elizondoko Udaberriko ferian

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Udaberriko Feria ospatu zuten Merkatuko plazan apirilaren 14eko goizean. XXIII. Ahari Lehiaketa izan zen, eta latxa arrazako 44 buruk parte hartu zuten.

Antxu ahari mutur beltzetan Oronozko Kontxi Bertiz izan zen garaile, eta Iruritako Blanca Bikondoa eta Miguel Angel Maritorena bigarren eta hirugarren. Mutur beltzeko aharietan, berriz, Miguel Angel Maritorena izan zen txapeldduna, Begoña Etxalar almandoztarra bigarrena eta Kontxi Bertiz hirugarrena. Mutur gorrietan, berriz, antxu aharietan Nerea Mortalena arraioztarra izan zen garaile, eta Arizkungo Arkaitz Gamiok lortu zituen bigarren eta hirugarren postuak. Ahariei dagokienez, Sagrario Urrotz arraioztarra izan zen lehenbizikoa, Nerea Mortalena bigarren eta Julen Elizetxe amaiurtarra hirugarren.

Dantzariek ikuskizuna eman zuten.

Lehiaketaz gain, bertako artisau eta produktuen azoka izan zen, eta Baztango Dantzariek ikuskizun ederra eman zuten txistulariez lagunduak. Eguerdian, Autxitxiko Ramon Agirre gasnagileak urteko ardi gasna moztu zuen, eta aurten erretiroa hartuko duenez, Otondo alkateak opari bat egin zion gasnagintzara eskainitako urte guziengatik.

ANZABAL
inmobiliaria
• Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
• Gestoria
• Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
• Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
• Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

DESINBERA
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK · HEGAZTIEN KONTROLA
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
LAPIDAK
PANTEOIAK
HILERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
GARBIKETAK
HARRI ZIZELKATZEA
ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

Berroetako VI. Mendi Lasterketa maiatzaren 14an

Izen ematea zabalik da dagoeneko *herrikrosa.eus* webgunean eta 22 euro ordaindu beharko dira

TTIPI-TTAPA

Berroetako Mendi Elkarteak VI. Mendi Maratoi Erdia antolatuko du aurten maiatzaren 14an. Bi ibilbide egiteko aukera izanen da, luzea Saioaraino, 21 kilometro eta 1275 metroko desnibelarekin eta motza 15 kilometro eta 737 metroko desnibelarekin.

Irteera eta helmuga herrian egonen dira, 08:00etan banatuko dituzte dortsalak eta 09:00etan hasiko da lasterketa.

Izena emateko 22 euro ordaindu beharko dira eta gehienez ere 300 lasterkarik parte hartzen ahalko dute bi proben artean. Interesatuek *herrikrosa.eus* webgunean eman dezakete izena.

Iazko irabazleak. ARTXIBOTIK

III. Señora Sariketa bertso txapelketa Erratzun izanen da maiatzaren 13an

TTIPI-TTAPA

III. Señora Sariketa martxan da, eta Baztanen ere izanen dugu bertsoak aditzeko aukera. Bigarren kanporaketa Erratzuko Elkartean jokatuko da, maiatzaren 13an 17:00etan. Sarrerak *bertsosarrerak.eus*-en daude salgai 8 eurotan.

Aroa Arrizubieta Barredo, Maddi Sarasua Laskarai, Idoia Granizo Uribarrena, Janire Arrizabalaga Munduate, Eli Pagola Apezetxea eta Iruri Altzerreka Martinez bertsolariak ariko dira kantuan, eta Ane Ezenarro Beristain izanen da gai jartzailea.

UTZITAKOA

Akelarre kulturgunea aurkeztu dute

Apirilaren 20an Akelarre kulturgunea aurkeztu zuten Elizondon. Liburuak, jostailu hezitzaileak eta bertako produktuak dituzte salgai, «baina kulturgunea izateko asmoa dugu; solasaldiak, liburu aurkezpenak eta mahai-inguruak eginen ditugu, eta denborarekin zine alternatiboko emanaldiak egin nahi ditugu».

UTZITAKOA

Ecolabel zigilua Markulluko Bordari

Europar Batasunak Ecolabel zigilua eman die Elizondoko Markulluko Borda apartamentu turistikoei. Maxux Goñi jabeak azaldu duenez, «modu jasangarrian lan egiten dugula ziurtatzen du, ingurugiroa, gastu energetikoa eta tokiko kultura eta bizimodua zainduz. Momentuz, Nafarroan hiru gara».

asegi asesorías
Zergalan
• Kontabilitate zerbitzuak
• Zerbitzu fiskalak
• Lan-aholkularitza
• Aholkularitza juridikoa
• Herentzia eta Testamentuak
• Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
• Datuen babesa
• Mugaz bertze aldeko aitorpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)
www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com
Baztanberri plaza, 6 · 31700 ELIZONDO · T. 948 581 300 · F. 948 580 648
Eztegara pasealekua, 22-1 · 31780 BERA · T. 948 631 108
Eliza Karrika, 22 · 31740 DONEZTEBE · T. 948 450 395 · F. 948 451 304
Eltzeta, 20 · 31770 Lesaka · T. 948638077

ZUGARRAMURDI

Oraindik bide zaharrera sartzeko tronpatzeko arriskua dago. MARIFA ETA KORO

Sarako lezeetarako Pottoka Bidearen zati berria edeki dute

Marka berriak emanak dira, baina bat baino gehiago tronpatu omen da eta hesi gainetik pasatu behar izan du

MARIFA ETA KORO

Edeki dute Sarako lezeetara doan Pottoka Bidearen zati berria. Orain, Sarabidetik hasi beharrean, Palazioko borda aitzineko bidetik hasiko da, Beretxeko borda aldera sartu, Artosingo erreka gurutzatu, eta Narkoneko bordako bide zaharretik segituko du.

Marka berriak emanak dira, baina, diotenez, oraindik bide zaharrera sartzeko tronpatzeko arriskua dago, eta bat baino gehiago trabatua egon omen da, eta hesiaren gainetik pasatzen ibili behar izan omen du.

Seinale berriak.

Gauza guziekin bezala, denborarekin ikasiko du jendeak bide berria ere, lehen bezala, bisitariek aunitz erabiltzen duten bide zinez zoragarria baita.

Abentura mitologikoan jolasean.

Abentura mitologikoan murgiltzeko aukera lezean

MARIFA ETA KORO

Martxotik honat jarduera berri polit bat eskaintzen dute lezean: abentura mitologiko bat. Funtsean, familia osoari euskal mitologiaren munduan moduludiko eta kooperatiboan murgiltzeko aukera emanen dion heziketa jarduera da.

«Zugarramurdiko biztanleak larri dabiltza eta zure laguntza behar dute ekaitzak uxatzeko». Horretarako, koaderno magiko bat eta kokapen mapa bat erabiliz, leze barnean pista joko bat diseinatu dute eta hori segitu behar dute Basajaun, Tartalo eta bertze izaki mitologikoen bila ibiltzeko. Gure kultura eta natur ondarera hurbiltzeaz gain, ingurunea zaintzeaz kontzientziatzeko jarduera da.

SENPERE

Bildotsaren Eguna ospatuko dute maiatzaren 7an Senperen

JL BESSONART SENPERE

Bildotsaren Eguna ospatuko dute maiatzaren 7an Senperen, egitarau zabalarekin. Egun osoan, ekoizleak, eskulangileak eta merkatariak izanen dira Karrika Nagusian. 09:30ean hasita, frontoian koka eta pintxo lehiaketa eginen dute eta bildotsa prestatzen erakustaldia eginen dute Ainhoako Ithurria jatetxeko Martin Isabal eta Donostiako Aratz jatetxeko Xabier Zabaleta Kortazar sukaldariek. 11:00etan lehiaketako sariak jakinaraziko dituzte. Mugaz gaindiko topaketa gastronomikoan Rafa Gorrotxategi txokolategileak eta bertako produktuak eta euskal sukaldaritza sustatzeko Jakitea elkarteko Xabier Zabaletak berak parte hartuko dute.

Eguerdian hasita, Nicolas Dokhelar artzainaren artzain zakurren erakustaldia eginen dute. 12:30ean joaldunak aterako dira eta 13:00etan bazkaria izanen da. Bazkalondoan, frontoian, 15:30ean Zirikolatz dantza taldeak emanaldia eginen du. 16:30ean, lehen aldiz, euskal pentatloia izanen dute Senperen, Herri Kirolari Bai elkartearen eskutik. Xabier Zaldua eta Aratz Mugertza *Mugertza III.a* ariko dira, 100 kiloko harri borobila hamar aldiz altxatu, Antzuzelaiko 406,5 kiloko harriarekin giza proban plaza bat egin (28 metro), aizkorarekin bi enbor moztu, 50na kiloko txingekin hiru plaza egin eta kilometro bateko lasterkaldia egin beharko dute. 18:00etan taloak eta dantzaldia izanen da Hauspolariek taldearekin. Egun osoan animazioa izanen da txarangarekin, zaldiak, traktoreak eta antzinako nekazaritza tresnak, haur jokoak eta Saint Cristophe lizeoko amuarrainak…

Karpa muntatu eta hasi da bestetako "usaina" sumatzen. ARANTXA ETA IRAIA

Hasiak dira Salbatore besten prestaketa lanekin

Zozketarako boletoak saltzen ari dira eta asteburu honetan aritu dira karpa montatzen auzolanean

ARANTXA ETA IRAIA

Hurbiltzen ari dira herrian hain garrantzitsuak diren datak: herriko bestak. Halere, egun pollit hoietaz gozatu aitzin lan ere egin behar denez, herritar guztiak buru belarri ari dira lanean. Horretarako, boletoen salmenta martxan paratu da. Urteroko gisan hainbat herritar boletoak saltzen ari dira, sari potoloak irabazi ahal izateko: lehen sari gisa bi pertsonendako asteburu pasa bat proposatu da. Bigarren saria Elgorriagako bainuetxean bi pertsonendako zirkuitua eta hirugarren saria urdaiazpiko eder bat izanen da. Hortaz, sariren bat lortu nahi duenak txartelak erostea bertzerik ez du!

Horretaz gain, karpa muntatzeko eta herria apaintzeko apirilaren 29an eta 30ean auzolana izan zen. Herritar andana bat hurbildu zen eta karpa muntzatzeaz gain, goiz erdian gosari eder bat izan zen berriz ere indarrak hartzeko. Hortaz, azken xehetasunen faltan, herria prest dago herriko bestetarako!

Ttipi-Ttaparen hurrengo zenbakian emanen dugu egitarauaren berri.

Ardoaren Azoka egin dute aurten ere Dantxarinean

Bertze urte batzuetan bezala, aurten ere ardoaren azoka antolatu zuten Dantxarinean. Apirilaren 15etik 23ra ardo eskaintza bereziak izan ziren benta guztietan. Mugaren bertze aldean bakantzak zituztela eta, jende andana bertaratu zen egun horietan.

Ardo eskaintza zabala izan da.

Jendetza espero dute maiatzeko bigarren igandean Senperen. ARTXIBOKOA

'Urratsak zubi', maiatzaren 14an ospatuko da 40. Herri Urrats Senperen

TTIPI-TTAPA SENPERE

Aurtengo Herri Urrats jaialdia berezia izanen da. Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko besta haundiak 40 urte beteko ditu 2023 honetan eta urteurrena «euskal jendarte guztiarekin» batera ospatu nahi dute. Ohi bezala, maiatzeko bigarren igandean izanen da aurten ere Herri Urrats, hilaren 14an.

Urratsak zubi aukeratu dute, berriz, lema gisa, bestaren izenarekin hitz-jokoa osatuz. Herri Urratsek azken 40 urteotan «zubi lan handia» egin duela aldarrikatu dute antolatzaileek, «bai Iparraren eta Hegoaren, bai eta euskararen eta jendartearen artean ere». Logoan ere «egindako ibilbide emankorra azpimarratu» nahi izan dute eta Herri Urrats hitzak 40 zenbakiaz lagunduta agertzen dira. Kantua eta bideoklipa Su ta Gar musika talde eibartarrak egin du.

Bestaz gain, aldarrikapenak plazaratzeko eguna ere izanen da Herri Urrats. Lehengo urtetik Brebeta eta Baxoan azterketak euskaraz egiteko eskubidea defendatzen dabil Seaska.

Aurtengo Herri Urrats ospakizunaren inguruan bildutako dirua Senpereko kolegioa finantzatzeko erabiliko du Seaskak, Ipar Euskal Herriko bosgarrena izanen dena. Pasa den abenduan hasi zuten eraikuntza prozesua eta irailerako prest izatea aurreikusi dute. Printzipioz, seigarren mailako bi talde eta bosgarren mailako bertze bi talderekin hasiko dute 2023-2024 ikasturtea, 80-85 ikaslerekin; baina ondoko urteetan hirugarren eta laugarren mailako gelak irekiko dituzte «progresiboki».

Auzapeza eta erretorea erdian, beilalekuaren bizkar bestan. GANEX

Beilaleku berriaren bizkar besta jendetsua egin dute

Apirilaren 15ean egindako ekitaldia baliatu zuen herriko etxeak langileak eskertzeko

GANEX

Apirilaren 15ean egin dute beilatoki berriaren bizkar besta. Battite Laborde auzapezak, eskuaraz, denei ongi etorria eman die. Jende aunitz bazen, zeren lanean aritutako guziak edo gehienak hor ziren, bai saratarrak, bai iparraldeko bertze herrietatik, baita hegoaldeko herri batzuetatik etorriak ere.

Jean Elizagarai erretoreak benedikazioa eman du. Auzapezak erran duen bezala, leku hau ez da giristinoentzat bakarrik, baina denentzat eta hori arras ongi atzematen du: leku eder honetan familiek, goxotasunean, egin dezatela beraien azkeneko bisita, ondoko hilerrira joan aitzinetik.

Egun hori baliatu du Herriko Etxeak langileak eskertzeko, baita herriko su-hiltzaileak eta Berakoak ere, Larhungo eta Ibanteliko mazeletan sua zelarik itzaltzeko lanean aritu baitziren. Zeren Labordek erran duen bezala, horrelako egunetan denen beharra bada eta kontent, norbait izatea, eta auzokoak ere ongi etorriak izaten dira. Ondotik, herriko enplegatuen atelierrean, aperitifa eta zikiroa izan zuten.

3.405.327 euroko buxeta onartu dute herriko kontseiluko 23 hautetsiek

Herriko etxeko kontseiluko 23 hautetsiek bozkatu dute urteko buxeta, 3.405.327 eurokoa. Aurrekontu horren barrenean dira elkarteen dirulaguntzak (40.864 euro), Olhain ikastolarena (41.548 euro) eta Saint Josepe eskolarena (68.715 euro). Tasak joan den urteko mailan atxikiko dituzte, % 22,96 lurralde-ekarpena, baina bigarren etxebizitzarentzat % 8,04. Katrin Scheil-ek portuko lan lekuko gela utzi du maiatzaren lehenean eta Bolanjeberriko gela errentan eman diote Marie Pierre Etxeberriari.

Aulkia errebotearen gaineko aldean.

Bertze aldetik, Aragoatz xuberotarrak aulki eder bat eman du plazako erreboteko gaineko aldean eta orientatzeko makina bat ere emanen dute igerilekuaren gibelean.

GANEX

Besta Komitearen bazkaria Azketan

Besta Komitean ari den gazteriak apirilaren 22an egin du bere bazkaria Zugarramurdiko Azketa jatetxean. Gomitatua zituzten borondateko jendeak, bestetako jokoetaz, pilotaz eta indar jokoez okupatzen direnak. Denera 30 bat lagun baziren eta jateko eta edateko ederrak izan zituzten.

Peio Erramousperen Haira proiektuaren diskoa aurkeztuko dute maiatzaren 7an

TTIPI-TTAPA

Usopop disko etxeak maiatzaaren 5ean karrikaratuko du Peio Erramouspe saratarrak gidatzen duen Haira taldearen *Laupabortz Aire Ttipi* diskoa. Lan honen aurkezteko, Sarako Suharriaga parkean kontzertua antolatu dute maiatzaren 7an, igandean 19:00etan. Sartzea 8 euro kostako da. Hairarekin batera, Donostiako Ghau pop taldea eta Pariseko Belvoir electro-rock taldea izanen dira eta gaztetxean DJak ere ariko dira.

Peio Erramouspe Sarako musikari multiinstrumentista da. Moï Moï kolektiboaren baitan eman zituen lehen urratsak, ekoizle eta musikari elektroniko gisa, Elorn izenpean. Bere ibilbideko lehen urteetan bere marka ezarri zuen hainbat proiektutan, bai rock (Polygorn, Radiator, Fusible) baita elektro eta trad ere (Maïrü, Samatsa…). Artista polifazetikoak gaur nortasun berri bat aldarrikatzen du: Haira.

Peio Erramouspe, Haira.

Zarena Zarelako dantza taldearen 'So Egin' ikuskizun harrigarria. JL BESSONART

Kultur Topaketen Garaiak amaiera borobila izan du

Zarena Zarelako dantza taldearen eta Andoni Oilokiegiren emanaldien ondotik, zintzur-bustitzea izan zuten

JL BESSONART

Apiril erdiko asteburua gailurraren idurikoa bilakatu da. Ortziralean Arnaud Demanche umoristak gaitzeko ikustaldia proposatu du. Larunbat goizean, Country dantzariek ezin hobeki animatu dute Herriko etxeko plaza, ikusle anitz bilduz. Arratsean, aldiz, Larreko kulturgunea leporaino betea zen Zarena Zarelako dantza taldeak aurkeztutako *So Egin* ikusgarria deskubritzeko. Ikusleak harriturik gelditu dira, gutaritako dantzari xumeek zer koregrafiak azaldu dituzten, Lazkano ama-alabek zuzendurik. Honen ondoko kontzertuak, lorietan ezarri ditu parte hartzaile guziak, Andoni Oilokiegik sekulako errezitala eskaini du, bere ahots miresgarriarekin. Igande goizean, Mutxikoek bururatu dute hamabostaldi kulturala, Larrekoko atarian, zintzur-bustitze batekin. Herriko-etxeak eskainitako hamabostaldi kulturala, zinez aberatsa bilakatu da.

Maiatzean segida izanen du kultur egitarauak Larrekon. Hilaren 11n, ortzegunean 19:30ean *La révolution* antzezlana eskainiko dute.

JL BESSONART

Trinketean bi txapel

Trinketeko finalak esku-huska iragan dira Urruñan apirilaren 15ean. Umetxoak A mailan, Iban Barrenetxe-Astigarraga eta Odei Larreboure-Bonnet (argazkian) eta gaztetxoak 1. mailan Julien Haroçarene eta Iban Etxeberri txapeldun izan ziren. Kimuak A mailan galdu egin zuten Lasseguette eta Amestoyk.

JL BESSONART

Iraupen lasterketa zaldiz

Zaldizko Iraupen lasterketa bereziak aintzira zuen abiapuntu baita helmuga ere, apirilaren 15 eta 16an. Uztaritzeko oihana zeharkatuz Zuraide, Ezpeleta, Ainhoa eta Dantxarineko mendixketan gaindi pasa dira berriz lakura itzuli aitzin. 65na kilometro egin dituzte bi egunez, 1.400 mko desnibelarekin.

Union Basque pilotako Joko-Garbiko finalak

Gaztetxoetan gure bikotea, Julen Fagoaga Julen eta Matiu Trounday garaile hendaiarren kontra, 40-26. Umetxoetan, Senpereko bi bikoteak finalean ziren: Iban Fagoaga eta Luken Trounday irabazle Gilen Iciaga eta Odei Larreboure-Bonnet-en aurka, 40-26.

IREKI
LEIHOAK
Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC
Itxidurak | Berandak | Toldoak
Barandak | Persianak
T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com
www.irekileihoak.com

Emakumezkoen podiumean bi beratar, Maddalen Jimenez eta Ane Eltzaurdia. Ondoan, gizonezkoen podiuma. A. AGIRRE

Ariznabarreta eta Urrutia garaile Beran 17. mendi lasterketan

491 kirolarik parte hartu zuten apirilaren 16ko proban eta horietatik 458k lortu zuten helmugara ailegatzea

TTIPI-TTAPA BERA

Manttale mendi lasterketa taldeak antolatutako Berako Mendi Maratoi Erdiaren XVII. edizioa apirilaren 16an jokatu zen. Gizonezkoetan zortzigarrenez nagusitu zen Oier Ariznabarreta, eta emakumezkoetan Ainara Urrutiak lortu zuen lehen postua bere lehen parte hartzean. Guztira 491 korrikalarik hasi zuten lasterketa, eta horietatik 458 ailegatu ziren helmugara.

Ordu bete, 41 minutu eta 39 segundoko denbora eginda lortu zuen Oier Ariznabarreta durangarrak bere zortzigarren garaipena. Beñat Katarain eta Imanol Kañamares izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. Ariznabarreta lehenengo metrotik gailendu zen lasterketan, eta Larhundik, ibilbideko punturik altuenetik pasatzean, 4 minutuko aldea ateratzen zion bigarren sailkatuari.

Emakumezkoetan, Ainara Urrutia ere erraz nagusitu zen bere lehenengo lasterketan. Bi ordu, 4 minutu eta 36 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Gibeletik, hamaika minutura bi beratar sailkatu ziren, Maddalen Jimenez bigarren eta Ane Eltzaurdia hirugarren.

Taldeka Hiru herrik irabazi zuen lasterketa. Eskualdeko lasterkariei dagokionez, gizonezkoetan Aimar Otxoteko lesakarra izan zen eskualdeko lehen gizonezkoa 11. postuan.

ZORTZIGARREN ALDIZ IRABAZI DU BERAKO PROBA ARIZNABARRETAK

Emakumezkoetan, bigarren sailkatu zen Maddalen Jimenez beratarra izan zen eskualdeko lehen emakumezkoa.

Giro ederra izan zen lasterketan, eta jende aunitz bildu zen bai helmuga puntuan, eta baita mendian ere lasterkariak animatzeko.

Berako lasterketa Euskal Koparako puntuagarria zen, eta hiru lasterketa jokatuta, Ainara Urrutia eta Beñat Katarain dira liderrak.

Gazteak ere bikain

Gaztetxoentzako eta haurrentzako lasterketa ere egin zituzten. Gazte Trail 10 kilometroko ibilbidean eskualdean gelditu ziren garaipenak. Mutiletan, Manex Etxeberri-Pacheco saratarrak irabazi zuen 47 minutu eta 14 segundoko denborarekin. Bere atzetik sailkatu ziren Unax Hernando eta Eder Tapia. Nesketan, berriz, Manttaleko Oihana Arruti lesakarrak irabazi zuen 57 minutu eta 29 segunduko denbora eginda, Maddi Lizarragaren aitzinetik. Infantil eta kadete mailakoentzako Txiki Trail lasterketan, aldiz, infantiletan Victor Fernandez eta Saioa Cenoz izan ziren irabazleak, eta kadetetan Julen Badiola eta Lide Etxarri.

BERAKO MM ERDIA

11.Aimar Otxoteko-Lesaka 1.49.52
12.Jokin Arretxea-Narbarte 1.49.53
16.Alberto Barberena-Baztan 1.54.00
26.Dani Iparragirre-Arantza 1.57.31
29.Mattin Gonzalez-Lesaka 1.58.47
50.Beñat Saralegi-Lesaka 2.02.52
51.Aitor Erdozain-Bera 2.02.53
52.Angeltxo Aranibar-Bera 2.03.12
53.Joseba Lasarte-Bera 2.03.13
54.Iñigo Lasaga-Bera 2.03.14
58.Xuban Eugi-Elizondo 2.04.19
64.Beñat Saralegi-Leitza 2.04.55
65.Xan Lahetjuzan-Sara 2.05.09
66.Xabier Telletxea-Igantzi 2.05.14
67.Adur Yanci-Igantzi 2.05.17
68.Mikel Urtxegi-Igantzi 2.05.33
75.Aitor Begino-Igantzi 2.06.39
77.Iker Gonzalez-Igantzi 2.06.52
78. Iñaki Telletxea-Elizondo 2.07.15
81.Xabier Garmendia-Bera 2.07.51
85.Mathieu Gachen-Sara 2.08.21
86.Gorka Urtasun-Irurita 2.08.34
88. Unai Elizagoien-Bera 2.08.59
94.Julen Oskoz-Arantza 2.09.49
96.Mikel Eltzaurdia-Bera 2.10.07
106.Igor Agesta-Sunbilla 2.11.41
118.M.Angel Iñarrea-Irurita 2.13.11
127.Mikel Unanua-Elizondo 2.14.34
131.Asier Iratzoki-Bera 2.14.50
135.Maddalen Jimenez-Bera 2.15.10
137.Gorka Bermejo-Leitza 2.15.15
140.Bittor Txantre-Bera 2.15.27
142-Ane Eltzaurdia-Bera 2.15.31
154.Aitor Mitxelena-Lesaka 2.17.34
155.Mikel Esnaola-Bera 2.17.43
164.Joel Oronoz-Lesaka 2.18.32
168.Josema Iriarte-Bera 2.18.54
170.Jabier Iparragirre-Arantza 2.19.05
187.Aritz Fagoaga-Ituren 2.21.07
188.Markel Etxarte-Etxalar 2.21.09
189.Julen Aranburu-Etxalar 2.21.18
198.Julen Larretxea-Donezt. 2.22.15
205.Ainhoa Etxegarai-Bera 2.23.20
218.Julen Pikabea- Bera 2.25.44
225.Ion Etxebeste-Lesaka 2.26.06
255.Imanol Baraibar-Areso 2.30.32
256.Imanol Arretxea-Baztan 2.30.33
258.Aritz Adin-Baztan 2.31.13
293.Jone Olaetxea-Bera 2.36.13
305.Joseba Iriarte-Bera 2.37.20
307.Felix Alzate-Bera 2.37.20
310.Andoni Garbisu-Bera 2.37.38
318.Irene Almandoz-Bera 2.39.39
340.Antton Rodriguez-Bera 2.43.01
347-Klemente Suhas-Urdaz. 2.45.17
349.Rafa Alzate-Bera 2.45.58
364.Mikel Irigoien-Lesaka 2.48.27
366.Aitor Cerezo-Bera 2.49.17
368.Igor Pando-Bera 2.49.30
389.Carlos Pombar-Bera 2.52.50
396.Mikel Saenz-Leitza 2.54.19
402.Joseba Zabaleta-Bera 2.55.35
432.Teresa Igoa-Bera 3.02.23
434.Mikel Goienetxe-Bera 3.03.23
435.Aintzane Goienetxe-Bera 3.03.25
444.Miguel Azkarraga-Irurita 3.08.46
445.Guillermo Etxenike-Irurita 3.08.49
448.Asier Etxeberria-Lesaka 3.11.33
449.Garbiñe Hernandorena-Lei.3.12.06
450.Ainhoa Azpiroz-Leitza 3.12.07

Lujanbio, Azpiroz eta Aranguren, gizonezkoen podiuma. GURUTZE PIKABEA

Azpiroz eta Irigoien garaile Arantzako IV. mendi lasterketan

Hodei Lujanbio goizuetarra gizonezkoetan bigarren eta Ane Eltzaurdia beratarra emakumezkoetan hirugarren izan ziren

TTIPI-TTAPA ARANTZA

183 lasterkarik izena eman eta 155 lagunek bukatu zuten apirilaren 23an Ekaitza Elkarteak antolatutako Arantzako IV. mendi lasterketa. Gizonezkoetan Aimar Azpiroz, Hodei Lujanbio goizuetarra eta Jabier Aranguren osatu zuten podiuma eta emakumezkoetan Naiara Irigoien, Leire Fernandez eta Ane Eltzaurdia beratarrak. Xabier Zubieta Saria Ane Eltzaurdia beratarrarentzat eta Dani Iparragirre aranztarrarentzat izan zen.

20 kilometro

Helmugaratzen lehenbizikoa Aimar Azpiroz izan zen, ordu bat 43 minutu eta 34 segundotan osatu zuen ibilbidea. Hodei Lujanbio goizuetarra bigarren sailkatuak ordu bat, 44 minutu eta 57 segundo behar izan zituen eta podiuma osatu zuen Jabier Arangurenek ordu bat, 45 minutu eta 6 segundotan bukatu zuen.

Emakumezkoetan, berriz, Naiara Irigoien izan zen bizkorrena, ordu bat, 57 minutu eta 16 segundoko denbora egin ondotik. Leire Fernandezek bi ordu, 10 segundo eta 56 segundo behar izan zituen eta hirugarren izan zen Ane Elzaurdia beratarrak bi ordu, 14 minutu eta 6 segundo.

Sariei dagokienez, lehenbiziko emakume eta gizonezkoek 120na euro eta zapela; bigarrenek 80na euro eta hirugarrenek 50na euro hartu zituzten, baita lore sorta bana ere.

Ekaitzako kaskotik lehenbiziko pasatu ziren Bortzirietako lasterkariek Xabier Zubieta Saria hartu zuten. Dani Iparragirre aranztarrarentzat eta Ane Eltzaurdia beratarrarentzat izan ziren. Iparragirre ordu bat eta 47 segundoz ailegatu zen Ekaitzara. Eltzaurdia, berriz, ordu bat, 11 minutu eta 55 segundotan.

Sailkapen osoa: erran.eus

Josetxo Ezkurra Memorialaren finalak Donezteben larunbatean

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Josetxo Ezkurra zenaren omenez Erreka elkarteak hogeita hamabigarren urtez antolatutako eskuz banakako pilota txapelketako zazpi kategorietako finalak maiatzaren 6an jokatuko dituzte Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan. Larunbatean 09:30ean hasiko da jaialdia.

Benjaminak: Haritz Mauleon (Oberena) – Eñaut Zubieta (Bortziriak)
Alebinak: Erik Igoa (Bortziriak) – Ibai Arrieta (Lagunak)
Neska infantilak: Lide Lopez (Ataun) – Natale Aranburu (Lapke)
Mutiko infantilak: Julen Etxaniz (Oteiza) - Antimasberes (Lagunak)
Kadeteak: Jon Patxi Okiñena (Oberena) – Igor Nazabal (Oberena)
Jubenilak: Oier Zabaleta (Oiarpe) – Aritz Olaizola (Abantzu)
Seniorrak: Aimar Okamika (Lea-Ibarra) – Oier Larrañaga (Ilunpe)

UTZITAKO ARGAZKIA

Launaka lehen txapelak Beti Gaztek

Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako lehen txapelak Beti Gaztek jantzi ditu apirilaren 22an Txantrean. Emakumezkoen 255 kilokoan Amaiur bigarren izan zen eta Txantrea hirugarren (argazkian). Gizonezkoen 320 kilokoan, Berriozar eta Txantreak osatu zuten podiuma.

ARGAZKIA ETA TESTUA: JL BESSONART

Aurélien Gallo irabazle Senperen

SPUCeko bizikleta sekzioak Aviron Bayonnais elkartearen laguntzarekin, antolatu zuen 90 km-ko proba Senpereko aintzira gaineko errepideetan. Junior eta arteko mailako 75 ziklisten artean Aurélien Gallok irabazi du. Aviron Bayonnaiseko ziklista hori Team Iparralde-ko kide da.

AGENDA

MAIATZAK 4 - 18

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

ALICIA DEL CASTILLO

OIZ Malerrekako Eguna

Mendi martxa, musika, dantza, azoka, kalejira, paella jatea, mus txapelketa, haurrendako jarduerak…
Maiatzaren 13an, egun osoan.

SOLASALDIAK

LEITZA
'Gasteiz 1200' komikiaren aurkezpena
Iñigo Larramendi eta Aritz Ibarrarekin.
Aurrera elkartean, maiatzaren 16an, 19:30ean.

'Sendabelarrek dakitena' liburuaren aurkezpena
Garbiñe Larrearekin.
Herri Aretoan, maiatzaren 17an, 19:00etan.

'Krutwig eta gaurko ekonomia' liburuaren aurkezpena eta dokumentala
Baleren Bakaikoa eta Oskar Aranzabalekin.
Aurrera elkartean, maiatzaren 18an, 19:30ean.

ETXALAR
'Prebentzioa zure eskuetan'
Neli Iantzirekin.
Larraburuan, maiatzaren 13an, 16:30ean.

BERTSOAK

IRURITA
Bertso saio musikatua
Gizarte Bilgunean, maiatzaren 7an, 18:00etan.

LESAKA
'Anonyme popular' ikus-entzunezko bertsoak
Harriondoan, maiatzaren 7an, 19:00etan.

ERRATZU
III. Señora Sariketa
Elkartean, maiatzaren 13an, 17:00etan.

AZOKAK

DONEZTEBE
Udaberriko feria
Maiatzaren 5ean.

ELIZONDO
Baztango Artisauak eta Nekazariak
Plazan, maiatzaren 6an eta 13an, goizez.

BERA
Bidasoko euskara eta kultura azoka
Toki Onako patioan, maiatzaren 6an, 11:30etik 15:00etara.

Bertako ekoizleen merkatua
Beralandetan, maiatzaren 13an, 10:30etik 13:30era.

MUSIKA

LESAKA
Musika eskolaren kontzertua
Maiatzaren 5ean.

Abesbatzen topaketa
Maiatzaren 13an.

IRURITA
Kanta eta dantza ikuskizuna
Iruritako Dantzariak eta Koro Ttiki.
Pilotalekuan, maiatzaren 6an, 19:00etan.

LEITZA
'Txistua eta harria' emanaldia
Peru Harri museoan, maiatzaren 6an, 17:30ean.

SARA
'Laupabortz Aire Ttipi'
Peio Erramouspe 'Haira'.
Suharriaga parkean, maiatzaren 7an, 19:00etan.

ELIZONDO
Udaberriko kontzertua
Elizondoko Recreo Banda.
Braulio Iriarte frontoian, maiatzaren 7an, 19:00etan.

Bailableak
Plazan, maiatzaren 14an, 12:30ean.

BERTZELAKOAK

ETXALAR
V. Mendi Itzulia
Plazatik, maiatzaren 6an, 07:30ean.

LEITZA
Zinema
Herri Aretoan, maiatzaren 6an eta 7an. 16:30ean 'Oink-oink' eta 19:00etan '20.000 especies de abejas'.

'Winona&Grace' antzezlana
Herri Aretoan, maiatzaren 14an, 19:00etan.

Mendialdeko pintxo potea
Lopenean, Zortzikon eta Txokosferan, maiatzaren 5ean.

SENPERE
'La révolution' antzezlana
Larrekon, maiatzaren 11n, 19:30ean.

IRURITA
Herriko erraldoiei ongietorria
Pilotalekuan, maiatzaren 13an, goizean.

ELIZONDO
Zinegoak film laburrak
Arizkunenean, maiatzaren 17an, 18:30ean.

Nire aukera

«Entseguetan eta kontzertuetan giro ederra izaten dugu beti»

ARANTXA EZKURRA TELLETXEA MENDI ABESBATZAKO LEHENDAKARIA

Orain dela 30 urte etorri zen Ibarratik Doneztebera Arantxa Ezkurra, «lanean hasi nintzen, familia bat osatu nuen eta geroztik hemen nago». Bere lana «izugarri» gustuko du, «baita aisialdian kirola egitea eta abestea ere, eta ahal dudan asteburu guztietan familia bisitatzera joaten naiz Ibarrara». Doneztebeko Mendi Abesbatzan abesten du, eta 2017tik taldeko lehendakaria da.

Mendi Abesbatza

1996an sortu zen taldea, «orduan ni oraindik ez nintzen partaide, baina esan didatenez, urteak pasata taldea hobetuz joan da. Alde batetik, taldeko partaide zirenak esperientzia asko eskuratu dute. Bestalde, kultural musikala duten taldekide berri asko sartu dira eta laguntza haundia izan da taldearentzako».

Ezkurra duela zortzi urte sartu zen taldean; «beti gustatu izan zait musikaren mundua. 12 urterekin solfeoa, bandurria eta akordeoia ikasten hasi nintzen eta Tolosako akordeoilari orkestra batean ere egona naiz 8 bat urtez. Beraz, Mendi Abesbatzari buruz jakin nuenean atentzioa eman zidan eta probatzera ausartu nintzen».

Geroztik, «oso pozik nago taldean eta ez naiz inoiz damutu. Oso ongi pasatzen dugu entseguetan, kontzertuetan eta afarietan, giro ederra eta alaia baitago beti».

Taldeko lehendakari

Abesbatzako lehendakaria da Ezkurra duela sei urte. Hala ere, aitortu duenez, «nahiz eta lehendakaria izan, lan gogorrena Jon Irazoki zuzendariarena da. Lana bereziki zaila da, izaera eta gaitasun anitzeko talde oso bat zuzendu behar baitu. Gainera, bera da lehenik eta behin kontzertuetako kontratazioak antolatzen dituena, obrak prestatzen dituena eta entsegu guztien egitarauak osatzen dituena».

Juntako parte direnek, berriz, bertze ardurak dituzte: «kontratatzen gaituztenekin harremanetan jartzen gara akordioak egiteko, fakturak eta ordainketak egiten ditugu, bidaiak antolatzen ditugu eta urte guztiko kontuak eramaten ditugu, besteak beste».

Herriz herri abesten

51 lagunek osatzen dute abesbatza, 32 urtetik gorakoak, «eta denak gara ingurukoak, Malerreka, Baztan eta Bortzirietakoak». Astean behin elkartzen dira entseatzeko, «eta kontzertu edo emanaldiren bat dugunean entsegu gehiago egiten ditugu aste osoan».

«Eskatzen diguten lekura» joaten da taldea kontzertuak ematera, gehienetan asteburuetan, «eta toki askotan aritzen gara: elizetan, frontoietan, auditorioetan…».

Hala ere, urtero errepikatzen dituzten hainbat kontzertu dituzte: «Doneztebeko Eguberrietako kontzertua, Nafarroaren egunekoa, Emakumearen egunekoa eta herriko bestetan, adibidez. Bertzalde, urtean osoan hiruzpalau kontzertu izaten ditugu Nafarroako Abesbatza Federazioak antolatuak». Hauez gain, «bertze herrietatik kontratatzen gaituzte eta emanaldi berriak sortzen dira. Adibidez, pasa den urtean Donostiako Victoria Eugenia Antzokian emanaldi bat eman genuen eta EITBrekin ere hainbat aldiz egin ditugu kontzertuak».

«OSO POLITA DA GAZTEAK HAIN POZIK KANTATZEN IKUSTEA»

Aurten egutegi betea dute; «otsailean Arronizen abestu genuen Moreno Torroba musikariari egindako omenaldian eta apirilean Baluarteko kontzertu sinfonikoan parte hartu genuen. Ekaina inguruan Donezteben kontzertu sakro bat eginen dugu eta aurrerago Lantzen beste emanaldi eder bat aurkeztuko dugu».

Kontzertuetan «hainbat estilotan kantatzen dugu: abesti euskaldunak, elizakoak, sakro, boleroak, ingelesez, klasikoak, modernoak… gainera, gure partaideen artean hainbat musikari daude, tartean txistulariak, pianistak eta akordeoilariak, eta hauekin batera ere abesten dugu».

Etorkizunera begira

2018tik haurrek ere kantatzeko aukera dute Mendi Ttiki abesbatzarekin; «15 haurrek osatzen dute taldea eta gazte gehiago animatzea espero dugu». Eguberrietako kontzertuan helduekin abesten dituzte hainbat kanta eta irakasleak Mendi Abesbatzako kideak dira, «Ruth Etxebeste eta Itziar Irigoien». Beraz, etorkizunean abesbatzak segida izatea espero du Ezkurrak; «oso polita da gazteak hain pozik kantatzen ikustea».

Taldeari dagokionez, «geroz eta hobe abestea gustatuko litzaiguke eta horretan gabiltza beti. Ahots teknikako ikastaroetara joaten gara ia taldekide guztiak. Ikastaro hauek oso ezaguna den Jordi Freixak ematen digu, Koro Sinfonikoen zuzendariak».

Azkenik, «musikaren mundua gustuko duen jendea etortzera gonbidatu nahi dugu. Urteekin jendeak abesteari uzten dio eta taldekide berriak behar izaten dira. Denok zarete ongi etorriak!».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58 — www.erran.eus

744 48 43 61 — info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro**
Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAk ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Bi familiako etxebizitzan, bizitzetako bat salgai, Matzada futbol zelaiaren inguruan. Behean garaje bikoitza, txokoa, trastelekua, komuna, sukaldea eta dutxa. Lehenbiziko solairuan sukalde-jangela, egongela eta komuna... Bigarren solairuan hiru logela, bat haundia bere dutxarekin. ☎660 78 53 05 / 629 18 80 88.

ELIZONDO. Giltxaurdi karrikan pisu eguzkitsua salgai: 3 logela, jangela, balkoia, hall, bainugela (berritua) eta sukaldea (berritua). Bizitzera sartzeko prest. 105.000 euro. ☎676 88 83 35.

LANDAK. Azur herriko kanpin txiki batean dagoen 'mobile home' bat salgai. Kanpoan terraza bat eta barrenean egongela, sukalde hornitua, bi logela. Horietako bat 140 x 190 cm-ko ohearekin eta bestea 90 x 190 cm-ko bi oherekin eta 80x190 cm-ko beste birekin eta komuna. ☎610 62 70 59.

BERA. Kanttonberri karrikan 81m²ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Prezioa: 148.000 euro. ☎619 63 98 78.

EROSI

LESAKA. Herrigunean etxea edo apartamentua erosi nahi dute. Logela bat edo bikoa, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. 130.000 euro inguruan ordaintzeko prest. ☎679 42 36 07.

ERRENTAN HARTZEKO

LESAKA. Bikote bat pisu bila. ☎640 65 04 22 / 644 38 41 04.

ERRENTAN EMATEKO

ITUREN. Etxe bat errentan emateko. Bi logela eta bi bainugelarekin. ☎620 25 42 03.

LURRAK/ORUBEAK

ERRENTAN HARTU

BORTZIRIAK. Partikular batek baserria baratzearekin errentan hartuko luke. Seriotasuna eta fidagarritasuna bermatu nahi ditu. 800 eurora arte ordaintzeko prest. ☎657 05 04 43 (Jose Mª).

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

ELIZONDO. Akullegi karrikan 150 m²ko garajea salgai edo errentan emateko. Altura haundia du eta zati batean tarteko solairua ere badu. Inguru lasaia eta eguzkitsua. ☎649 446 732.

DONEZTEBE. 200 m²ko bajera salgai. ☎608 97 82 10.

LANAK

ESKAINTZAK

IBARDIN. Benta Gorrian eguerdiko zerbitzuan sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dute. Curriculuma bidali (*bentagorria@hotmail.com*) edo deitu. ☎618 00 27 31.

BERA. Ansonea jatetxean zerbitzaria eta sukaldaria behar dituzte lanaldi osoan aritzeko. ☎649 33 77 23.

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatetxean zerbitzari aritzeko langilea behar dute. Frantsesa pixka bat jakitea beharrezkoa da. ☎948 59 90 09 / 948 59 91 46.

IGANTZI. Irrisarri Landen garbiketako hiru langile, harrerako bi langile eta mantentze lanetarako bertze bi behar dituzte. Sukaldari eta zerbitzari bila ere ari dira. Bidali curriculuma *rrhh@irrisarriland.com* helbidera edo deitu. ☎948 92 89 22.

LESAKA. Lidera hortz klinikan higienista behar dute. Bidali curriculuma: *infolidera@hortzklinika.es*.

LESAKA. Iturbena kafetegian asteburuetan lanean aritzeko zerbitzaria behar dute. Interesatuak bertatik pasatu edo telefonoz deitu. ☎620 70 09 64.

ELIZONDO. Esarte harategian langile bat behar dute lanaldi erdian aritzeko, banaketa egiteko. ☎948 58 19 07.

ESKARIAK

Irakasle ikasketak egiten ari den neska gaztea ikasten ari den bitartean lanean aritzeko prest. Ikasketekin lotuta, umeak zaintzen aritzea gustatuko litzaioke. Astez lan egiteko moldatzeko prest, eta asteburuetan eta oporretan libre izanen litzateke. ☎677 24 85 00.

ELIZONDOko 15 urteko neska udan haurrak zaintzeko prest. ☎623 16 54 14.

Adinekoak zaintzen esperientzia duen emakumea zaintza lanetan ariko litzateke uztailetik aitzinera. ☎666 19 96 14

ANIMALIAK

SALGAI

BERA. Hiru ahari mutur hori salgai. ☎697 44 05 90.

OPARITZEKO

Border Collie eta artzain zakurraren nahasketa diren 2 zakurkume opari, txuri-beltzak. ☎690 15 46 44.

DENETARIK

SALGAI

Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

Egur idorra salgai, pagoa eta haritz amerikarra. Sutarako prest. Etxera eramateko zerbitzua eskaintzen da, lote osoa nahi izanez gero ere zerbitzu bera. ☎634 70 33 10.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg kanal

• Extra	5,34
• 1.koa	5,22
• 2.koa	4,79

Urruxak: €/kg kanal

• Extra	5,45
• 1.koa	5,31
• 2.koa	5,20

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak
• (15 egun ingurukoak).
Aretze mestizoak

• Urruxak	125,00
• Idixkoak	150,00

Aretze nabarrak

• Urruxak:	120,00
• Idixkoak	140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

• Sortu berriak:	5,30/5,40
• Zaldi-behorrak	2,52/2,69

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

• 6-8 kilokoak:	8,80/8,90
• 8-10 kilokoak:	6,90/7,60

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo):114 €
Zerri gizena 2,025 €
Zerramak 1,410€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

URTEBETETZEAK

Aiora Marin Berrueta etxalartarrak 3 urte bete ditu apirilaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta Izaroren partez!

Etxahun Olaetxea Zatok 13 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak Lesaka, Bera eta San Juango familiaren partez, eta muxu bat amatxi Mikeliren partez.

Aunitz urtez, **Ainhoa**! Bulegoko neska gazteak maiatzaren 13an urteak beteko ditu. Ongi ospatu zure eguna eta muxu haundi bat!

Elorri eta **Aiert Arotzena Portu** lesakarrek 12 urte beteko dituzte maiatzaren 6an. Aunitz urtez eta 12 muxu familia osoaren partez.

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senideak!

Internetez *http://erran.eus/zorionagurrak* helbidean sartuta.
Bulegoan eta postaz Koskontako bidea, 7-1·31770 LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.
Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira idatzita.

SORTZEAK

- **Louise Goni Suharrart**, Sarakoa, apirilaren 12an.

HILBERRIAK

- **Fermin Arrasate Lakoizketa**, Elizondokoa, martxoaren 29an, 80 urte zituela.
- **Arantxa Saldias Etxegia**, Doneztebekoa, martxoaren 30ean.
- **Segundo Elizalde Jaunarena**, Iturengoa, apirilaren 1ean, 86 urte zituela.
- **Miguel Jose Sukunza Sagastibeltza**, Goizuetakoa, apirilaren 3an, 77 urte zituela.
- **Giuditta Maddalosso**, Doneztebekoa, apirilaren 4an.
- **Nicolasa Colina Martin**, Berakoa, apirilaren 5ean, 83 urte zituela.
- **Santiago Aldako Aleman**, Elizondokoa, apirilaren 5ean, 80 urte zituela.
- **Jose Mari Sein Larretxea**, Igantzikoa, apirilaren 7an, 82 urte zituela.
- **Mertxe Erasun Ariztegi**, Iturengoa, apirilaren 8an, 70 urte zituela.
- **Miguel Mª Belarra Villanueva**, Doneztebekoa, apirilaren 8an, 88 urte zituela.
- **Jose Rafael Iantzi Elizondo**, Etxalarkoa, apirilaren 10ea, 92 urte zituela.
- **Martin Cruz Maia Gamio**, Elizondokoa, apirilaren 12an.
- **Eusebio Urroz Saldias**, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 12an, 93 urte zituela.
- **Maialen Errandonea Unsain**, Arantzakoa, apirilaren 14an, 74 urte zituela.
- **Manuel Reguera Fernandez**, Doneztebekoa, apirilaren 14an, 93 urte zituela.
- **Maria Luisa Aranburu Anzizar**, Doneztebekoa, apirilaren 14an.
- **Luciano Olano Arraras**, Leitzakoa, apirilaren 15ean, 74 urte zituela.
- **Jose Antonio Moreno Barriuso**, Goizuetakoa, apirilaren 16an, 72 urte zituela.
- **Mª Teresa Perurena Apezetxea**, Leitzakoa, apirilaren 18an, 88 urte zituela.
- **Miel Salaberria Eskudero**, Goizuetakoa, apirilaren 20an, 64 urte zituela.

URTEURRENA

Euxebio
IGOA MITXELENA

Lesakan, 2020ko maiatzaren 1ean
III. urteurrena

Bizitzan zehar gauza aunitz zuk
zenizkigun irakatsi
zuri hori guztia eskertzez ezingo dugu
inoiz ere utzi;
zuk gure bideak argitzen
a ze garrantzi
denborak aintzinera egin arren
matte zattugu atatxi.

ZURE FAMILIA

IRACHE
tanatorioak
Nafarroako familien zerbitzura 1976tik
BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA
ETXEETAKO ZERBITZUA
Traslados desde Iruñea, Donostia y Hospitales de Irungo ospitaleetatik edozein herritara
948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

OROIGARRIA

Miel
SALABERRIA ESKUDERO

Goizuetan, 2023ko apirilaren 20an

Urte ederrak, maitasun asko
utzi duk Miel atzean,
gure artean hor egonen haiz
txikiteo bakoitzean.

HIRE LAGUNAK

IZARRA
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak
TANATORIOAK
ELIZONDO · BERA · DONEZTEBE
ARANTZA · IGANTZI
24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

OROIGARRIAK
KULTURKARI
Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com
- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

BB
BAZTAN BIDASOA
BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU 365 EGUN
948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

Herencias y Gestión
Zuregandik hurbil gaude
Mugaz gaindiko herentzien onarpena
Gizarte segurantzan pentsioen eskaera
Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza
Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36
www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com

HITZ GEZIDUNAK

		Poltsikoa, sakela		Bidaniko herritar		Erabateko nahasmendu		Materiala	Ez handi, ez txiki	
		Duniar		◆ Izena		Pilatu		Kontso-nantea	Iturengoa, ezagunena	
		Gizon izena						Ardi, hitz elkarketan		
		Emakume izena						Larrua		
◆ Doltura		Irratiko saioa								
Klera		Musika nota								
							Puska			
							Azkeneko letra			
Nekez ulertzen da									Zinka	
Egona									Ume honetan	
				Umea			Gaserokina			Toki
				Perrotxiko mota			Donostiako auzoa			
Laborarien lanabes			Zirkonioa			Su lanra			50	
Ale landare			Intsiktu hegalari			Interjek-zioa			Saga, hitz elkarketan	
		Interjek-zioa			Erbioa			Jan edanez birte		
		Neodimioa			Ergaliboaren letrak			Errepikatuz, gorotza		
Dantza/ekuak										
Familiak										
						Saindu				

◆ Pilotari iturendarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

[1] Lesakako mendia (844 m.) [2] Bidaiari. [3] Hitzak letren bidez irudikatu, izkiriatu. [4] Ekintza adierazten duen hitz. [5] Toka, dut. [6] Erne! [7] Ahariaren eme. [8] Sasoi. [9] Danimarkako herritar. [10] Itsas arraina, jateko ona. [11] Mediterraneoko bigarren uharterik handiena.

ERANTZUNAK

PLAZAN BAZAN

ZORIONAK!
SAIOA TAPIA MUTUBERRIA!
828. aleko irabazlea zara!

ZER DA?

Animalia eder honek aintzira eta ibai bazterrak ditu gogoko. Arras ongi daki igerian eta arrainak jaten ditu. Zoritxarrez halako gutxi ditugu Euskal Herrian. Ba al dakizu zer izen duen? Ez badakizu, eraman beheko hizkietako bakoitza dagokion lekura eta hortxe agertuko zaizu.



MARGOTU

Gure lagunak arrain bat ikusi du uretan eta hura harrapatzera doa. Inguruan belarra eta sastraka dago eta euria ari du. Marraztu eta margotu eszena.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiurri)

Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin maiatzaren 9a baino lehenago,
Ttipi-Ttapako Whatsappera: (0034) 774 48 43 61
zure izen abizenak jarrita.
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!

Laguntzailea: ibaizabal

ZEEER??!!

Zer diote gure laguntxoek? Hasi bakoitzaren gezitxotik eta lotu hizkiak banan-banan, hariari jarraituz. Puntu urdinak hitzen arteko espazioak dira.

Idatzi lauki banatan pertsonaia bakoitzaren esaldia

SUDOKUA

Bete hutsuneak HODEIA hitzak dituen letren bidez. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	I				H
		O	A		D
			O		E
	D	E		A	
A			I		O
E		I		H	

INTERNETEN ERE BAI !

http://plazanbazan.eus/

Kontsultatu soluzioak www.Plazanbazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskoetako bidea, 7 **LESAKA**
T. **948 63 54 58** | M. **744 48 43 61**
info@ttipi.eus | erran.eus
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

828 zenbakiko irabazleak >

ZOZKETAK

***Liburuaren eguneko zozketa berezia**
Jose Angel Anzizar Ibarra | SUNBILLA

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Jose Migel Barberena Arsuaga | ERRATZU
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Mª Dolores Sanzberro | ETXALAR
Ez koxa - Kasketa bat
Ana Ibarra Elizagoien | AROSTEGI
BKZ Abentura - Sarrera bat
Luzia Irigoien Zelaieta | BEINTZA-LABAIEN
Taberna edariak - Lote bat
Ruben Garate Olondriz | IRURITA
Mendukilo - Bi sarrera
Rosa Gelbenzu Almandoz | DONEZTEBE
Martiko- Lote bat
Edurne Antsalas | ZUGARRAMURDI
Kapritxo - Soineko bat
Arantxa Mariñelarena Zabala | LEITZA
Elkar - Hiru liburu
Noemi de Mateo Alvarez | BERA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com

Kamiseta bat

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK
www.turismozugarramurdi.com

Sarrera bat

IRRISARRI LAND
www.irrisarriland.com

Sarrera bat

WOW PARK
www.wowpark.fr

Sarrera bat

LA RHUNE
www.rhune.com

Sarrera bat

SALTING IRUÑEA
www.saltingcenters.com

Bi sarrera

ANIKOTE
@AnikoteLeitza

Sarrera bikoitza igerilekurako

Sartu
ttipi.eus/ttipi-txartela
webgunean
eta ikusi
abantaila guztiak!

DESKONTUAK
ZOZKETAK
ELKARRIZKETAK
LAGUNTZAILEAK
ARGITALETXEAK

Aprobetxa itzazu **Ttipi Txartelak** eskaintzen dizkizun abantailak, **Ttipi Txartela** onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

LIBURUAK

Bi liburu

txalaparta
www.txalaparta.eus